

20 URTE ZUEKIN. goiena



'KORONAPAZKOAK'

Jai egitarau ofizialik ez da izango aurtien Bergaran, eta Pentekosteak ez dira modu ohikoan ospatuko. Udalak dei egin die herritarrei jaiegun hauetan arduraz jokatzeko / 24



GEHIGARRIA ERDIKO
ORRIETAN

XABIER URZELAI

Debagoieneko edari banatzaileak ere hasi dira apurka-apurka lanean, eten luze baten ostean / 4

Elgetako jaiak bertan behera eta Antzuolan ez dituzte ohiko festak egingo, "gaur-gaurkoz" / 34

"Sanjuanetan Herriko Plazan egin gurako genuke ekitaldi sinboliko bat"

Udako asmoen berri eman du Arrasateko alkateak; eta aurreratu du ez dela aurrekontua murriztuko / 10




Maria Ubarretxena, udaletxean. E.A.E.

Araozko ostatua egiteko obrak aurrera-ia 700.000 euro-, eta instalazio lanak hasi dituzte / 37

Bergarako eta Aloñako igerilariek uztailera arte ez dute ohiko entrenamendua berreskuratuko / 40


SINADURAK

 ALEX LABAIEN / 8	 JON MIKEL INTSAUSTI / 36
 ENERITZ URRUTIA / 16	 IDOIA ETXEBERRIA / 48



Goiena telebista: euskaraz tokiko informazioa lantzen

Nerea Lopez Salas irakasleari elkarrizketa



Kaleak, etxeak baino beteago

Azken egunetan PCR bidezko positibo berririk ez da egon bailaran. Terrazak harrera ona izaten ari dira, eta bailarako jatetxe eta hotel batzuek asteon zabaldu dituzte ateak. Espazio itxietako kultura ekitaldi gehienek uda ostera itxaron beharko dute

Maialen Santos DEBAGOIENA

Konfinamendua arintzeko planaren bigarren fasean zenbait jardura baimendu dituzte Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, baita orain artean egondako zenbait muga arindu ere. Mugikortasunari dagokionez, kalera irteteko ordutegi mugarik ez dago astelehenaz geroztik; adinekoen ordutegian, halere, lehenasuna izaten jarraituko dute hauek. Horretaz gain, hamabost pertsona arteko topaketak ere baimendu dituzte toki publiko zein pribatuetan, eta beilatokitako neurriak ere arindu egin dituzte. Bestalde, egoitza-zentroetan bisitak baimendu dituzte, mugekin izan arren. Jatetxe eta tabernek bezeroak barruan hartzeko baimena dute dagoeneko, eta elkarte gastronomikoek ere ireki dezakete, nahi izanez gero. Hondartzen kasuan, bertan egotea eta ibiltzea baimenduta dago. Gainera, kultur-gune, zinema eta antzokiak ere edukiera mugekin zabal daitezke, eta berdina estalitako kirol azpiegituren kasuan. Ikasle batzuk ere itzuli dira ikasgelataraz; jardun presentzialera.

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN

PCR BIDEZKO POSITIBO BERRIRIK EZ BAILARAN JOAN DEN OSTIRALAZ GEROZTIK

Eusko Jaurlaritzak eguaztenera arte emandako datuen arabera, Debagoiengan ez da PCR proba bidezko positibo berririk hauteman joan den ostiralaz geroztik –egun hartan Aramaion kasu berri bat egiaztatu zuten–. Datu orokorreari dagokionez, EAEko gaixoen %91 sendatu egin dira dagoeneko. Dena den, 263 lagunek gaixorik jarraitzen dute, eta pandemia hasi zenetik 1.513 lagun hil dira.

Foru Aldundiak adinekoen egoitzei buruz eguaztenean emandako datuek diote pertsona batek gehiagok jaso duela mediku alta Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan. Gauzak horrela, 19 lagunek jarraitzen dute gaixorik egoitza horretan. Bestalde, Arrasateko Iturbiden eta Eskoriatzako Jose Aranan dagoeneko ez dago koronabirusak kutsatutako gaixorik. Azken hamazazpi egunetan, gainera,

ez da inor hil Gipuzkoako adinekoen egoitzetan.

Koronabirusak kutsatuta hildako pertsonak oroitzeko elkarretaratzeak edo minutu bateko isiluneak egin zituzten eguaztenean Arrasateko eta Eskoriatzako udaletxeetan, esaterako. Debagoieneko Ospitaleko dozenaka langilek ere bat egin zuten deialdiarekin.

TABERNAK ETA JATETXEAK ZABALIK

JATETXEAK HASI DIRA ZABALTZEN; JENDEA HARTZEKO GOGOZ ITZULI DIRA LANERA

Jatetxeek eta tabernek bezeroak barruan hartzeko baimena dute astelehenaz geroztik; betiere, edukieraren %50 bete arte eta mahaian artean bi metroko distantzia mantenduta. Oñatiko Lizar Etxe merenderoa astelehenan bertan ireki zuten –terrazza eta barrua– eta lehen egunetan jendeak emandako erantzuna "izugarri ona" izan dela adierazi dute bertako ardurdunek. Gaineratu dutenez, aseturura begira ere jendea es-



Bergarako Irala kaleko terrazak beteta, mahaian arteko segurtasun-distantziak errespetatuz. E.A.

pero dute jatetxean. Barruan zein terrazan eskaintzen dituzte otorduak, eta, beraz, segurtasun neurriak betetzeko "arazorik ez" dutela aitortu dute. Aretxabaletako Basabe jatetxea eta Arrasateko Garaia jatetxea ere zabalik daude, baina oraindik ez dute "mugimendu askorik" igarri. Biek inguruko enpresatako langileak dituzte ohiko bezero, eta asko oraindik etxetik ari dira lanean. Halere, aitortu dute edozein bezero hartzeko "gogoz" itzuli direla lanera. Arra-

sateko Udaletik adierazi dute Etxaluze egoitzako tabernari eta ile-apaindegiari irekitzeko baimena eman dietela, baita Musakolako tabernari ere. Bestalde, Toki Argi eta Erguingo zahar egoitzetako tabernak "epe laburrean" zabalduko ahal izango dituztela adierazi dute. Bergarako San Joxepe elkartean eta Oñatiko Pake Lekun etenda dute jardura guztia; halere, oñatiarrak adierazi dute ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen ari direla, aurrez hitzordua hartuta.



FP GARA!
2020/21
kurtsoa

➤ Izen-ematea:
Ekainaren 1etik 19ra.
➤ Matrikula:
Uztailaren 13tik 17ra.

www.eraiken.com

Av. de Los Huetos, 33
01010 Vitoria-Gasteiz, Álava

eraiken@eraiken.com

945 001 200

Goi-mailako teknikaria

- Eraikuntza-proiektuetakoa
- Eraikuntza-obrak antolatzeko eta kontrolatzeko
- Arrisku profesionalen prebentziorakoa
- Energia-eraginkortasuneko eta eguzki-energia termikoko
- Instalazio termiko eta fluidodunak mantentzeko

Teknikaria

- Eraikuntzakoa
- Barnealde, dekorazio eta birgaitze obretakoa
- Instalazioko eta altzari hornikuntzakoa
- Beroa sortzeko instalazioetakoa
- Hozteko eta girtzeko instalazioetakoa





HOTELAK, BEZEROEN ZAIN

OSTATUAK ZABALTZEN
ARI DIRA PIXKANAKA,
BAINA BISITA GUTXI
ESPERO DITUZTE

Hotelak eta ostatuak ireki daitezke dagoeneko, eta horietako eremu komunak publikoarentzat irekitzea ere baimenduta dago –edukieraren herena gaintitu gabe–. Elgetako Maialde landetxea, esaterako, dagoeneko ireki dute publiko orokorarentzat.

Bertako arduradun Jesus Kalboetxeagak aitortu du orain artean langileak soilik hartu dituztela, horretarako "baimena" zutelako. Astelehenetik aurrera, baina, edonor joan daiteke: "Oraindik soilik langileak etorri dira; halere, datozen asteetarako erreserbaren bat ere badugu". Aitortu du bertan behera utzitako egonaldiak ere "asko" izan direla. Segurtasun neurriei dagokienez, garbiketa "areagotu" egin dutela azaldu du. Eskoriatzako Gorosarri landetxean

egoera antzekoa da. Bertakoek azaldu dute beraiek ere izan dutela baimena koronabirusaren krisiari aurre egiten aritu diren langileak hartzeko, eta, horietaz gain, turismoa egitera doan inor oraindik ez dute hartu. Kasu honetan ere, erreserba batzuk hartu dituzte azken egunetan; esaterako, abuztura begira. Azkenik, Oñatiko Ongi Hotela datorren astelehenean zabalduko dute, eta asteon desinfekzio lanak egiten ari direla azaldu diote GOIENARI. Aitortu dute "joan-etorri askorik" ez dutela espero, baina ostatu hartu gura duenak izango duela nora jo.

ESKOLA PRESENTZIALETARA BUELTA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASLE GUTXI BATZUK
ITZULI DIRA JARDUN
PRESENTZIALERA

Astelehen honetan itzuli dira bailarako hainbat ikasle jardun presentzialera; horietatik gehienak, Lanbide Heziketakoak. Zehazki, Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketan "azken azterketak" egingo dituzte presentzialki, eta Aretxabaleta Lanbide Eskolara bigarren kurtsoko ikasleak soilik itzuli dira. Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, Arizmendi Ikastolan, Bergarako Miguel Altunan eta Oñatiko Zuzazola-Larrañan ere zenbait ikasle bueltatu dira asteon klausetara. Ikasleek azaldu dute egoera "arraroa" dela, eta ikastetxera iristeaz bat "neurriak" hartzen dituztela. Halere, diote, horiek betetzea ez dela zaila, ikasle gutxi pilatzen baitira.

DBH-4ko eta batxilergoko ikasleei dagokienez, ikastetxe gehienetan errefortzu beharra dutenek zein etxean baliabiderik ez du-

tenek amaituko dute ikasturtea ikasgelan. Bestalde, selektibitate prestatzeko saioak egingo dituzte ikastetxe gehienetan.

ARETOAK ETA ZINEMAK

ESPASIO ITXIETAKO
KULTURA EKITALDI
GEHIENAK, UDA
OSTERA ARTE ETENDA

Udara gerturatu ahalaz bat espazio itxietan egiten diren kultura ekitaldiak "murriztuz" joaten direla eta, bailarako antzoki eta zinema areto gehienek ez dituzte ateak irekiko, gutxienez, irailera arte. Horrenbestez, espazio itxietako ekitaldiak ez dituzte egingo; edo, egitekotan, aire zabalean egingo dituzte.

Bergarako Seminarixoa itxita mantenduko dute uda ostera arte, eta berdin Eskoriatzako Zaldibar eta Aretxabaletako Zaraia aretoa ere. Bestalde, Arrasateko Udaletik azaldu dute datozen egunetan emango dutela Amaia antzokiaren eta Kulturateren irekierari buruzko informazioa. Antzuolako Udalak ez du Torresoroan ekitaldiaren bat egitea baztertzeko, baina adierazi dute oraindik ez dutela hitzordurik lotu. Oñatin, azkenik, ekain hasieran irekiko dute Kultura Etxeko zinema aretoa, baina ez dute zinema emanaldirik eskainiko; tailer eta hitzaldi bana egingo dituzte. Santa Ana aretoa ere laster irekiko dute; ekainaren 5ean bakarrik keta saioa egingo dute. Oñatiko Kultura zinegotzi Iñaki Olalde zehaztu duenez, toki bakoitzeko edukiera erdira edo gutxiagora murriztu beharko dute: "Santa Anaren kasuan, 80 pertsona elkartu ahal izango dira, gehienak josta".



GOIENA

"COVID-19a
baino gehiago,
beldurra dugu
etsai"

IÑAKI PEÑA

BARNE-MEDIKUA

Koronabirusaren krisian lanean aritu da Iñaki Peña medikua. Uste du birusa "guztiz ahulduta" dagoela.

Nolakoa izan da
gaitzaren eboluzioa?

Positiboa. Kutsatzeko probabilitatea oso baxua da orain. Arazo handiena beldurra da, eta gaitzaren ondorioz sortutako arazo mentalak –depresioa, desorientazioak, fobiak...–.

Maskarak eraginkorrak
dira? Eta kalera

ateratzeko neurriak? Maskarak duela hilabete askoz ere eraginkoragoak izango ziren. Aestetik atera eraginkortasuna galtzen doaz. Kalera irten egin behar dugu; osasun mentalaren mesedetan.

Udazkenean itzul
daiteke COVID-19a?

Ez dago ebidentziarik. Baikorra naiz, eta uste dut desagertu egin daitekeela.



Egoera berezi honetan, jarri kontaktuan gurekin eta argitu aseguruari buruzko zalantza guztiak:

- D&O. Zuzendarien Erantzukizun Zibila
- Ziberarrisku Enpresa

Enpresa babestua, enpresa segurua.

Inbisa Negozio Gunea (Gamarra)
Zumar Etorbidea 1, 229 bulegoa
01013 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 00 00 71 • Fax: 945 00 00 72

Antso Abarka 6, behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 59 81 • Fax: 943 79 39 18

Zurradero 2
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 65 • Fax: 943 76 40 37

goiena@goienaasegurua.com

www.seguosgoiena.com



Oñatiko Gereta Ardoak-eko Inaxio eta Manu anaiak, goizeko banaketa egiteko edariak prest dituztela. M.S.

Edari banatzaileak hasi dira, pixkanaka, martxan

Bezero gehienak ostalariak izanik, konfinamenduak iraun bitartean lan-jarduna ia guztiz etenda izan dute bailarako edari banatzaileek. Partikularrentzako salmentak igo egin dira, halere. Jatetxeen eta terrazen irekierari esker, hasi dira erritmoa berreskuratzen

Maialen Santos DEBAGOIENA

Tabernak eta jatetxeak itxita egon izanak ia guztiz "gelditzera" behartu ditu bailarako edari banatzaileak. Lan egiteko modua ezohiko egoerara egokitu behar izan dute, baina denda eta etxeetako banaketarekin jarraitu ahal izan dute gehienek. Banatzaileek diote azken salmenta horiek "nabarmen" egin

dutela gora azken asteetan. Oñatiko Gereta Ardoak-eko arduradunetako batek, Inaxio Geretak, GOIENARI azaldu dio etxeetan "dezente" banatu dutela azken boladan. Hala ere, salmentak, orokorrean, nabarmen jaitsi dira: "Gutxi gorabehera, %80". Txomin Zubeldia Edariak enpresako arduradun Jokin Zubeldia ere bat dator salmenten

jaitsiera igarri dutela esateko orduan, eta zehaztu du iazko apirilarekin alderatuta aurten-goan %7 soilik fakturatu dutela. Distribuciones Gorbeako Ana Presasek iritzi bera du, eta "argi" dauka denda tradizional eta partikularren laguntzari esker egin ahal izan dutela aurrera: "Denda batzuek salmentak bikoiztu dituzte, jendeak etxera

eramateko erosi duelako". Euren kasuan, partikularrentzako salmentarik ez dute egiten, baina ezohiko egoeraren aurrean, esaterako, esnea gertuko jendeari saldu behar izan diote, "gal ez zedin eta diru-sarreraren bat izan genezan". Ildo horretatik, Geretako Manu Geretak aitortu du herritarrek "izugarri ondo" portatu direla unerik zailenetan, eta euri esker izan dituztela diru-sarrera gutxi batzuk: "Es-kerrak ematea besterik ez dugu jasotako laguntzarengatik".

Terrazak, oso lagungarri

"Okerrena" pasata, terrazak eta jatetxe barruak zabaldu dituztenetik erritmoa "pixkanaka" errekuperatzen ari direla diote banatzaileek. Hain zuzen, Manso Hermanos enpresako Iñigo Mansok azaldu duenez, jendearen "mugimendua" igarri da azken egunetan, eta horrek "poztu" egiten du bera. Zubi-diatik uste dute ostalaritzaren irekierak "on" egingo diola euren negozioari; uste baitute jendea terrazetara joateko "gogotsu" dagoela, eta harrera "ezin hobea" izan dutela. Halere, arduradunak "argi" du erritmoa pixkanaka errekuperatu arren, egoera ez dela "lehengora" itzuliko.

Langileen egoerari buruz galdetuta, lau enpresek dute langileren bat edo beste ERTEan; eta kasu gehienetan, senideak dira orain enpresa aurrera ateratzen ari direnak. Hain zuzen, azken egunetan gehienek bisitatu dituzte jate-txe eta tabernak, horiek hornitze aldera. Gorbeako Ana Presasek aitortu du terrazak ireki zituzten astean bertan, taberna batzuk "birritan hornitzera" joan behar izan zutela, "astearen erdian zenbait edari

gabe geratu zirelako". Geretik, aldiz, diote euren konfinamendua hasi aurretik hornitu zituztela taberna eta jatetxeak, eta, orain artean itxita egon direnez, gehienetara joan beharrik ez dute izan, "oraindik denetarik dute eta".

Aurrera begira jarrita, Mansok egoera "hobera" joan dadin espero du. Edozelan ere, uste du koronabirusaren krisiaren ostean "ohiturak" aldatu egin direla, eta askok bere horretan jarraituko dutela aurrerantzean ere: "Konfinamenduan jendeak ardoa edaten ikasi du etxean; eta, agian, ohitura hori mantenduko da".

"TABERNA BATZUK ASTEAREN ERDIAN BERRIRO HORNITU BEHAR IZAN DITUGU"

ANA PRESAS, DISTRIBUCIONES GORBEA

"HERRITARREI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU; ONDO PORTATU DIRA"

MANU GERETA, GERETA ARDOAK

"HILABETE GOGORRAK IZAN DIRA; ORAIN, TERRAZEK LAGUNTZEN GAITUZTE"

JOKIN ZUBELDIA, ZUBELDIA EDARIAK

"ORAIN ARTE ETXEAN EDATEN EZ ZUEN JENDEAK OHITURAK ALDATU DITU"

IÑIGO MANSO, MANSO HERMANOS

Krisi honetan bergararrok eredugarriak izan gara.

Bueltatuko dira Pentekosteak!

Oraingoan ere arduraz eta erantzukizunez jokatzeari dagokigu!

Begarako Udala

Elkarte gastronomikoak ari dira ateak zabaltzen

Bigarren fasean sartuta, elkarte gastronomikoen eta txokoen irekitzeko aukera izan dute. Bailarako elkarteetako kideak erabakiak hartzen ari dira; elkarte batzuk ireki dituzte, beste asko neurriak zehazten ari dira, eta itxita jarraituko duenik ere badago

Maialen Santos DEBAGOIENA

Konfinamendua arintzeko planaren baitan, Eusko Jaurlaritzak bigarren fasean baimendu du elkarte gastronomikoen eta txokoen irekiera. Zehaztu dute tabernen irizpide berak jarraitu beharko dituztela: besteak beste, gehienez ere %50eko edukiera betetzea, eta mahaien artean gutxienez bi metro uztea. Bailarako elkarteetan galdetuta, Antzuolan azaldu dute elkarte guztiak "elkarrekin" zabaltzeko proposamena aztertzen ari direla, eta horretarako elkarteetako ordezkariekin batzarra egingo dutela, "bakoitzaren azpiegitura eta egoera ezberdina



Pablo Azuara, Bergarako Gure Ametsa elkarteko sukaldean lanean. PATXI URIBESALGO

delako". Aretxabaletan, bestalde, asteon bildu dira elkarte bakoitzeko ordezkariak eta erabaki dute itxita mantenduko dituztela, momentuz. Eskoriatzako kasuan, ekainaren 8an irekiko dituzte, baina oraindik ezingo da otordurik bertan egin. Oñatin, Oinarri elkarte gastronomikoa atzotik dago zabalik. Bertakoek azaldu dute Udalarekin hitz egin ostean hartu dutela "zabaltzeko erabakia". Hala eta guztiz ere, protokoloa jarraitu beharko dutela azaldu dute: "Elkarteak bi solairu ditu. Bakoitzean lehen egon zitekeen jendearen erdia soilik egon ahal izango da". Bestalde, aitortu dute sartzear bat eskuak gelarekin desinfektatu beharko direla, eta, oster, diote erabilera bakarrek zapi zein maindireak erosi dituztela. Sukaldean gehienez ere bi pertsona batera aritu ahal izango dira, eta gainontzekoek eserita egon beharko dute. Bestalde, Bergarako Sagarpe elkartetik azaldu dute ireki ahal izateko bete beharreko neurriak "aztertzen" ari direla eta lan horren "konplexutasunagatik" eta dekretuaren zehaztasun fal-

tagatik "ezinezkoa" izango zaie la elkartea irekitzea: "Bazkideen segurtasuna bermatzeko neurriak nola bete ditzakegun ikusi arte izango dugu itxita".

Arrasateri dagokionez, esaterako, Txalaparta, Amaika Gazte eta Danok-Bat elkarteak ere ez dituzte zabalduko oraindik.

Horretaz gain, Bergarako Gure Ametsa elkarteak martitzenean zabaldu zituen ateak, bazkideek GOIENARI azaldu diotenez. Euren elkarte "txikia" da, eta lehen egunetan "ondo" moldatu direla diote: "Lehen, zortzi mahai genituen, eta orain, lau soilik daude erabilgarri". Horretaz gain, bete beharreko "zenbait arau" ezarri dituzte, segurtasunerako. Aramaioko Leixar Ondo elkartea asteon dute zabaltzeko asmoa, baina aitortu dute erabakia ez dela "irmoa", beste elkarteek zer egiten duten jakin gura dutelako. Zubiondo elkartea, azkenik, astelehenean irekiko dute. Irekierarako hartutako erabakien artean daude gehienez ere 12 pertsona elkartzea -37 bazkide dira- eta elkarreko bost mahaietatik bi bakarrik erabili ahal izatea.



AURTEN JAIRIK EZ, BAINA GOIENA TELEBISTAN SAIO BEREZIA

AURKEZLEAK: IÑIGO ALMORZA ETA MIREN ARREGI
'HEMEN DEBAGOIENA', ZUZENEAN SEMINARIXOTIK, 18:00ETAN
ERREPIKAPENA: 20:00ETAN ETA 22:00ETAN

BERGARAKO TABERNA HAUETAN ZUZENEAN IKUSTEKO AUKERA:
ETXAGI, EUXEBIO, ETXALAR, GANBARA, FRONTON TABERNA, TITOS, DEPOR,
KAFFE BERGARA ETA POL-POL

goiena
20 URTE ZUEKIN

Etorkizunari begira, mesfidantza handiarekin

Pandemiak gogor estutu ditu ia sektore guztiak eta horien artean daude, besteak beste, elektrikariena, arotzena, tindatzaileena, iturginena eta barne diseinuan dihardutenena; gehienei asko kostatzen ari zaie aurrera egitea, lan gutxi daukatelako

Eneko Azurmendi ARRASATE

Konfinamenduaren hasierak Lanzaroten harrapatu zuen Ion Merino elektrikari arrasatearra, oporretan, eta hona itzultzean hamabost eguneko koarentena egin behar izan zuen. "Horren ostean, ezinbestekoak ziren matxurak konpontzen aritu naiz orain arte; hau da, etxebizitzaren bat urik gabe, argindarrak gabe edota telebista edo Internet barik bazegoen. Hala ere, guztira hamar bat matxura-edo izango ziren barririk, gehienak ur berorik gabe eta argindarrak gabe zeudenak", azaldu du.

Bezeroen etxeetara joan behar izan du Merinok, eta hainbat segurtasun neurri hartu behar izan ditu hasieratik. Era berean, bezeroekin ahalik eta kontaktu fisiko txikiena izaten saiatu da. "Etxera sartu aurretik, esan diet beste logela batean egoteko, eta ni zuzenean joan naiz matxura dagoen lekura. Hala, haiekin egotea saihestu egiten dut".

Elektrizitateaz gain, iturgintzan eta pintaketan ere aritzen dira Ion Elektrizitatea enpresako bi lankideak. Hala ere, lan gutxi daukate orain. "Gehienbat, lagunek eta gertukoek esan digute konponketaren bat edo beste egiteko. Ate asko jotzen ibili gara, baina zorte handirik gabe. Oraindik beldur handia dagoela esango nuke, eta horregatik ez digute deitzen. Ea apurka egoera hobetzen joaten den. Bitartean, gerrikoa estutu behar dugu", dio Merinok.

Atzeratutako lanak aurreratzen

Bergarako Ugarte aroztegiaren "apur bat lotuta" egon direla azaldu du aroztegiako arduradun Javier Sarraok. "Produktzio lana ez dugu gelditu, eta tailerrean lan egiteko aukera izan dugu, baina ezin izan ditugu muntaketak egin, eta oraindik ere nahiko lan dugu horretarako".

Sarraoren esanetan, erraz moldatu dira egoera berrira. "Ohituta gaude, bernizarekin aritzen garenean-eta maskara eta eskularruak erabiltzen ditugulako. Azken finean, kaleko ohiturak apur bat aldatzea da".

Lehendik atzeratuta zeuzkaten lanak egiteko aprobetxatu dute, batez ere, denbora hau. "Aurrez genituen eskaera horiei erantzuna emateko altzariak fabrikatu ditugu, eta orain muntatzen hasi gara apurka-apurka". Due-la hiru aste hasi ziren horretan.

"EGOERA HOBETZEN DEN BITARTEAN, GERRIKOA ESTUTU BEHARKO DUGU"

ION MERINO, ION ELEKTRIZITATEA

"LAN BERRI GUTXI DAUKAGU, ETA ETORKIZUNA LATZA IZANGO DA"

JAVIER SARRAO, UGARTE AROZTEGIA

"ARROPEKIN, EZ GAUDE URTEKO GARAI HAUETAN EGON OHI GAREN MAILAN"

ESTEBAN LETURIONDO, DEBA PREST

"KORONABIRUSAREN SINTOMA BATZUK DITUT: LAN GUTXI ETA UMORE TXARRA"

ANGEL EGIA, EGIA ITURGINTZA

"ESPERO DUT BEZEROEK GUGAN KONFIANTZA IZATEN JARRAITZEA"

AINHUA URBIETA, URBIETA DISEINUAK

"Inor bizi ez zen etxe batean erreforma bat egin ahal izan genuen, eta ordutik, bezeroei baimena eskatuz ari gara muntaketa gehiago egiten, baina askorik ez", nabarmendu du.

Onartu duenez, lan berri askorik ez da sartzen ari azken aste hauetan, eta egoera "latza" aurreikusten du aurrera begira.

Apurka-apurka martxa hartuz

Arrasateko Deba Prest tindategiko gerente Esteban Leturiondok argitu duenez, ez da gauza bera tindategi bat edo garbitoki bat izatea, eta, garbitokiek ez bezala, haiek itxi egin behar izan dute. "Tindategia bakarrik daukagu guk, arlo soziosanitariorako ez dugu lanik egiten. Beraz, itxi egin behar izan genuen, bi arrazoigatik: batetik, segurtasunik ezagatik, prebentziorako baliabide falta guelako; eta, bestetik, jendea etxean sartuta zegoelako", azaldu du.

Maiatzaren 11n ireki zuten berriz, eta apurka-apurka nabaritzen joan dira mugimendu gehiago dagoela. "Alde batetik, edredoiekin, gortinekin edota alfobrekin ondo ari gara lanean. Desinfektatzeko produktu berezi batzuk erabiltzen ditugu, eta produktu horiek ez daude edozein etxetan. Beraz, alde horretatik, bagabiltza hobekuntza bat nabaritzen. Baina, arropari dago-kionez, ez gaude urteko garai hauetan egon ohi garen maila berean. Garai hauetan jaunartzeak eta ezkontzak hasten dira, baina aurtan ez dago halakorik, eta hori nabaritzen dugu".

"Jendeak ez digu deitzen"

"Telefonoari behin eta berrero begiratzen diogu ea argindarra joan den edo arazoren bat dagoen, baina ez da hori, ez digute deitzen", dio Arrasateko Egia Iturgintzako arduradun Angel Egiak. Gainera, lan egiteko modua aldatu egin zaiela adierazi du.



Ion Merino elektrikari arrasatearra, lanean. I-M-

"Lehenaz gain, orain dokumentazio gehiago eskatzen digute enpresetan sartzeko, eta horrek, lana atzeratzeaz aparte, denbora gehiago eskatzen du". Halaber, egoera ondo laburbiltzen duen anekdota bat kontatu du. "Ulman, sarrerara gerturatzean, tenperatura hartzen dizute, galdera batzuk egitearekin batera. Galdetu zidaten ea koronabirusaren sintomaren bat nuen, eta baietz erantzun nien. Lan gutxirekin gaudela, eta umore txarrez".

Lehendik atzeratuta zeuzkaten lanekin ari dira, baina ez zaie lan berririk sortzen. "Orain arte, inoiz ez zaigu lanik falta izan, ezta krisi ekonomikoaren garaian ere; beti eduki izan dugu lan asko. Baina orain jendeak ez digu deitzen", berretsi du.

Hasieran, kezkatuta; gero, pozik
Obrarrik handienak atzeratu egin behar izan ditu Bergarako Ur-

bieta Barne Diseinuak. "Itxita eduki dugun bi hilabeteetan etxetik aritu gara lanean, proiektu batzuen diseinuak burutzen, eta noizbehinka urgentziako lanak ere egin ditugu: iturgintzako lanak, etxetresnen aldatzeak, eta abar", dio Ainhoa Urbieta arduradunak. Lanera bueltatzearrekin "kezkatuta" zedula aitortu du, baina eskertuta eta pozik azaldu da bezeroengandik jasotako erantzunarekin. "Herriko komertzioetan erostera animatuta ikusten ditugu".

Proiektu berriak dituzte esku artean eta horrek aurrera egiteko "ilusioa" pizten diela dio Urbietak. "Batzuk etxeko txoko ezberdinetan dituzten gabeziek konturatu dira, eta gure bitartez aldaketa batzuk egitera animatu. Espero dugu aurrerantzean ere bezeroek gugan konfiantza izaten jarraitzea", gaineratu du.



ai arizmendi ikastola

Iñaki Etxezarreta

Arizmendi Ikastolako Zuzendari Nagusia

"Hezkuntza-eragileok eskolaren funtzioari buruzko gogoeta egiteko egoera aproposa izan da"



Goizper Group
Elkartasun garatzen

Iker Gartzia

Goizper Kooperatiba Elkartearen presidentea

"Segurtasuna bermatu, lanpostuak mantendu eta bezeroen beharrak erantzun ditugu"



CHAPIME TALERRAK
KIA TXAPIME AUTOAK

Mikel Loiti

Chapime-Kia auto-kontzesionarioaren arduraduna

"Gure lehentasuna langileen eta bezeroen osasuna bermatzea izan da"



MGEP
MONTANON GOIENARA POLIZIA
JOSI BARRA-ERAZKINEN 5. COOP

Gorka Aretxaga

MGEPko Lanbide Heziketako koordinatzailea

"Lanean ari gara, irailan hasteko baliabide egokiekin eta segurtasun neurriekin"



arteman
KOMUNIKAZIOAREN ARTISAUAK

Arantzazu Lagunilla

Arteman Komunikazioaren Artisauek-eko zuzendaria

"Bezeroei berehala erantzuteko gertu gaude, bidea elkarrekin egiteko prest"



UDALAITZ S.L.
Arantzazu

Jon Galdos

Udalaitz Autoak kontzesionarioaren arduraduna

"Udako hilabeteak onak izaten dira lanerako, baina salmentei buelta ematea kosta egingo da"



#DenokAurrera

Ikusi elkarrizketak Goiena.eus atarian.



Hemen
garbiketak

Jose Antonio Ponferrada 'Ponfe'

Hemen Garbiketak-eko arduraduna

"Bezero guztien esanetara gaude 32 urte baino gehiagoko esperientziaren bermarekin"



ibai-arte

Jon Apraiz

Ibai Arteko presidentea

"Gure txertoa beti izango dira gure bezeroak; eskerrik asko guztiei"



ZABALIK

ALEX LABAIEN

'Nórmal...'

Zer moduz, ba? Dena ondo? *Nórmal*... Urte hasieran edozein lagunek horrela erantzun izan baligu, seguru asko pentsatuko genuen adiskideak egun txarra zeukala, edo berrikerarako gogo handirik ez... *Nórmal* berbak ez zuen aparteko *feeling*-ik, aparteko erakarpenik; izatekotan, esango nuke halako gristasun moduko bat transmititzen zuela, tristura, ilusiorik eza... Asteburua *nórmal* pasatzea ez zen ondo pasatzea. Pelikula *normala* ez zen pelikula ona. Lan *normala* ez zen gure ametsetako lana. Normaltasunak ez gintuen asetzen. Hark ez.

Mundua hankaz gora jarri zaigun honetan, berriz, Normal SAko akzioek nabarmen egin dute gora Bizitzaren Burtsan. Ez Nikkeirik, ez Dow Jonesik, ez Ibexik... Bizpahiru hilabeteren buruan, mundutar gehienon jomuga bihurtu zaigu *normalidadea*. Normaltasuna dugu amets, eta haren bila gabiltza denok, antsiatz.

Berria izango ei da, gainera, normaltasuna. Sentiberagoak izango ei gara, eta solidarioagoak; natura errespetatu, eta bizimodu jasangarriagoaren alde egingo ei dugu. Ei.

'BERRIA' IZANGO EI DA NORMALTASUNA. SENTIBERAGOAK IZANGO EI GARA, ETA SOLIDARIOAGOAK...

Bankari bati leitutakoak dira horiek. Atera kontuak, berak ederki aterata izango ditu eta!

Zapatuko *Berria*-n –egunkarian, ez normaltasunean– J.M. Pastorri irakurri nion ezetz, normaltasun *zaharrera* itzuliko garela, baina okerrago, pobregoa, lotuago... Ni neu ere horretan nago. Hala izan zen 2008ko beste *birus* haren ondoren, eta oraingoan ere...

Nik dagoeneko sumatu ditut aste honetan bertan normaltasun ustez berri horren lehen atzaparkadak: Bergarara jaitsi, arazo mekaniko baten ondorioz autobusa behar etxera itzultzeko, eta... "Sentitzen dut, baina bertan behera laga zituzten ia guztiak. Autobus bakararra dago goizean, eta beste bat arratsaldean...", telefonoz, Lurraldebuseneko neskek.

Kentzen –edo ez berririo ipintzen– hasita, badakigu nondik hasiko diren mozten. Txikitik. Nondik, bestela? Normala...

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Distantzia fisikoa

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Distantzia fisikoa. Espazio bat bi gorputzen artean. Partikulaz, atomoz, argiz eta zarataz betetako espazio bat, bi gorputzen artean. Arazo handiegia ez dirudien arren, denboran zehar mantenduta hilgarria den espazio hori.

Duela bi aste hasi nintzen konturatzen bakarrik bizi diren lagun askok ez dutela inor ukitu konfinamendua hasi zenetik.

Distantzia fisiko, semi-isolatu honek asko du apatiaz, edonor goibel dezake.

Nik ere ez dut gogo gehiegirik gaur hau idazteko, norbait imajinatzeke hau irakurtzen.

Baina azkarrago eta latzago goibeltzen ditu inor ukitu gabe bizi direnak.

Ikusi dut nire begiekin arima alaietan ere itzal ditzaakeela horrek, zer gertatzen ari den jakin gabe, triste egoteko arrazoiak bilatu nahian etengabe, eta "ez daude". Afektibitatearen garrantzia. Afektibitatearen beharra.

Eta gauza asko ulertzen ari naiz orain.

Pertsona heldu, egonkor, haurtzaro oneko, harreman-sare osasuntsudunak ikusten ditut ahul, bai gorputz, bai

buru, sekula aurretiaz emandako buelta toxiko guztiak orain ematen buruari, zalantzati, autoestima galtzen pixkanaka.

Kontaktu fisikoa falta zaielako, bi hilabetez. Nola ez dira, ba, hutsunez beteta egongo umetan ukitu ez dituzten pertsonak? Jaio eta azalaren berorik aurkitu ez zuten horiek?

Amesgaiztoetatik ihes egiteko arnas akonpasatu bat aurkitu ez zuten horiek?

Eta hutsune horiek ezin dira bete, loa errekuperatu ezin den bezala.

Serioago hartu behar dugu osasun mentala.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),

Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,

Amalia Martínez de Arenaza,

Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,

Amalia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Aurrerapen zientifiko berriak aurkeztuko ditugu"

AITOR MADARIAGA MU-KO IKERTZAILEA ETA KONGRESUAREN ANTOLATZAILEA

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE Fabrikazio aurreratuen berrikuntza aztertze kongresua egingo du Mondragon Unibertsitateak ekainean. 19 herrialdeko 150 aditurekin batzar telematikoa egingo dute.

Zeri buruz egingo duzue berba?

Fabrikazio aurreratuak geroz eta pisu handiagoa du, bereziki herrialde garatuak ekonomian. Nazioarteko lehia handiari aurre egite eta industria-irtenbide lehiakorragoak bilatzeko tresnak aztertuko ditugu. Ikerkuntza oso garrantzitsua da, eta biltzarrean aurrerapen zientifiko berriak aurkeztuko ditugu, eta aurkeztuko dizkigute.

Zer da fabrikazio aurreratu?

Kontzeptu zabala da. Oraingoan, gainazal integritatearen gaineko hausnarketa egingo dugu. Fabrikazio prozesu berriak martxan ipintzea edo aurretik zeudenak optimizatzea gurako genuke, fabrikatzen diren



Aitor Madariaga, Mondragon Unibertsitatean. MU

piezen gainazala hobea izan dadin, eta balio erantsiko produktuak atera ahal izan daitezten. Zehazki, aeronautikaren, energiaren, automozioaren eta makina-erremintaren sektorean

egindako aurrerapenak aurkeztuko dira.

Mondragon Unibertsitateak lau lan aurkeztuko ditu.

Horietako bi lan Errendimendu Handiko Mekanizazio Taldeak

egindakoak dira; beste bat, Gainazalen Teknologien taldearena; eta laugarrena, Saint Etienneko Ingeniarren Eskola Nazionalarekin elkarlanean egindakoa. **19 herrialdeko 150 aditu baino gehiago elkartzea ez da erraza izango.**

Erronka handia izan da guretzat. Ekitaldi presentziala izan behar zuena telematikoa bilakatu dugu pandemiaren ondorioz. Parte-hartzaileak plataforma baten sartuko dira ekainaren 1etik 5era, eta hor, fabrikazio aurreratuan aditu diren 100 bat lagunengatik txostenak kontsultatu ahal izango dituzte. Era berean, biltzar telematikoa izanik, eduki guztietara sartzeko eta eztabaida-foroetan parte hartzeko aukera ematen du, ordutegi malgua izango duelako.

Zer da MUREndako halako kongresu bat antolatzea?

Fabrikazio aurreratuarekin lotutako ikerkuntzan ibilbide nabarmena daukagu. Euskadiko, Espainiako eta Europako proiektu askotan parte hartu dugu. Besteak beste, balio erantsi handiko osagai aeronautikoen fabrikazio-prozesuak hobetzeko. Horrenbestez, ohorea da guretzat antolatzaile izatea.

HAU BE BADOGU!

Jai ezberdinak aurtengo udan



Bergarakoak izan dira bailaran lehenak, baina dagoeneko Debagoieneko eta Euskal Herriko hainbat txokotako jai nagusiak ere bertan behera geratu dira: **@iraitzlazkano:** "Penaz, baina arduraz. 2020an ez da Ferixa Nagusiko jairirik izango".

@goraxaho: "Normaltasun berriko jaiak nolakoak izango diren ikusteko irrikitan".

Pablo Iglesias, sare sozialetako erdigunean

Madrilgo Kongresuan PPko bozeramaile Cayetana Alvarez de Toledok presidenteorde Pablo Iglesiasen aita FRAP taldeko kide izateagatik "terrorista" izan zela adierazi zuen eguaztenean, eta sare sozialak sutan jarri ziren adierazpen horien ostean. Gaia *trending topic* izan da mundu mailan.

Hondartzak betetzen hasi dira

Alarma egoeran jarraitu arren, *ireki* dituzte hondartzak, eta bainuak hartzeko aukera dago: **@saizar:** "Daukat kristoren gogoia motoa hartu, hondartzara joan eta bueltan aire freskoa sentitzeko". **@luciamantera:** "Hondartzak! Azkenean!"

George Floyd 'trending topic' izan da

AEBetan, Minnesotan hain zuzen ere, poliziaren bortizkeriagatik hildako afroamerikararen aldeko aldarria zabaldu da sare sozialetan: **@ideiazabald:** "Historia behin eta berriz errepikatzen da, polizia txuri batek gizonezko beltz bat hil du AEBtan #GeorgeFloyd".

ITURRI ONETIK

Hautesleku gehiago uztailaren 12an

Uztailaren 12ko hauteskundeetarako hainbat segurtasun neurri hartuko dituzte, egoera berezi honetan hauteskundeak "ziurtasun guztiekin" egin ahal izateko. Posta bidezko botoa bultzatuko da; boto-papera etxetik eroatea hobetsi; boto-papera hartzeko kabinak izara bakoak izango dira; gelak, musukoak eta beste babes neurriak izango dira hauteslekuetan... Eta ohikoak baino hautesleku gehiago. Horretan dihardute lanean herrietan. Bergaran, Seminarixoa ere izan daiteke.

ALBISTE IZAN ZEN

2008-06-03

Etxeko ospitalizazio zerbitzua, abian

Etxeko ospitalizazio zerbitzua jarri zuen abian Debagoieneko Ospitaleak. Hiriburuetan lehenagotik abian zen zerbitzua eskualdera heldu zen, honenbestez. "Ospitalea etxean edukitzea bezala da", adierazi zuen Julio Sandovallek, zerbitzuaren mediku koordinatzaileak. Eta gogora ekarri zuen Gurutzeetako ospitalean 25 urte zeramatatzatela zerbitzu hori eskaintzen. Gaixoei bisitak egiteko auto birekin hasi zuten zerbitzua.



Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Koronabirusak eragindako krisiak krisi eta diru sarrera txikiagorekin bada ere, aurrekontuan doikuntzak egin eta proiektu nagusiek bere horretan jarraituko dutela dio Arrasateko alkateak.

Nola ikusi dituzu Arrasateko herri-tarrak arintze faseko egoera berrietara moldatzen?

Erantzukizunez jokatzeko, joka-bide oso onarekin.

Arrasaten, bereziki, ikusi ditugu bi hilabete hauetan hainbat atxiloteta, jazarpen...

Balioan jarri nahiko nuke udaltzainen lana, erantzukizun handiz jokatu dutelako konfinamendu egoera honetan eta pertsonalki ekarpen asko egin dituztelako. Oro har, konfinamendu egoera honetan, batik bat, lan pedagogikoa egin du Udaltzaingoak. Oso lan ona.

Martxoaren 8a kalean zapatuan gertatu zen atxilotetak hautsak harrotu ditu. Autoarekin kolpatu ostean, eskuetan labana bana zeukan gizona bat atxilotu zuten ertzainek eta udaltzainek. EH Bilduk kontuak eskatu ditu.

Ez daukat ezer esatekorik. Guk babestu egin nahi dugu udaltzainek egindako lana.

Koronabirusak eragindako jardura ekonomikoaren etenagatik, 930.000 euroko laguntzak iragarri zenituzten. Zertarako, zehazki?

Ongizate Zerbitzuak indartu ditugu. Esaterako, Gurutze Gorriarekin batera, 50.000 euroko partida jarri genuen hasieran. Egoera zaurgarrian zeuden familiendako laguntza berezia bideratu dugu: elikagaiak, sendagarriak, ikasleei Interneteko konexioa bermatzeko laguntzak... Gizarte Larrialdietarako Laguntzak indartu dira. Urkoarekin batera, pertsona nagusiei jarraipena egin zaie. Oso lan ona egin dute eta egiten dihardute Gizarte Zerbitzuetako udal langileek. **Tokiko merkataritza sustatzeko laguntzak ere bideratu dituzue.**

Egoerak behartuta, ostalaritzak eta bestelako dendek itxi egin behar izan dituzte euren negozioak. Eta kontuan hartuta herria bizirik eusten laguntzen dutela eta gure ehun ekonomiko parte inportante direla, hor ere hainbat dirulaguntza lerro sortu ditugu. Batetik, Ibaiartekin elkarlanean, 25.000 euroko lerro bat, hainbat jardura bultzatzeko: kaleko ekin-tzak, eta abar. Bestetik, ur tasa,



Maria Ubarretxena, bere bulegoan, udaletxean, eguaztenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

"Aurrekontuan ez dugu inolako murrizketarik egingo"

MARIA UBARRETXENA ARRASATEKO ALKATEA

Udal aurrekontuan doikuntzak egin beharko dituztela dio Maria Ubarretxenak, 4 milioi eta erdi euroko inpaktua izan duelako, baina jaitzierarik ez dela egongo aurreratu du

zabor tasa eta bide okupazioko tasa urte erdiz ez kobratzea erabaki genuen. Batetik, itxiera sasoiaren ez dutelako erabili zerbitzu hori; eta, bestetik, gastuak arindu eta laguntze aldera.

Erosketa-bonuak jarriko dira salgai. 15.000 bonu, astelehenetik aurrera. Herriarrek 10 euro jarri eta Udalak beste 20 jarriko ditu. Guztira, 350.000 euro.

Foru Aldundiak iragarri zuen Foru Funtsetik %20 gutxiago helduko zitzaizela udalei. Arrasateko Udaleri, zenbat gutxiago?

3.200.000 euroko jaitziera da. Dena den, diru sarrera murriz-

keta ez dator bakarrik Foru Funtsetik gutxiago jasoko dugulako, baizik eta zergak eta tasak ez ditugulako kobratuko, jardura ekonomikoa jaitsi egin delako... Horrek inpaktu bat dauka eta da 4 milioi eta erdikoa, guztira. Guk, dena den, etxeko lanak egin ditugu. Egokitu dugu aurrekontua erreallitate berrira. Datorren asteoko osoko bilkurara eroango dugu gaia, eta udal aurrekontuaren egokitzapen hori egin dugu, batez ere iazko gerakinetik hartuta eta, bestetik, hainbat partida blokeatu ditugulako. Izan

ere, badakigu, dagoeneko, aurrekontuaren ezingo ditugula partida horiek gastatu, astirik ez dugulako izango. Altxortegian geneukan milioi bat euro erabiliko dugu zuloa estaltzeko. **Aurrekontua bere horretan geratuko da?**

Bai. Ez da egongo jaitzierarik ez euskarantz, ez zerbitzuetan... **Aurrekontuan jasotzen diren inbertsio nagusiei ez die eragingo?**

Obrek bere horretan jarraitzen dute. Proiektuak aurrera doaz. Gerakina eta altxortegiaren zati bat erabiliko dugu. Kulturola, esaterako, gelditu egon da une

baten, baina, behin abiatuz gero, aurrera doa bere horretan.

Ze zor dauka Arrasateko Udalak?

Ez dauka zorrik. Osasuntsu dago kontuen aldetik. Eta ez dugu aurrekusten zorpetzerik ez krediturik eskatzerik. Zuhurtziaz ibili gara aurreko urteetan. Agintaldi amaieran ikusiko bagenu zorpetzeko beharra, ez genuke baztertuko.

Koronabirusak gogor jo du Arrasaten, eta Iturbide egoitzan ere latza izan da egoera. Ze ardura dauka Udalak Iturbide egoitzaren kudeaketan?

Iazko apiriletik, Diputazioaren Kabia erakunde publikoak kudeatzen du egoitza, eta Udalak, berez, ez dauka erantzukizunik horretan. Udalak laguntza eskaini du une oro eta tratatu zuzena izan du zuzendariarekin, langileekin, senideekin...

Arintze fasea hasi dela-eta, mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko kale batzuk oinezkoendako bihurtu... Ondo ari da?

Gipuzkoa etorbidearen eta Garibairen zati bana itxi ditugu trafikora. Aldaketa batzuk planteatu behar dira. Villa Anparoko etxeetako joan-etorria itxi egingo da eta Gipuzkoako etorbideko errete bat ireki egingo da. Euskal Herria plazan ere bai. Izan ere, bizilagun batzuek adierazi dute ez daudela neurriarekin gustura.

Igerilekuak zabalduko dituzue?

Uztaileko lehen asterako irekiiko ditugu. Egoera berezian, hori bai: edukiera mugatuarekin, segurtasun neurriekin... Gauzak aldatzen doaz egunetik egoera, baina gaur-gaurkoz daukagun informazioarekin eta jarritako baldintzekin zabalteko lanean ari gara. Santa Barbarako ur parkea ere uztaileko lehen egunetan ireki nahi dugu.

Eta kultura?

Udako hilabeteetan egiten den Udazabalekin aurrera goaz. Lan gehigarria eskatuko digu, egoera berezi honetan, edukiera eta segurtasun neurriekin dagokienez. Kulturarekiko apustua irmoa da. Areto irekietan izango da. Baina ari gara lanean areto itxietako baldintzak aztertzen eta egokitzen. Amaia antzokia irailean zabalteko da gure asmoa; zinea ez da itzuliko ordura arte. **San Juan jairik ez da "bere horretan" egingo. Zerbait egingo da?** Kultura batzordea, herriko kultur eragileekin, ari da lanean eta asmoa da ekitaldi batzuk

egitea. Hasiera baten, pantailak eta balkoiak baztertu egiten ditugu. Kanean egin nahiko genituzke egin beharrekoak. Herriko Plazan ekitaldi sinboliko bat egin gurako genuke. Sua egingo dugu eta jaietako antolakuntzan aritzen diren eragile bakoitzeko ordezkari-ekin ekintza bat. San Juan zortziko bat... Nahiko genuke kultur eragileekin adostutako ekintza sinbolikoa egin.

Ze aurrekontu zegoen gordetan San Juan jaiak antolatzeko?

Jai batzordearen aurrekontua handia da. Jai guztietakoa. Sanjuanetarako, 150.000 bat euro. Aurten erabiliko ez dugun jaietako aurrekontuaren zati bat erabiliko dugu merkataria, ostalari eta elkartei laguntzeko, osasun protokoloak-eta betetzeko: gelak, manparak eta halakoak erosi ahal izateko.

TAO sistema ezartzea da agintaldiko puntu garrantzitsuetako bat. Sistema ezartzeko lanean hasiak zineten. Ze puntutan geratu zen?

Parte-hartze prozesua ez da oraindik amaitu. Proposamenak egin zituzten kolektiboekin hartu-eman berreskuratzen hasiko gara. Ausazko taldearekin azken batzar bat egitea geratzen da, baita herritarrekin azken bilera irekia egitea ere, ausazko taldearen azken proposamena borobiltzeko. Aurreikuspena zen datorren urtean jartzea TAO sistema, eta ideia horrekin jarraitzen dugu. Ez daukagu presarik, dena den. Prozesu parte-hartzaileari eman genion ga-

"UDAZABALEKIN AURRERA GOAZ. KULTURAREKIKO APUSTUA IRMOA DA"

rrantzia, eta oso gustura gaude horrekin.

EH Bilduk eskatu du ekobulebar-a atzeratzea. Ondo ikusten duzue?


Proiektuekin aurrera jarraitzen dugu, ze Arrasate ezin da atzean geratu. Antoñako hezegunea oso polita dago une honetan, Etxezarreta ere ari gara berreskuratzen... Eta jarraitzen dugu auzoetako irisgarritasun proiektuekin. Erguingo igogailua egiteko lanak martxan daude eta Santa Teresako igogailuaren proiektua lehiaketara aterako dugu laster. Arrasateko auzoak urte luzez abandonatuta egon dira, eta guretako lehenetsuna dira. Oinezkoen joan-etorria bultzatzeko beharrezkoak dira.

Ekobulebar-az ari garenean, zertaz ari gara?

Bidegorri sareaz. Gure herria prestatzen jarraitzen dugu bizikletendako. Araba etorbidean egin da, Maiatzaren Lehena plazaraino. Hortik, Maalaraino, bidegorriarekin jarraitzea da asmoa, oinezkoendako espalo zabalekin, zuhaitzekin... Lehenetsun dira oinezkoak; gero, bizikletak eta garraio publikoa; eta, azkenik, ibilgailu arruntak. **San Andres inguruaren urbanizazio lanak amaitu dituzue?**

Lotura txiki bat geratzen da errematatzeke. Araba etorbidearen eta Kurtzetxiki plazan amaitzen den bidegorriaren zatitxo bat geratzen da. Metro eskas batzuk. Uribarritik San Andreseraino edo Maalaraino oinez edo bizikletaz erosi joatea ahalbidetuko luke horrek.

"DESADOSTASUNAK ELKARRIZKETAREKIN KONPONTZEN DIRA, ETA EZ ERASO EKIN"



Arrasateko alkatea, udaletxe bakoian, Herriko Plazara begira. E.A.L.

Izaeraz, "positiboa eta lasaia"

Koronabirusak eta gaitz honek ekarri dituen guztiak –beldurrak, segurtasuna, ardura, informazio edo mezu ezkorrak...– arlo pertsonalean ondo kudeatu dituela uste du Maria Ubarretxenak. "Izaeraz positiboa naiz. Lasaia. Ez naiz beldurtia. Eta, zorionez, ez zait ezer larrik gertatu ez niri eta ezta inguruko inori. Ondo daroat", dio.

Dena den, herriko alkatea izateagatik erantzukizuna "handia" dela dio. Egoera zailetan beti aurrera begira jartzen den horietakoa dela aitortzen du: "Gauzei nola aurre egin, zer egin, erabakiak hartu...".

Krisi honetatik zer arduratu duen galdetuta, berriz, zera dio: "Pertsonen ongizateak eta inor atzean ez gelditzeak. Egoera berria izan da guztiondako, sekula bizi bakoa, bizitza asko hankaz gora utzi dituen".

"Doluminak pandemiagatik gertukoren bat galdu dutenei"

Pandemiak eragindako zer gertatu zaion gogorrena galdetuta, dio tokatu zaizkiola gertukoek galdu izana senideren bat, eta hori "oso gogorra" egin zaiola. Batez ere, ikustea "persona horrek ezin izan duela agurtu bere gertuko senidea; ezin izan duela lagun, senideen edo inguruko babesa jaso. Hori oso gogorra da". Egoera horretan egon direnei "doluminak" eman gura izan dizkie.

Osterantzean, etxean-eta denak ondo egon direla eta daudela dio. "Lau gara. Bi seme ditugu, 11 eta 6 urtekoak. Ondo moldatu gara. Senarrak kanpoan lan egin du eta nik neuk ere udaletxetik, gehienbat". Umeak zaintzen-eta familiakoek lagundu dietela dio.

Udaletxean lan egin duen apurrenetakoa izan da. 250 udal langile dira eta "gehienek etxetik" egin dute lan. Dena den, aurrera begira, udaletxean udal langileen artean "berriro lantokira itzultzeko plana eginda" dutela esan du.

Aurreko agintaldian askotan adierazi zenuten Juan Arzamendi Musika Eskola zuen proiektu izarra zela. Obra hori egiten ari zen Lurgoienek obra utzi izanarena eragozpen handia izan da?

Urtarril amaieratik daude geldi lanak, baina, pandemiaren eraginez, epe administratiboak geldi daude, eta, kontratua apirillean eten baguen ere, epeak berriro abian jarri arte ezin dugu beste ezer egin. Lanean jarraitzen dute udal teknikariek pleguak egiten. Kontratua apirillean eten izanak ahalbidetu digu behin-behineko likidazioa egitea. Horrek esaten digu obraren ze zati geratzen den egiteko. Falta den zatia esleitzeko prozesua abiatzeko lanean ari gara. Datorren urtera arte lanak berriro hasiko ez direla uste dut, baina agintaldi honetan amaituko ditugu; izan ere, zazpi bat hilabete geratuko liriteke amaitzeko. Arrasate Musikalekin harremana une orokoa da. Lasai daude.

Likidazio txostenean 60.680 euroko deskoadratzea agertu zen. Oposizioak kritikatu dizue gaia ondo kudeatu ez izana.

Informazioa eman da gardentasun osoarekin Hirigintza batzordean. Gai teknikoak da. Udalaren erabakiak egokiak izan dira. Obrak gelditzen direnean, une jakin batean ateratako argazkiak ematen duena erakusten du deskoadratze horrek.

Gose greban izan den Patxi Ruiz ETako presoaren egoera salatzeke pintaketak egin dituzte Batzokian. Ze irakurketa egiten duzue?

Parte-hartze eta Bizikidetzaren batzordeak lanean jarraitzen du, aurreko agintaldian lan ona egin ostean. Uste dugu arazoak edo desadostasunak elkarrizketaren bidez konpontzen direla, eta ez eraso bidez.

'ALKATEAREKIN BERBETAN' ATALAREN BABESLEA

Babestu zure begiak pantailetatik

%10eko deskontua
ARGI URDINETIK
BABESTEKO LENTEETAN
+
MONTURA OPARI



Zure ikusmen osasuna
zaintzen dugu

Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS

www.multiopticas.com

10 euro jarri, eta herrian gastatzeko 30 euro lortu

Udalak 300.000 euro bideratu ditu 15.000 erosketa bonu zirkulazioan jartzera. Astelehenetik aurrera eskura daitezke –udaletxeko sarreran eta BAZen– eta familia-unitateko bonu bat edo bi eskuratu ahalko dira, kide kopuruaren arabera

Xabi Gorostidi ARRASATE

Txikiak egiten gaitu handi ize-neko kanpaina prestatu du Udalak, herriko komertzioak laguntzeko ekintzak izango dituena. Horietako bat herrian erabiltzeko 15.000 erosketa bonu jartzearena da, eta gaur azaldu dute nola funtzionatuko duten. Hain zuzen ere, informazio eskuorriak helaraziak dituzte herriarren postontzietara hurrengo egunetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko balioa izango du: 10 euro herritarrek jarriko dituzte eta gainontzeko 20ak, Udalak. Era horretan, herriko dendetan, zerbitzuetan eta tabernetan erabiltzeko 450.000



Kanpainaren eskuorria. N.A.

euro jarriko dira zirkulazioan. Ezin izango dira nahi beste bonu erosi, familia-unitatean arabera egin baitute banaketa; hau da, Arrasaten erroldatutako etxebizitzaren arabera banatu dituzte. Bat edo bi kideko unitate-familietan bonu bat erosi ahalko dute eta hiru kideko gorakoek, bi bonu.

"Era horretan, arrasatear guztiak bonuak egotea bermatuko dugu. Arrasaten 10.000 familia-unitate daudela kalkulatu dugu; beraz, lasaitasun mezua helarazi nahi nieke herritarrei, denentzako egongo baitira", azaldu du Maria Ubarretxenak prentsa agerraldian.

Bonuak eskuratzeko bi leku egongo dira: BAZ eta udaletxeko sarrera. Bertan nortasun agiria erakutsi beharko du familia-unitateko kide batek, eta txartel bidez 10 euro ordaindu ostean jasoko du 30 euroko bonua. Ez da bonu bakar bat izango, hiru bonu baizik: 5 euroko bat, 10 euroko bat eta 15 euroko bat. Era horretan, posible izango da erosketa bat baino gehiago egitea eta bonuak establezimenduen baten bakoitzera zatitzea. Frakzio bakoitza zatiezina izango da, eta erabiltzaileek nortasun agiria erakutsiko beharko dute bonuarekin ordaintzeko unean. Bonuak Arrasateko establezimenduetan erabiltzeko dira soilik: dendetan, tabernetan, eta zerbitzuetan –autonomoak–. Hori bai, ezin izango dira erabili azalera handiko saltokietan, elikadura dendetan, loteria postu edo joko aretoetan, farmazietan eta estankoetan. Astelehenetan, ekainak 1, jarriko dituzte bonuak salgai, eta abuztuaren 31ra arte eskuratu ahalko dira. Bonuak gastatzeko epea, aldiz, luzeagoa izango da: ekainaren 1etik urriaren 31ra arte.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenetan berrekingo diete elkarretaratzei, segurtasun tartearak zainduz. Herriko Plazan batuko dira, 11:45ean, eta astero-astero egingo dute hitzordua.

Ereindajan

Bazkide berriak egiteko kanpaina dute martxan. 50 euroko kuota ordaintzen dute urtean behin, eta %5eko deskontua izaten dute dendan. Bazkide egiteko, joan Araba etorbidean duten dendara.

80.000 euro

Komertzioak zabaldu aurretik erosketa bonuak jarri zituen salgai Ibai-arterek, eta, aditzera eman dutenez, ia 80.000 euroko salmentak izan dituzte.

Arrasate Musikal

Astelehenetan, 21:30ean, Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en, Arrasate Musikaleko ikasleek etxetik prestatutako kontzertu berezia ikusgai.

Matrikulazio epea zabalik!

- Kuota ezberdinak, diru sarreraren arabera
- 18.000€ baino gutxiagoko irabaziekin, **DOAN**.
- Bigarren seme-alaba, **DOAN**.

2019-2020 jaiotakoentzat

Matrikula online:
maiatzaren 21etik ekainaren 8ra,
haurreskolak.eus webgunean

Haurreskolan bertan:
ekainaren 1etik 8ra

Arrasateko
Haurreskolak

Zure lasaitasuna gure helburua



MUSAKOLA

Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03

musakola.arrasate@haurreskolak.eus

BEDOÑABE

Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86

bedonabe.arrasate@haurreskolak.eus

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA BILAKA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Txatxilipurdi elkartearen udalekuak, bertan behera

Elkarteak publikatutako oharra dio gaur-gaurkoz ez dutela udaleku irekiak eta itxiak gauzatzeko bermerik, nahiz eta "kontziente" diren horrek ekar ditzakeen ondorioez, "konfinamenduak gogor kolpatu baititu haurrak, nerabeak eta euskara bera ere"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azaldu dutenez, Txatxilipurdi elkartearen hilabete eta erdi daramatxate aurtengo udaldia dela eta udalekuak birsortu nahian, "osasun agintariak diotenari adi eta familien kezka eta galderak erantzuten". Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere harremanetan izan direla diote, Oinherria gaia landu dutela eta Euskal Herriko aisialdi talde ezberdinekin ere saretu direla: "Sektore honetan lan egiten dugunon artean, bizi izan dugun desinformazioari eta ziurgabetasun egoerari aurre egiteko". Hala ere, ez da nahikoa izan, eta bertan behera utzi behar izan dituzte udalekuak.

"Inoiz baino behar handiagoa dago udaldian aisialdi hezitzaile batez gozatzeko, konfinamenduak gogor kolpatu baititu haurrak, nerabeak eta euskara bera ere. Asko eta asko akonpainamendu beharrean egongo dira emozionalki, afektiboki, sozial-

ki- eta beraien berdinkideekin, helduen begiradatik aldentuta, bizipenak bizitzeko egarriz egongo dira. Eta ez ditugu ahaztu nahi ere guraso edo tutore legalak, kontziliazio familiar-laborala egiteko behar handia izango duten horiek", dio Txatxilipurdiaren oharra.

Lankidetzarako mezua

Lankidetzarako prestutasuna azaldu diote Udalarai eta herriko hezkuntza komunitateari, "elkarrekin berak honen ardura zentrala hartu barik", ardura hori kolektibizatu eta aurtengo udaldira egokitutako aisialdi eskaintza publiko bat elkarlanean diseinatzeko. "Urte osoan zehar elkarlanean kudeatzen diren ludoteka eta gazte txoko zerbitzuak indartuz herri mailan sor daitezkeen beharrik asetzeko saiakera egin baitaiteke". Amaitzeko, eskerrak eman dizkiete orain arte aurtengo udalekuetan sinetsi duten familia guztiei.

Azken ostiraletako elkarretaratzea, gaur; domekan, aurkezpena

Alarma egoeratik azken hilabetetan egin gabe egon ostean, gaur, hileko azken ostiraletako elkarretaratzea berrartuko dute; 20:00etan, Herriko Plazan. "Etorzera gonbidatzen zaituztegu. Edozein konponbidek, bakeak eta elkarbizitzak, preso eta iheslariak gure artean eta bizirik egitea eskatzen duelako", azaldu du Arrasateko Sarek.

Domekan, maila nazionalako *Izan bidea, ibiltarien sarea* ekimena aurkeztuko dute, presoen eta erbesteratuen egoera gainditzeko jendartea aktibatzea helburu duena. Ekimena babes-teko, Kurtzetxikiko tontorrean talde argazkia aterako dute, 13:00 aldera.

OHARRAK

Gautxori Eguna

Aurreko zapatuan egin behar zuten festa Itxaropena kalekoek, baina, heriotza batengatik, atzeratu egin zuten. Bihar, zapatua, ospatuko dute: balkoiak 8.000 globorekin apainduko dituzte.

Klase presentzialak

Ekainaren 1etik aurrera Arrasate Musikalek aurreko klaseak berrartuko ditu. Nahi dutenek *online* bidez jasotzen jarrai dezakete.

Diru-itzulketa

Musakolako sagardotegi-irteerako dirua itzultzeko orduak, finkatuta: astearte eta asteazken, auzo-alkatetzan, 11:30-12:00 eta 18:00-19:00.



Haurrak, Txatxilipurdiaren udalekuetan. GOIENA

Gure Hipermerkatuetako atal **GUZTIAK** ireki ditugu segurtasun neurri gehiagorekin.



Gainera, gure ohiko ordutegia berreskuratuko dugu zerbitzurik onena eskaintzeko.

09:30etatik 21:30etara



EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE, Tel.: 943 71 10 30

Batzokiko pintaketak, alderdi politikoaren ahotan

Joan den asteburuan Arrasateko Batzokian egin zituzten pintaketak "gogor" gaitzetsi ditu EAJK, eta alderdi sozialistak ere bai, "betiko irmotasun berarekin"; EH Bilduk zera adierazi du: "Horrelako ekintzek ez gaituzte bizikidetzaren lortzeko bidean jartzten"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Patxi S.O.S zioen pintaketa egin zuten aurreko asteburuan Arrasateko Batzokian, paretaren zati bat gorritz pintatzearekin batera.

Jeltzaleek gogor gaitzetsi dute ekintza hori, prentsa ohar bitartez. "Arrasateko EAJ-PNVk gogor gaitzesten du beste eraso bat, pintadak eta pintura gorria dituen, gure udalerriko Batzokian. Gainera, erasoak Aldapa tabernari ere egin dio kalte, eraikin berean baitago, ostalaritzarentzat eta merkataritzarentzat oso zaila den une honetan. Horrelako ekintzak gertuago daude totalitarismotik eta faxismotik demokraziatik eta askatasunetik baino".

Era berean, bizikidetzaren aldeko apustua berresten duela azaldu du EAJK. "Adierazten dugu hura hautsi nahi duten ekintza horien aurrean ez dugula atzerapausorik emango".

Ausardia eskaera alderdiei

Jeltzaleei "tamalgarria" iruditzen zaie Arrasaten erasoaren aldeko apustua egiten dutenak egotea, "beti ezkutuan, hitza eta elkarriketa erabili beharrean". Hori dela eta, Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiei ekintza horiek gaitzesteko "ausardia" eskatu diete. Horrekin batera, atzo bozeramaileen batzordean mozio bat aurkezteko zen EAJ, erasoak gaitzesteko.

Jeltzaleek diote herri "libre" bat nahi dutela, "guztionean artean eraikia eta bizikidetzaren eta errespetuaren oinarritua".

"Betiko irmotasun berarekin"

PSE-EEk ere ohar bidez eman du erantzuna, eta sozialisten bozeramaile Blanca Roncalek "harridura" azaldu du jeltzaleen "ausardia" eskaeraren aurrean: "Arrasateko sozialistek EAJren egoitzak jasandako erasoak gaitzesten dugu. Mehatxuak, atentatuak eta jazarpenak pairatzen



Aurreko asteburuan pintaketak egin zituzten Arrasateko Batzokian. ARRASATEKO EAJ

BATZOKIAN EGINDAKO PINTAKETEK ZERESAN HANDIA EMAN DUTE UDALEKO ALDERDI POLITIKOEN ARTEAN

genituen garaietako irmotasun berarekin, Isaias Carrasco moduko lagunak galdu genituen garaietako irmotasun berarekin gaitzesten dugu eraso hau ere". Halaber, sozialistek "babesa eta elkartasuna" adierazi diete EAJKo militanteei: "Badakigulako, esperientziagatik, ze garrantzitsua den momentu hauetan inguruko eta korporazio-ko lagunak babesa jasotzea".

Erasoak bukatu egin behar direla adierazi dute. "Euskal gizarteak eta sozialistok, bereziki, esfortzu handiarekin lortu dugun askatasunaren aurkako erasoak dira. Hori ez da bidea".

Bizikidetzaren lortzeko bidean, ez EH Bilduk astean jakinarazi du bere iritzia. "Iruditzen zaigu haserrea eta gaitzespena eragiten dituzten horrelako ekintzek ez gaituztela bizikidetzaren lortze-

ko bidean jartzten eta ez datoze-la bat garaiek eskatzen dituzten lan moldeekin; are gutxiago, langile familia baten kaltetan bada", diote ohar batean.

Horrekin batera, bizikidetzaren eta normalizazio demokratikoaren alde lanean jarraituko dutela diote, "herriarrek sufritu dituzten eta sufritzen ari diren eskubide urraketak erabat desagertu arte". Bide horretan, "denon parte hartzea eta elkarrekin pausoak ematea" beharrezkotzat jo du koalizioak. "Xede bera duten guztiekin elkarlanean jarraitzeko borondatea eta konpromisoa berresten dugu".

Kartzela politika "ankerra"

Gertaeren harira, politika penitentiario "ankerra" salatzen du EH Bilduk, "presoaren eskubide oro urratu eta osasunean eragin larriak baititu", eta, konponetarako bidean, "preso politiko guztiak lehenbailehen etxera ekartzeko" eskaera egin du. Azkenik, zera diote: "Pintaketa bat gaitzesteko publikoki eskatzen dutenak ez ditugu ezer esaten entzun Audiencia Nacional delakoa ehundik gora Herriko enbargatzen hasi dela jakitean".



Gizonezkoa mendean hartu zuten momentua. ANONIMOA

Bi labana eskuetan zituen gizon bat atxilotu dute asteburuan

Ertzaintzak autoa erabili zuen hura mendean hartzeko; erabilitako moduak "larriak" izan zirela dio EH Bilduk

E.A. ARRASATE

Joan den zapatu goizean, bi labana eskuetan zituela joan zen gizon bat Musakolatik Martxoaren 8a kaleraino, Ertzaintzak eta Arrasateko udaltzainek jakinarazi zuten. Halaber, zehaztu zuten gizonak ez zuela inolako erasotzeko asmorik erakutsi, baina bere buruaz beste egingo zuela mehatxatu zuela, lepoa eta eskumuturrak zaurituz. Denbora batez gizonarekin arazoizten saiatu ziren agenteak eta, azkenean, auto bat erabili zuten gizona mendean hartzeko. Arrasateko Ospitalera eraman zuten.

Azalpenak Barne Sailari

Hain zuzen ere, Ertzaintzak gizona mendean hartzeko erabilitako modua salatzen du EH Bilduk. "Larriak iruditzen zaizkigu zapatu goizean Ertzaintzak buru osasuneko arazoak dituen herritar bat gerarazteko erabili zituen moduak. Tentsio handiko egoera batean egonik ere, autoarekin harrapatuz gizonaren bizitza arriskuan jarri zuten; onartezina da. Iruditzen zaigu Arrasateko Udalak azalpen formalak eskatu beharke liokeela Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari", azaldu dute ohar bidez.

760.600 euro elkarte eta eragileen dirulaguntzetarako

Dirulaguntza ezberdinak eman gidoi Udalak aurrean. Berdintasunerako, esaterako, 7.000 euro bideratuko ditu; enplegura, 152.500 euro; euskarara, 97.374 euro; gazteriara, 67.500 euro; Gizarte Zerbitzuetara, 130.000 euro; hezkuntzara, 163.200 euro; hirigintzara, igogailuetara, 10.000 euro; ingurumenari, 3.000 euro; kirol elkarteendako, 100.000 euro; eta kultura elkartei, 30.000 euro. Bestalde, gazteen alokairuetarako 60.000 euroko laguntza emango du Udalak. 35 urtetik beherako arrasatearrek eskatu dezakete, hainbat baldintza betetzen badituzte, betiere. Informazio osatua *Goiena.eus* webgunean dago.

Astehenera hasiko dute 'Orain gure txanda da' kanpaina

Herritarrek Ibai-Arteren saltokiekiko erakutsi duten babesa eta jokabidea eskertzea du helburu kanpainak. Modu horretan, Arrasate Txartelarekin ordaindutako erosketek 50 eurorainoko hobariak izango dituzte. Zenbateko desberdineko hobariak egongo dira, erosketa bakoitzeko 5, 10 edo 50 eurokoak, eta berau bezerearen txartelean sartuko da. "Horrela, guztion osasunaren eta ongizatearen alde itxita egon garen denbora guzti honetan izan dugun gure bezerearen leialtasuna, konfiantza eta babesa saritzen ditugu".

Parte hartuko duten establezimenduak dagokien kartelen bidez identifikatuko dituzte.

MARTXAN GAUDE BERRIRO!

Eskatu hitzordua 630 63 63 60 telefonoan eta
ESKAINZA bereziak aprobetxatu!



**HYUNDAI
Oarso Car**



Ford Puma: **69€**-tik hilean*



Hyundai KONA: **70€**-tik hilean*

*Baldintza guztiak 630 63 63 60 telefonoan galdetu.

San Andres kalea 6, 20500 Arrasate,

Mugarri: 943 79 07 44

Hyundai Oarso Car: 943 79 70 06

grupoeasomotor.com

"Etxean oso fin ibili gara; etxetik kanpo, ordea, ez"

KEVIN BARRANCA MONDRATEKO PRESIDENTEA ETA KAPITAINA

Jon Zabala entrenatzaile ohiaren itzulerarekin "ilusioz beteta" hasi zuten denboraldia; aurten ez dute infantil eta kadete talderik izan, eta harrobia indartzea dute helburu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jonatan Rasorekin batera, klubaren sorreratik gaur egun arte aritu da Kevin Barranca Mondraten, buru-belarri. Jokalari izateaz gain, entrenatzaile aritu izan da gazteekin, eta denboraldi honetan talde nagusiko kapitain eta klubeko presidente lanetan aritu da.

Sailkapen erdialdean amaitu duzue denboraldia, zortzigarren postuan. Gustura egindako lanarekin?

Ilusioz beteta hasi genuen denboraldia; batez ere, klubaren hasierako urteetan entrenatzaile aritu zen Jon Zabala itzuli zelako. Iazko denboraldian ez genituen oso emaitza onak izan, eta gogo handia genuen aurten go denboraldian gauzak txukunago egiteko. Baina, egia esan, ez dugu erregularitasun handirik eduki. Etxean oso indartsu egon gara, eta puntu gehienak poltsikoratu ditugu; baina etxetik kanpo asko kosta zaigu emaitza onak lortzea, eta horrek eraman gaitu sailkapen erdialdean egotera.

Zer falta izan zaizue etxetik kanpo?

Bada, ez dugu asmatu partiduak kontrolpean izateko orduan. Irabazten hasi arren, golak sartzen zizkigutenean taldea behe-er etortzen zen, eta partiduek ihes egin izan digute. Aspektu emozional hori ez dugu behar bezala lantzen jakin.

Zaleen babesa, etxean, betidanik izan duzue. Hori gabe zailagoa da?

Ez dakit. Egia da beti izan dugula babes handia, sorreratik, eta asko eskertzen dugula. Guretzako behar-beharrezkoak dira Mondrateren zaleak.

Areto futbola talde kirola da, eta zaila da norbait nabarmentzea. Baina aurtengo denboralditik norbait nabarmendu beharko bazenu?

Bada, jokalaria gazteek egindako lana azpimarratuko nuke. Aurten bi izan dira gazte taldetik talde nagusira saltoa egin dutenak, eta oso maila ona erakutsi



Kevin Barranca, Mondrateko elastikoarekin, baloia jaurtitzeko gertu. GOIENA

"OSO POLITA DA AURREZ ENTRENATU DUZUN GAZTE BAT ZURE TALDEKIDE BIHURTZEN IKUSTEA"

dute. Jon Zabala entrenatzaileak jokalaria talde murriztua nahi zuten lehen taldearentzat. Horrek baditu bere abantailak: bloke bezala jokatzeko, elkarri laguntzeko... baina lesioak egonez gero arazo potoloak sortzen dira, eta kasu horietan gazteen laguntza ezinbestekoa da. Julen Estrella izan da gazte horietako bat. Gazte taldean nire agindutara aritu izan zen, eta oso polita da zuk entrenatu ostean zure taldekide bihurtzea.

Jokalari, kapitain eta presidente aritu zara aurten. Ez al dira ardura asko?

Iaz, adibidez, jokalaria eta gazte taldeetako entrenatzaile izan nintzen aldi berean, eta lan handiagoa da. Hala ere, kadeteekin eta gazteekin Gipuzkoako txapeldun izan ginen, eta egindako lanak fruituak eman zituen. Aurten gauzak lasaiago hartu

nahi izan ditut eta presidente kargua hartu dut.

Zer dakar presidente lanak?

Lana da, baina ez ditut nik bakarrik egiten. Jonatan Rasok asko laguntzen dit, bera arduratzen baita talde guztien ordu-tegiak kudeatzeaz. Baina aurten, adibidez, taldekide gehiagoren laguntza eduki dugu, eta Jonatanek eta biok asko eskertu dugu. Xabi Gorroñogoitia, Jon Murgotio eta Brian Fernandes hurreratu zaizkigu eta talde txiki bat sortu dugu, lan administratiboak banatzeko: partiduetako kartelak egin, Federazioari dokumentuak bidali...

Arlo pertsonalean, nolako urtea izan da? Gustura geratu zara eman duzun mailarekin?

Ondo hasi nuen urtea, baina hasi eta gutxira lesioa izan nuen, eta horrek erritmo fisikoa galtzea ekarri zidan. Ostean, beste lesio bat ere izan nuen, bi gutxira. Txarrena izan da berriz sasoi hartu eta lesioak atzean utzita nituenen etorri dela geldialdia, eta ligaren amaiera. Gogoan nuen denboraldiko azken txanpan sentsazio onak berreskuratzeko eta taldea laguntzeko; baina ez da posible izan.



Talde gazteko jokalaria bat. I.S.

"Trantsizio urtea" talde gazteentzat

Mondrate taldekoek askotan esan dute campusak eta topaketak ezinbestekoak direla gaztetxoak areto futbolera gerturatzeko eta taldearen harrobia eta etorkizuna sendotzeko. Aurten udako campusa egitea ez dute guztiz baztertzen, eta egoerak ahalbidetzen badu egiteko asmoa dute.

2019-2020 denboraldia "trantsizio urtea" izan da talde gazteentzat. "Aurten ez dugu ez infantil ez kadete talderik eduki. Iazko kadeteak gazte mailara pasa dira, eta gazte taldekoak, aldiz, bigarren taldera. Adin nagusiagoko aurkariak aurka lehiatu dira, eta emaitza kaskarrak izan dituzte. Bigarren taldea azkena izan da, adibidez. Ikasteko balioko die, ziur".



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Txikitasunean, handi

2020ko martxoaren 15a, askok gogoratuko dugun eguna. Pandemia erraldoi bat iritsi zen gurera eta honekin batera herriko komertzio txiki askoren itxiera. Garai gogorak dira eta berez txikia dena txikitzen joan da bi hilabete hauetan; askok beraien atea itxi eta pertsiak jaitsi behar izan dituzte. Gogoan izan behar dugu gure herriko kale, plaza eta txokoak bete eta alaitzen dituztenak zeintzuk diren: bertakoak. Nekazaritik hasi, merkaturatzen dagoen amona edo aitona txiki, eta moda edo arropa denda txikiraino. Gure aukera da non erosi eta nori lagundu nahi diogun pentsatzea. Jakina da denda txikiak eta herriko komertzioek ez daukatela Internet edo zentro komertzial handien aukera bera, baina ziur egon emanez jasotzen dela eta bezeroen berotasuna jasotzen dutenek bueltan daukaten onena ematen dutela.

Egunez egun eraikitzen da bizitza. Herriko merkatariek ezin dute saltoki handiekin eta online komertzioekin lehiatu. Gaur, inoiz ez bezala, kontsumitzaileen esku dago boterea eta indarra. Bertako komertzioen aldeko apustua egitean denok irabazten dugu eta bailaran gelditzen den erosketa bakoitzak guztiongan eragiten du.

ion ELEKTRIZITATEA



Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12





AHTaren tuneleko zuloa, Aramaion. BASURDE PRODUKZIOAK

Edonork ikusteko eran jarri dute 'Zuloan' lana

Egileen artean Omar Grana eta Mikel Ullibarriarana ditu; AHTaren obrek eragindakoen gainekoa da. Bolinburu baserria eta bere ingurua ditu ardatz, eta bertakoen, Asier Agirre alkate ohiaren eta Martin Arriolabengoaren –geologoa– hitzak jasotzen ditu

Julen Iriondo ARAMAIO

Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek eskolako lan moduan egin zuen ikus-entzunezkoa; abenduan estreinatu zuten, kultura etxean egindako emanaldian, eta orain, Youtuben jarri dute ikusgai –Basurde Produzioak-en kanalean–.

"Lan nahikoa potentea" izan zela diote egileek; saria ere es-

kuratu zuten Huhezinean; irudi onenarena, hain zuzen ere: "Estetika baloratu zuten, irudien koloreak, kontrasteak, planoen aukeraketa...".

Kontatzen duena

Ikus-entzunezkoan, Bolinburuko familiakoa den Garazi Erizek gaztetako oroitzapenak kontatzen ditu: "Etxean ikusten nuen ten-

tsio puntu bat: obra bat zetorrela; gure etxetik pasatuko zela; aita egun osoa plano artean".

Luis Mari Erizek gogora dakar hasieran "suabe" etorri zirela: "Gero, jasangaitz bihurtu zen: hautsa, lokatza, kamioiak sekulako abiaduran...". Asier Agirrek desjabetze kontuak dakartza gogora; eta Martin Arriolabengoak, lanen alderdi teknikoak.

COVID-19ak geldiarazitako izapideak, berriro martxan


Zerga arloan epeak aplikatzeari edo eteteari dagokionez zenbait erabaki hartu ziren martxoan, Errege Dekretuz

J.I. ARAMAIO

Orain, *normaltasunera* bidean, zenbait zergaren ordainketaren gaineko zehaztapenak eman ditu Udalak. 2020ko Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epealdia ekainaren 15etik abuztuaren 15era, biak barne, izango da, adibidez; helbideratutako ordainagiriak ekainaren 22an kobratuko dituzte.

2019ko hirugarren hiruhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasa ordaintzeko borondatezko epea, berriz, ekainaren 15etik abuztuaren 15era, biak barne, izango da; helbideratutako ordainagiriak uztailaren 11n kobratuko dituzte.

Etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuaren tasaren errolda, berriz, 2019ko laugarren hiruhilekoari



Aramaioko udaletxea. J.I.

dagokiona, jendaurrean jarri dute, eta hala egongo da hamabost egunez, interesdunek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko. Ordainagiriak abuztuaren 11n zordunduko dituzte.



EIDER BALLINA

Saneamendu lanak Zabolán

Bere garaian Abiadura Handiko Trenaren obrek eragindako zenbait kalte konpontzeko lanak egin dituzte Zabolako saneamenduan. Zehazki, Zabolako saneamendua Bolinburura jaisteko lanak dira egin dituztenak, handik kolektorera eramateko gero.

Zabolán eta Untzillan bide batzuk konpontzeko ere badaude oraindik.



Egin dituzten lanetako batzuk. GORKA ASTONDOA

Lehiaketek badituzte irabazleak

Etxean euskaraz argazki lehiaketara bost lagun aurkeztu ziren; zozketa egin zuten, azkenean, eta saria –herriko produktuen otarra– Eider Ballinarentzat izan da. Errezeta lehiaketara lau errezeta aurkeztu zituzten, eta Asun Lopez de Bergararen sagar-tartak eskuratu du saria. Jaietako lelo eta kartel lehiaketak bertan behera geratu dira, parte-hartze txikiagatik.



Herritar bat txakur batekin paseatzen kalean. MIRARI ALTUBE

Animalien ordenantza hobetzeko 32 ekarpen

Herritarrek hainbat iradokizun egin dizkiote animaliak edukitzea eta babestea zehazten duen araudia eguneratzeko proposamenari, eta horietatik lau onartu dituzte; aurretik Udalak zehaztutakoei gaineratuko dizkiete horiek, osoko bilkuran onartzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Bide publikoan animalien eta pertsonen ongizatea eta bizikidetzaren hobetzeko asmoarekin, ordenantza berritzeko prozesua jarri du abian Udalak, eta proposatutako aldaketei ekarpenak egiteko aukera izan dute herritarrek. 32 aurkeztu dituzte guztira, eta udal ordezkariak eta

teknikariak horiek aztertu ondoren erabaki dute lau proposamen sartzea. Araudi berri araudi hori ekainaren erdialdean egingo duten osoko bilkuran onartuko dute.

Ekarpen "nabarmenenak"

Apirilaren bukaeratik maiatzaren erdialdera arte, herritarrek

aurkeztutako ekarpenetatik "nabarmenenak eta kasu askotan errepikatu" direnak onartu dituzte. Honako hauek dira: batetik, debekatuta egongo da etxe-ko animaliek iturrietatik zuzenean edatea, eta baita bertan bainatzea ere; bestetik, leku publikoei dagokienez, arrisku-etsuak izan daitezkeen animaliak

edukitzearen Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean xedatutakoa bete beharko da; hirugarrenik, animaliak leku desberdinetan sartzeko debekua arautzen duen artikuluan zehaztu da ezingo direla eraikin publikoetan eta administrazio bulegoetan egon; eta azkenik, txakurren gorotzak errefusa jasotzeko zakarrontzietan utz daitezkeela jaso da, baldin eta inguruan gorozkiendako paperontzirik ez badago.

Horiez gain, araudi berriuan beste zazpi eguneraketa sartu ditu Udalak; besteak beste, katuei edo usoei kalean jaten emateko debekua eta txakurren gorozkiak jasotzeko poltsak eramateko betebeharra. Arau-hausteen kasuan ezarriko diren isunen kopuruak ere eguneratu egin ditu.

Katuen gaineoak, baztertuta

Bestalde, ekarpen batzuk baztertu egin ditu Udalak, arrazoi ezberdinengatik; baztertutakoen artean daude katuen koloniak kudeatzeko eta katuek babesleku seguru batera eramateko espazio bat prestatzeko proposamenak. Iradokizun horiek aztertu dituen batzordearen ustez, ordenantza ezarritakoaen kontra doaz.

Mota ezberdinetako beste hamar ekarpen, ostera, dagoeneko jasota daudela animaliak edukitzeari buruzko udal araudiaren zirriborroan adierazi dute udal ordezkariak.

Aisialdirako gunea

Eguneratu den araudian, txakurren aisialdirako eremuak nola funtzionatuko duen zehaztu dute. Horren gaineko proposamenak ere jaso dituzte; hainbat aretxabaletarrek uste dute beharrezkoa dela Udalak eremu hori egokitzeko planteatutako 900 metro koadroko azalera handitzea, eta txakurrak gozatzeko hainbat elementuz hornitzea. Udaletik jakinarazi dute ekarpen horiek "arretaz" aztertu dituztela gunea egokitzeko unea iristen denean.

Bestetik, gogorarazi dute komentuko lorategira txakurrek ez dutela sarbiderik, eta beste hainbat tokitan ere debeku hori adierazten duten seinaleak jartzeko asmoa agertu dute.

Alegazioak aurkezteko epea

Osoko bilkuran, ekainaren erdian, hasierako onespina eman ondoren ordenantzari, jenduraren jarriko da, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horiek aztertu eta behin betiko onartzen denean izango dira indarrean egindako aldaketa guztiak. Ekarpenak egindako herritarrek Udalaren erantzuna jasoko dute.

TXAKURREN KAKAK JASOTZEKO POLTSAK ERAMATEKO BETEBEHARRA EZARRI DU UDALAK

Bonuen kopurua handitu egin du Udalak: 1.300 jarriko ditu hilero

50 euroko taloitegiak 40 euro ordainduko dituzte orain herritarrek eta astelehenean egongo dira salgai Arkupen

M.A. ARETXABALETA

Merkataritzan, ostalaritzan eta negozio txikietan kontsumoa bultzatzea helburu duen bonuen kanpaina maiatzaren 18an jarri zuen abian Udalak, eta 950 bonu jarri zituen herritarren eskura. Orduan izandako arrakasta ikusita -50 eurokoak bi egunean agortu ziren- erabaki du bonu gehiago ateratzea hilero. Horren xedea da herritar gehiagori erosteko aukera eskaintzea, batetik, eta, bestetik, tokiko establezimenduek diru-sarrerara gehiago eskuratzea.

Hala, 50 euroko 1.000 bonu -taloitegi bakoitzean 5 euroko hamar bonu- banatuko dira. Prezioan ere egin dute aldaketa bat, eta herritarrek, orain, 40 euro ordainduko dituzte taloitegiak -35 euro beharrean-. "Aldaketa horrekin, kanpainari atxikitako negozioetan hilean 50.000 euro mobilizatzea espero da", adierazi dute Udaletik, eta zehaztu dute maiatzean "32.500 euroko eragin ekonomikoa" lortu dela.

Bestalde, 16 urtetik beherakoei bideratutako 5 euroko taloitegiak



Bonuak erosteko ilara Herriko Plazan, maiatzaren 18an. M.A.

daude, 50 zentimoko hamar txartelekin osatutakoak; maiatzean legez, oraingoan ere 300 bonu banatuko dituzte. Aldaketa prezioan dago, bonu bakoitzagatik 4 euro ordainduko ditu-eta erostekoa -3,5 euro beharrean-.

Ekaineko bonuak astelehenean aurrera salduko dituzte Arkupen -09:00-13:00 eta 17:00-20:00-. Oraingoan, 87 negoziok egin dute bat ekimenarekin; besteak beste, arropa dendeak, harategiek, ile-apaindegiek eta tabernek.

OHARRAK

Liburutegia, irekitzear

Eguaztenean, ekainaren 3an, zabalduko dute liburutegia, eta lehenengo hiru egun horietan goizez bakarrik emango dute zerbitzua.

Basotxoko taberna

Basotxo erretiratuen elkarteak taberna astelehenean, ekainaren 1ean, zabalduko dute bazkide zein herritarrendako.

Loramendi: batzarra

Loramendi elkarteak batzar orokorra egingo du ekainaren 18an, eguena (18:45), udaletxe zaharrean. Iazko jardueren eta diru kontuen berri emango dute, eta 2020ko plangintza eta diru kontuak aurkeztu.



Irati Pagoaga eta Ion Albizu, EH Bilduko zinegotziak, familien artean egindako inkestaren emaitzen txostenarekin. MIRARI ALTUBE

Kontziliazioa eta umeen aisia uztartzea helburu

Ohiko udaleku irekirik ez da izango aurten, baina EH Bilduk uste du hainbat familiak duela zaintza zerbitzu baten beharra; hori baieztatzeko galdeketa egin du eta jasotako 203 familiaren erantzunekin batera proposamena bideratu dio Udal Gobernuari

Mirari Altube ARETXABAETA

Osasun krisiaren eraginez, beste herri askotan legez, ohiko udaleku irekirik ez da antolatuko uztailean. EH Bilduk uste du kontziliazioa eta aisialdia uztartuko dituen zerbitzu baten beharra badagoela, eta dio hori baieztatu duela 203 familiak erantzun duten inkestarekin.

Aisialdia eta lana

Une honetan bi egoerari erantzun behar zaiola uste dute EH Bilduko kideek. Batetik dago umeen "aisialdi beharra", arauak arintzen joan arren oraindik urrunte soziala bete beharra izanik. Eta bestetik dago familien kontziliazio beharra, gurasoak lanera bueltatzen dabiltzan heinean: "Horren aurrean, lehenetasunak eta helburuak gainbegiratzea proposatu genion alkateari, herriko umeek eta horien gurasoek dituzten beharrei erantzungo dien programa bat martxan jartzea helburu izanik", azaldu du Ion Albizuk.

Zerbitzua erabiltzeko gertu

Herriko familien beharrak ezaugarritzeko galdetegi bat betetzeko eskatu zieten horiei joan den astean, eta pozik agertu dira, 203 familiak erantzun duelako: "Aretxabaletan 12 urte arteko umeak dituzten familien %35 inguru dira; 344 ume".

Gurasoen lan egoeraren gainean galdetuta, 49 familiatako guraso biek lanera joan beharra zutela izan zen erantzuna, EH Bilduren esanetan; eta kontziliazioarekin moldatzen ziren galdetuta, 97k baietz erantzun zuten; 76 familiak, baietz, baina laguntzarekin; eta 25ek, ezetz.

Kontziliazioan lagunduko lukeen zerbitzurik abian jarriz gero erabiltzeko gertu egongo

KONTZILIAZIOAN LAGUNDUKO LUKEEN ZERBITZU BAT ERABILTZEKO PREST DAUDE 89 FAMILIA

liratekeen ere galdetu zieten, eta baieztatu erantzuna jaso zuten 89 familiaren aldetik; 157 ume, hain zuzen ere. "Argi geratu da badagoela zerbitzu baten beharra familien artean; betiere, umeen aisialdia asetzea helburu nagusia duena", dio Albizuk.

Talde oso txikitan

EH Bilduk Udal Gobernuari bideratu dio eskaera: "Aukerak azter ditzan eta bideragarria ikusten bada begiraleen lan poltsa lehenbailehen zabaltzeko eta antolatzen hasteko". Zerbitzu horrek izan beharko lituzkeen ezaugarri batzuk ere eman dituzte: talde oso txikiak izatea; erreferentziatzeko gune bat edukitzea talde bakoitzak, garbitasun neurriak mantentzeko; eta herriko baliabideak aprobetxatzea "kontaktua saihesteko": komentua, eskola, Kukumiku, ludoteka... Era berean, ohiko udalekuak baino "luzeagoak" izatea hobetsi du EH Bilduk, kontziliazioan "denbora luzeagoan laguntzeko".



Astelenean itxi egingo duten Santa Kurtz kaleko bide zatia. M.A.

Santa Kurtz kalea itxita izango da datorren astean, asfaltatzeko

Bidegorriko lanak egiten dabiltzan tarteari eragingo dio, Azbeko bidegurutzetik Kurtzebarri eskolarainokoari

M.A. ARETXABAETA

Ekaineko lehen astean, astelehenetik egubakoitzera bitartean, itxi egingo dute Santa Kurtz kalearen tarte bat bidegorriaren lanak direla eta. Azbeko bidegurutzetik Kurtzebarri eskolaren eraikina bukatu bitartean dagoen zatia da itxita izango dena: hortaz, autoek ez dute pasorik izango hortik. Salbuespen bakarria tarte horretako garajeetara doazen autoekin egingo dute; horiek pasatzeko baimena izango dute.

Herria zeharkatzen duen bidegorria egokitzeko lanak api-

rilaren 14an hasi zituzten Pro-bisa Vias y Obras enpresako langileek, eta, Udalaren esanetan, martxa onean doaz. 278 metro egokitu behar dituzte, eta, hasiera baten, hamaika asterako lana aurreikusita zuten.

Lan horiekin lotu gura da, batetik, bidegorria Kurtzebarri eskolaren jolastokitik ateratzea, eta, bestetik, eskolaren aurrealdean oinezkoen zein txirindularien segurtasuna hobetzea. Horretarako, zirkulazio-erriak estutu egingo dituzte, eta sigisagan jarri, ibilgailuen abiadura murrizteko.

GORA ETA BEHERA



M.A.

Hozkailua kalean, hainbat egunetan

Herritar batek gogorarazi gura du tamaina handiko trasteak jasotzeko egutegia eta ordutegia duela Mankomunitateak: "Eta egunetan pasatzen badira, ez atera horiek martitzenean kalera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Hirugarren fasea eta fatxadako lanak, amaituta

Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitza eraberritzeko proiektuaren hirugarren fasean, amaitzeko geratzen ziren zenbait lan bukatu dituzte. Horrekin batera, fatxada konpondu egin dute, eta emaitzarekin "gustura" geratu dira bertakoak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Jose Arana nagusien egoitza eraberritzeko proiektuarekin zenbait urte daramatzate, eta apurka-apurka joan dira lanak egiten. Hasierako planteamenduari jarraituz, hiru fase izan ditu proiektuak, eta hirugarrenarekin izan dira azkenaldian. Horiek 2019an hasi zituzten, baina, bukatzeko geratzen zitzaizkien hainbat lan amaitu, eta horiekin batera fatxada ere konpondu dute. Emaitzarekin "gustura" geratu dira, eta, hasiera batean, ez dute aurreikusitako 2020an lan gehiago egitea.



Jose Arana nagusien egoitzako lanak amaituta. MIREIA LARRAÑAGA

Hirugarren fasea, amaituta

Hirugarren faseko lanen barruan, lehenengo solairua egokitu zuten. Egongela eta komun berrikuntza eta hobekuntzak 2018ko udan amaitu zituzten, eta 2019an, hirugarren fase honetarako aurreikusita zituzten beste zenbait lan amaitzeko aprobetxatu zuten: "Hiru bulegotan –erizaina, sendagilea eta zuzendaria– zoru berria jarri genuen, eta margotu egin genituen; zentzumen gela, sala sensoriala, lehenengo pisuko almazena eta bilera gela sortu dira; eta emergentziazko ateak jarri ditugu", adierazi du Mireia Larrañagak, Jose Arana nagusien egoitzako zuzendariak.

2020AN EZ DUTE AURREIKUSTEN OBRA GEHIAGORIK EGITEA JOSE ARANA NAGUSIEN EGOITZAN

Fatxada, beste itxura batekin

Fatxadako lanei dagokienez, egoitzako alde zaharreko fatxadaren eta eskaileraren errehabilitazioa egin dute, eta egunotan amaitu dute. "Eskaileraren eta fatxadaren materialen konpo-

sizioagatik, hezetan filtrazioak zeuden nagusien egoitzan, eta horrek zuen lehentasuna. Obrak fatxadaren aurrealdetik hasi ditugu, hezetan arengatik kaltetuen dagoen aldea zelako, eta kanpoko eskaileretatik, berrietako beheko solairuko pasilloan filtratutako hezetan kendu, ezabatu edo deuseztatu dugu. Azkenaldian, obretan ikusi izan da egoitza, paretik pasatzean: aldamiok... Orain, beste itxura bat du eta uste dut oso ondo geratu dela. Gu geu oso pozik gaude".

Tramiteak aho batez onartuta, aurrekontuak hizpide

Aurrekontuei begira, bost ardatz izango dituztela kontuan adierazi du Eskoriatzako Udal Gobernuak

I.B. ESKORIATZA

Maiatzeko ohiko osoko bilkura era telematikoa egin zuten, martitzenean, udalbatza osatzen duten udal ordezkariak, eta Eskoriatzako udal webgunetik zuzenean jarraitzeko aukera izan zen. Gai-zerrendan zenbait tramite izan zituzten berba, eta guztiak aho batez onartu zituzten. Galde-eskeen tartean, berriz, herriko merkatariak alarma egoerak eragin dien galera ekonomikoari laguntza eta ekainean onartuko dituzten aurrekontuen ildoak izan zituzten hizpide.

Eluska Irazu EH Bilduko bozeramaileak honako galdera hau egin zuen galde-eskeen tartean: "Eskoriatzako merkatariak, dendariak, artisauek, autonomoak, baserritarrak... alarma egoerak dirauen bitartean izan dituzten galera ekonomikoekin laguntza paketeren bat martxan jartzea pentsatu da? Erosketa bonuak, edo terrazaren tasak ez ordaintzea, zabor edo ur tasak ez ordaintzea...?. Herriko komertzioetatik erantzun ezberdinak jaso ditugu, eta zehaztu beharra dagoela uste dut".

Aurrekontuetarako, bost ardatz

Honen aurrean, Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak adierazi zuen ekainerako plangintza bat aurkeztuko dutela aurrekontuen gainean, eta bertan jasotzen dela merkatariak laguntza, besteak beste. "Elizateen Elkartearekin eta EH Bildurekin landuko dugu batzordean ekarpen eta proposamen ezberdinak jasotzeko, baina bost ardatz nagusi ezarri ditugu, aurrekontu berria programa berrietara egokitzeko. Badakigu zenbat diru gutxiago jasoko dugun, eta non gastatu dezakegun gutxiago. Hori kontuan izanda, programa potente bat atera zaigula pentsatzen dugu. Programa honek bi ardatz nagusi ditu, baina bost puntutan banatzen da: lehena, osasuna bermatzea; bigarrena, gehien behar duen jendeari edo kolektiboari lagundu ahal izatea; hirugarrena, bertako komertzioa sustatzea; laugarrena, *Eskoriatza bizirik* programarekin kultura bizitza berpiztea; eta bosgarrena izango da klima aldatzeko eragileak ahal duguna egitea udal bezala".

GORA ETA BEHERA



Zikinkeria depositu zaharrean

Herrigunetik Atxorrotxera bidea hartzean, zementuzko bidea hasi eta eskuinetara dago depositu zaharra. Bertako berdegunean, gerizpean egoteko leku erabilia da herritar askorentzat. Hala ere, ingurua egoera tamalgarran dagoela kezatu da herritar bat.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



LORE DIAZ DE GERENU

Aparteko gastuei aurre egiteko poltsak

COVID-19ak eragindako aparteko gastuei aurre egiteko poltsak salduko dituzte Jose Arana egoitzan, egoiliar, familia eta langileentzat, mezu argia bidalita: *Zaindu maite duzun hori*.

Poltsen diseinua egiteaz Iñigo Urrutia eskoriatzarra arduratu da, eta momentu honetan aurrealmentarekin ari dira, eskaerak jasotzen, eta ekain

hasieran jasoko dituzte poltsak egoitzan bertan. Eskaera egin dutenentzako entrega modua, berriz, zehaztuko dutela adierazi dute.

Eskaerak egin daitezke

Poltsa eskatu nahi duenak mlarranaga@josearana.eus helbidera idatzi beharko du, eta horien kostua hamar eurokoa da.



Egoitzako poltsak. JOSE ARANA EGOITZA

Ixkur ile-apaindegia, arte-galeria bihurtuta

'Salbuespen egoerarako emergentziako paisaiak' izeneko erakusketa jarri du Larraitz Iparragirre artistak Ixkur ile-apaindegian. Konfinamenduan egindako lanak dira guztiak, akrilikoz eta pigmentu naturalak mihisearen gainean egindakoak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bere ama Ixkur ile-apaindegira ilea moztera eramanda, eta bertako pareta beltza erakusketa baterako aproposa zela ikusita, konfinamendu garaian egindako lanen bilduma jarri du ikusgai Larraitz Iparragirre eskoriatzarrak. Hamar lan batzen ditu *Salbuespen egoerarako emergentziako paisaiak* izeneko erakusketak, eta akrilikoz eta pigmentu naturalak mihisearen gainean egindakoak dira guztiak. Artelan guztiak, gainera, abstraktuak dira.



Larraitz Iparragirre, Ixkur ile-apaindegiko jabe Eider Kortazarrekin. LARRAITZ IPARRAGIRRE

Erakusketak jartzeko zailtasuna

2016an erakusketak egiten hasi zen Iparragirre, baina Euskal Herrian ez dela erraza lanak erakustea adierazi du: "Lehenengo erakusketa jarri aurretik margotzen nuen, baina ez nintzen ausartzen jendeari erakusten. Guatemalan bizi izan naiz urte dezente, eta han errazagoa da galeriak topatzea. Gainera, artista ugari nituen nire zirkuluan, eta Latinoamerikako bezeroekin hartu-emana izatea errazagoa da han, piezak erakusgai jartzeko bada edo saldu nahi badituzu. Euskal Herrian, berriz, ez da samurra. Internetetik saltzen aritu naiz, baina artista izatetik bizitzea zaila da hemen".

Artista izatetik bizitzea, zaila

Arte plastiko abstraktua gutxi batzuen artea izango balitz moduan geratzen dela ere gaineratu gura izan du Iparragirrek: "Dena ulertu behar dela ematen du, baina ezagutu beharra dago. Artisten lana infrabalaratuta dagoela uste dut, eta, zaletasuna baino gehiago izan arren, bizirik irauteko beste lan bat izan behar duzu gehienetan, nire kasuan moduan. Horrekin batera, ez dago artistentzat egiturarik, laguntzarik... kultura etxeetan ere ezin da saleroske-

tarik egin, eta, gaur egun Internetek asko laguntzen duen arren, ez da samurra".

Erakusketa, inaugurazio barik

Inaugurazio ekitaldia egitea ezinezkoa izan den arren, astelehenetik ikusgai izan dute ile-apaindegira joan diren bezeroek eskoriatzarraren obra: "Astelehenean jarri genuen erakusketa ile-apaindegian, eta hauek kentzeko datarik ez dugu jarri. Bertan egongo dira, momentuz. Azken finean, etxean jarri beharrean hobeto daude Ixkurren".

Kirol elkartearen kamisetarekin ateratzeko deia

Maiatzaren 30ean- zapatu honetan- zen ospatzekoa Eskoriatzako Kirol Elkarteko Eguna. Asmoa, urteroko egitarauari jarraituz, ekintza ezberdinak egitea zen: jolasak Fernando Eskoriatza plazan, paella erraldoia... Hala ere, COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz eta Gobernuak ezarritako neurriak errespetatze aldera, ez

dute ohi bezala ospatuko eguna elkarteko kideek, baina ez dute eguna ezerezean geratzerik gura.

Hori horrela, honako hau adierazi dute Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek: "Zapatu honetan, Eskoriatza Kirol Elkarteko kamiseta jantzi eta gure koloreekin beteko ditugu herriko kaleak. Horrez gain, sare sozialak zuri-berdez margotu nahi ditugu. Horrela, guretzako hain garrantzitsua den festa hau beste modu batean ospatzeko aukera izango dugu".

Odola emateko autobusa ekainaren 2an izango da plazan

Odol Bankuak neurriak hartu ditu odola ateratzeko prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien osasuna babesteko: eskuak desinfektatzea; emaile, langile eta laguntzaileei maskara ematea; emaileen arteko distantzia handiagoa izatea itxaron-gelan eta odola emateko gelan edo unitate mugikorrean. 16:30etik 20:15era izango da autobusa, plazan.



Gatzagako udalbatzako kideak maiatzeko ohiko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

565.000 euroko aurrekontua onartu dute Leintz Gatzagan

Inbertsio nagusiak turismora bideratutakoak izango direla adierazi zuten udalbatzako kideek

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Atzo, eguena, maiatzeko ohiko osoko bilkura egin zuten Gatzagako udalbatzako kideek, eta gai zerrendatik nabarmentzeko puntua 2020ko udal aurrekontuen hasierako onarpena izan zen. Hain zuzen ere, 565.000 euroko aurrekontua onartu zuten, eta, inbertsio nagusiak aipatzeaz batera, Foru Funtsera bueltatu beharko duten dirua ere izan zuten hizpide.

Bi inbertsio nagusi

"Onartu dugun aurrekontutik 60.000 euro bueltatu beharko ditugu, eta, gastu arruntak kenduta, diru gutxi geratuko zaigu inbertsioetarako. %20 bueltatu beharko dugu, printzipioz, baina guk %25eko murrizketa egin dugu, aurrera begira etorri daitezkeenak kontuan izanda. Beraz, Foru Aldunditik 179.897 euro jasotzea aurreikusten dugu. Gatz

Museoan, ekoizpena handitzeko proiekturako eta harrera egokitzeko 30.000 euro bideratuko ditugu; Gaztainuzketa mendietxeetako *Basoaz blai* proiekturako, berriz, 35.000 euro. Horiek izango dira inbertsio nagusiak. Hala ere, errepide aldera ematen duen frontoiko pareta apaindu nahiko genuke, 5.000 eta 10.000 euro inguruko inbertsioa eginda", adierazi zuten Eugenio Otsoa alkateak.


Horiekin batera, udaletxeko instalazioetarako diru zati txiki bat erabiliko dutela ere gaineratu zuten Otsoak, eta gainontzekoa auzolanean egitea dela beraien asmoa adierazi.

Energia Mahairako hautaketa

Aurrekontuez gain, Debagoieneko Mankomunitateko Energia Mahairako Aitor Larrañaga teknikaria eta Eugenio Otsoa izendatu zituzten.

Frontoia, txori kakaz beteta

Gatzagako frontoiko zorua txori kakaz beteta dago. Hori horrela, Eugenio Otsoa Leintz Gatzagako alkateak adierazi du zerbait egin beharra dagoela: "Enara ugari ari da azkenaldian, eta zirrikituren batetik sartuta frontoi osoa zikindu dute. Arazoa zein den dakigun arren, txoriak nondik sartzen diren lokalizatu beharko dugu, eta irtenbidea topatu".





Eguneko zentro berriaren irekierarako datarik ez du eman Diputazioak; Udalak ekainean martxan izatea espero du. JOKIN BEREZIARTUA

Eguneko zentro berria ia gertu, urtebete geroago

Eguneko zentro berria lehenbailehen irekitzeko beharra handitu du COVID-19ak, eta, horregatik, Diputazioak urgentziaz berrabiarazi du lekualdaketa gauzatzeko prozedura; Uda Gobernuak espero du ekainean martxan egongo dela, 35 erabiltzailerekin

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak eragindako krisiak prozesu administratibo baten katramilatuta zegoen eguneko zentro berria irekitzeko prozesua azkartu du. 2008tik Boni Laskurain kaleko San Joxepe elkarte-ko egoitzaren beheko solairuan egon da kokatuta eguneko zentroa. Martxoaren 13tik itxita dago San Joxepe elkartearen

egoitza eta bertako eguneko zentroko erabiltzaileak zerbitzua ezin baliatu daude ordutik. Lekualdaketa egiten denean, Udalaren asmoa da zentro zaharra arretarako gune gisa erabiltzea, betiere eguneko zentroko egoiliarrek dutena baino dependentsia maila baxuagoa duten erretiratuei zerbitzua emateko; hala ere, Udalaren lehentasuna zentro

berria irekitzea da, eskumena Diputazioarena den arren.

Hirigintza akordioak urtebete pasa

2019ko martxoaren 25eko osoko bilkuran onartu zen hirigintza hitzarmena, Urartetxe enpresarekin. Enpresa eraikitzaile hori izan zen eguneko zentroaren beheko solairua eraiki, Udalari utzi eta lokala bera egokitze

lan guztiak egin zituen. Diputazioak kudeatutako zentroa izanik, 2019ko urtarrilean diputatu nagusi Markel Olano eta Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñak bertara egindako bisitan aditzera eman zuten 2019ko maiatzean martxan egotea espero zutela. Hortaz, urtebete gutxienez atzeratu da eguneko zentro berriaren irekiera.

Ernai kaleko zentroa Boni Laskuraingo zentroa baino nabarmen handiagoa da. Zentro berriak 500 metro koadro ditu, eta Boni Laskuraingo zentro zaharraren azalera 250 metro koadrokoa da, gutxi gorabehera; hala ere, San Joxepeko zentroak ez du berriro orain arteko erabilerarik izango. Esan bezala, Ernai kaleko zentro berriak 35 egoiliarrendako lekua izango du; azpiegitura bera bukatuta dago eta altzariak zein beharrezko ekipamendua egokitzea falta da.

Diputazioa, "presaz eta korrika"

Asteleheneko osoko bilkura telematikoa onartu zuen udalbatzak bi lokalak permutatzeko kontratua, Diputazioko gizarte politiketako diputatu Maite Peñak eta Bergarako alkate Gorka Artolak izenpetua. Artolak GOIENARI azaldu dio nola heldu zen Diputazioaren eskara: "Erregistroko prozesu administratibo baten korapilatu-ta zegoen gaia eta korapilo hori askatu genuen. Duela hiru bat hilabete bideratu genuen hitzarmenerako proposamena Foru Aldundira; orain, presaka eta urgentziaz eta beharrak hala eskatuta heldu zaigu Aldundiko erantzuna".

Hain zuzen ere, konfinamendua arintzen joan den heinean eguneko zentro zaharreko erabil-

tzaile guztiei zerbitzua bermatzea izan da lehentasuna, Artolaren arabera: "Eguneko zentro berria martxan jarri beharra dago; izan ere, Diputazioa zerbitzua eguneko zentro zaharrean ematen hasiko balitz, ez luke erabiltzaile guztiendako zerbitzua ematerik izango, COVID-19ak sortutako segurtasun neurriak direla eta. Gaurko [astelehena] ezohiko prozesu honekin ahalbidetzen duguna da Bergarako erabiltzaile guztiak zentro berriaren plaza bat izatea zerbitzua martxan jartzen denerako".

EAJ: "Ez dugu trabarik jarriko"

EAJren ustez, eguneko zentroa beti izan da baliabide "oso garrantzitsua" herriarentzat, eta zerbitzua "are garrantzitsuago" bihurtu du COVID-19ak. Hori bai, Elena Leteren arabera, permuta egiteko prozedura ez da egokia izan: "Prozedura ez da gardena izan, eta salatu nahi dugu askoz hobeto izango litzatekeela Udal Gobernuak gaia batzordera behar moduan eramango balu". Irekiera zerk atzeratu duen galdetuta, Letek dio ez dutela informaziorik: "Suposatzen dut hurrengo batzordean azalduko digutela zergatik atzeratu den kontua. Hala ere, gaia zein den ikusita, EAJk ez du oztoporik jarriko. Hainbat amaia eta aitaita etxera bidali zituzten krisiaren hasieran, eta lehenbailehen jarri behar da azpiegitura berria martxan, behar handia dago eta".

EGUNEKO ZENTRO BERRIAK 500 METRO KOADRO IZANGO DITU, ETA 35 ERABILTZAILEK ERABILI AHALKO DUTE

1943ko jaietako dantza saioko argazki erraldoia Irala kalerako

Hiru argazkiren artean aukeratzeko lehiaketa abiatu zuen Udalak; 248 boto jaso dira eta 1943koa izan da botatuena

J.B. BERGARA

Udal Artxiboko argazkiak baliatuta, Udalak lehiaketa bat jarri zuen martxan, herritarrek hiru argazkiren artean aukeratzeko eta herritarren bistara jartzeko: 1936ko San Martin

plazako argazki bat, 1963ko umeen marrazketa lehiaketa San Martin plazan eta 1943ko Pazkoetako martitzeneko dantzarien saioa. Azken argazki horrek jaso ditu boto gehien, eta "bi asteko epean" jarriko du

Udalak Irala kalean, Seminari-xoko fatxadetan. Argazki erraldoia izango da, 7,20x4,80 metroko tamainakoa. 248 herritar izan dira lehiaketan parte hartu dutenak eta honako hau izan da emaitza: 1936ko argazkiak, 85 boto; 1963ko argazkiak, 74 boto; eta 1943koak, 89 boto.

Gainera, partaideen artean herriko saltokietan eta negozioetan gastatzeko 50 euroko bi bonu zozketatu dira, eta Maialen Marauri eta Jose Mari Larrañaga izan dira irabazleak.



1943ko Pentekosteetako dantza emanaldia. T. JAUREGI. UDAL ARTXIBOA. TORIBIO JAUREGI FONDOA

Gobernua "berandu" ari dela uste du oposizioak

COVID-19aren krisiaren aurrean aktiboagoak izatea eskatu diote EAJk eta PSE-EEk Udal Gobernuari, egoera oso zaila dela onartu eta gaia joko politikotik kanpo utziko dutela esan arren; alkateak dio dagoeneko hartutako neurriez gain plan integral baten ari direla lanean

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak eraginda bigarren ezin zen osoko bilkura telematikoa, Udal Gobernuak krisiaren bueltan daroan kudeaketa izan zen eztabaidagai nagusia. Oposizioak dio "laguntzeko gertu" dagoela eta ez duela gaia "joko politikora" eramango, baina, aldi berean, EAJk uste du neurri orokorrak "berandu" datozela eta PSE-EEk dio Udal Gobernuak "analisiak eragindako paralisian" dagoela. Gorka Artola alkatea ez dago ados: "Hasieratik hartu genituen urgentziako neurriak eta hemendik aurrerakoak plan integral baten barruan ari gara lantzen".

"Analiaren paralisian"

EAJk eskatu dio Udal Gobernuari neurri orokorrak "lehenbait lehen" martxan jartzeko. "Behar diren neurriak ez daude martxan. Guk proposamen zehatz batzuk aurkeztu genizkien, eta ez dugu erantzunik jaso. Ez dut esaten neurri horiek guztiak aplikatu behar direnik, baina jakinda altxortegi bat dagoela eta hori posible dela bideratzea...". PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok ez zuen hitzik hartu asteleheneko bilkuran, eta amaieran GOIENari adierazi zion "analisiak eragindako paralisian" da-




Bilkura telematikoa bozketa izenpetua da, eskua altxatuta izan beharrean. J.B.

ALARMA EGOERAKO BIGARREN OSOKO BILKURA TELEMATIKOA IZAN ZEN ASTELEHENEKOAK

goela Udala: "Gobernua behin eta berriz ari da esaten aztertu eta hausnartzen ari direla, baina heldu da ordua aktiboagoak eta pragmatikoagoak izateko".


Gorka Artolak dio EAJren proposamenak "aintzat" hartu

dituztela euren lanketetan. "Baina egoera honetan ez ziren proposamen oso errealistak. Uste dugu, gainera, badagoela arrisku bat gizartearengan espektatiba batzuk sortzeko une honetan gero Udalak bete ezin dituenak", gaineratu zuen. Alkateak dio "hasieratik" hartu zituztela COVID-19ari aurre egiteko neurriak, gizarte zerbitzuen eta sustapen ekonomikoaren arloan: "Aurrera begira, beste arloetako erantzunak ere artikulatu eta txapel orokor baten barruan jarri behar ditugu; lan horretan ari gara".




GORKA ARTOLA
ALKATEA (EH BILDU)

"Gizarte zerbitzuetako eta arlo ekonomikoko neurriak hartu ditugu eta segituko dugu; aurrera begirako neurriak txapel orokor baten artikulatzeko asmoa dugu".



ELENA LETE
EAJ-KO BOZERAMAILEA

"Gure ezagutza eta laguntza eskaini diegu, proposamenekin, baina erantzunik ere ez dugu jaso. Ez dute gurekin kontaktatzen benetako elkarlan baterako".



ALBERTO ALONSO ALDERDI
SOZIALISTAKO BOZERAMAILEA

"Analiaren eragindako paralisian dago Udal Gobernuak. Kudeatzeko oso egoera zaila dela ezin da ukatu, baina heldu da aktiboagoak izateko ordua".



TXOMIN MADINA

Pentsioengatik kalean, batzuk

Alarma egoeraren osteko lehen elkarretaratzea maiatzaren 18an egin zuten pentsiodunek Bergaran. Astelehen honetan ere elkarretaratze jendetsua egin zuten, neurri guztiak errespetatzen. Hala ere, kolektibo guztiak ez dute begi onez ikusten kalera irtetea; Bat Etorri kolektiboak, esaterako, ez du bat egin itzulerarekin, oraindik ere "zuhurtziaz" jokatu behar dela uste dutelako.

Haur eskolarako matrikulazio epea zabalik dago

Maiatzaren 21ean ireki zuen Bergarako haur eskolak 2020-2021 ikasturterako matrikulazio epea. Eskaintza 2019-2020 urteetan jaiotako umeei dago zuzenduta, irailan, urrian edo azaroan hasteko. Matrikulazioa online egin daiteke, eta baita haur eskolara bertaratuta ere. Matrikulatzeko honako epe hauek zehaztu dituzte: online egiteko,

ekainaren 8ra arte; aurrez aurre egiteko, ekainaren 2tik 8ra egin beharko da, martitzenetik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago behar izanez gero, hiru bide zehaztu dituzte: Bergara.bergara@haurreskolak.eus helbide elektronikora idaztea, 943 76 25 96 telefono zenbakira deitzea eta astelehenean egubakoitzera haur eskolara bertara joatea, 09:00etatik 14:00etara. Adierazi dute hezitzailearen bat eguneroko egongo dela bertan.

Itxita izan dutenei 800 euroko laguntza bideratuko die Udalak

Alarma egoeraren ondorioz itxita egon edo jarduera nabarmen murriztu duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpleatuei zuzendutako dirulaguntza lerro baten berri eman zuen atzo Udalak. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte onuradunek: zerbitzua publikora zabalik dagoen komertzioa izatea; kokapen fisikoa, egoitza eta jardueraren eremua Bergara izatea; fakturazioa %50 edo gehiago jaitsi izana; eta hamar langiletik beherako tamaina duten komertzioak izatea, jardun osoz dihardutenak. Udalak 800 euroko laguntza emango die itxita egon diren negozioei eta 400 euroko laguntza fakturazioa erdira jaitsi zaienei.

OHARRAK

Hautesle errolda

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako errolda ekainaren 1era bitartean egongo da ikusgai, BAZEN.

EAJ: botoa postaz

Batzokira joan beharko da, aldeztatik telefono zenbaki honetara deituta: 943 76 47 00. Astelehenean egubakoitzera: 11:00etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Autokarabana-gunea

Zabalik dago berriro ere Labegaraietako gunea. Autokarabanak aparkatzeko espazioak ditu, eta baita ur-hartuneak ere. Doako zerbitzua da.



Zazpi ostalari, Ander Okiñena udaltzainburua, Gorka Artola alkatea eta Ainhoa Lete alkateordea, atzo, Telesforo Monzon plazan. B.U.

Kalean ekitaldirik ez, eta herritarrei zuhurtziaz eta arduraz jokatzeko deia

Festarako gogoia "nabarmena" dela ikusita eta alarma egoerarekin bateragarriak ez diren egoerak ekiditeko, Udal Gobernuak ostalari batzuekin adostu du taberna terrazaren ordutegi berarekin ixteko gomendioa egitea; udaltzainen presentzia indartu egingo dute asteburuan

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak herriaren memorian iltzatuta utziko dituen oroitzapenen artean geratuko da 2020ko Pentekosteak ospatzeko aukerarik ez izatearena. Alarma egoerak eraginda apirilaren 27an lehenengoz egin zen osoko bilkura telematikoan eman zuen aditzera erabakia udalbatzak, talde politiko guztien oniritziarekin: "Ez dira baldintzak betetzen jaiak ospatzeko". Horregatik, Udalak erabaki zuen ekitaldirik ez antolatzea eta laguntza eskaintzea, betiere segurtasun neurriak bermatzen zituzten ekitaldi telematikoetarako.

Kaleko ekitaldiak, suspendituta

Kezkatuta dago Udal Gobernuak eta horren adierazle da azken unean kalean egitekoak ziren ekitaldi guztiak bertan behera laga dituztela. Horren adibide dira Bergarako Bandak egin behar zuen kalejira egokitua, Xaxau konpartsak Bitorianatxo hartuta egin behar zuen *Furgobira xaxautarra* eta Kopla Barik taldearen bertso saioa, besteak beste. Hortaz, ekitaldi telematikoak izango dira egitarauan

geratuko diren bakarrenetakoak, eta horien barruan aipagarrienak dira kartzela zaharrean grabatu diren kontzertuak, Bergarako askotariko taldeak direnak protagonista.

Ostalariekin adostutako neurriak

Alarma egoerarekin bateragarriak ez diren egoerak tabernetan gertatu ahalko direla aurreikusita, Udal Gobernuak ostalari batzuekin elkartu da neurri batzuk adosteko; 40 bat ostalarik egin dute bat neurriekin: "Jai gogoia nabarmena da, eta Udalak ostalari batzuekin egindako hausnarke eta ardura partekatu nahi ditugu. Testuinguru berezi honetan ostalaritzan bete beharreko baldintzak oso zorrotzak dira. Segurtasuna bermatu beharra dugu gure aktibitateetan, eta horretarako neurriak hartzea eskatzen zaigu. Udalak du tabernetan eta terrazetan neurri guztiak betetzen direla ziurtatzeko eta kontrolatzeko ardura".

Hiru neurri adostu dituzte: ostalaritza aktibitate guztiei gomendatzea lokalak terrazaren ordutegi berean ixtea –egubakoitzean eta zapatuan 00:30ean



Lagun Garajea

Santalaitz, 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Gu ere
bergararrekin!!



iBARRALDE
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Gu ere bergararrekin!

eta domekan eta astelehenean 23:00etan-; Udaltzaingoaren presentzia asteburuan indartzea, indar berezia jarritz "itxierara begirako lan pedagogikoan"; eta herritar guztiei eskatzea segurtasuna bermatzeko gomendioak jarrai ditzatela eta ostalarien zein udaltzainen lana erraztu dezatela.

Xaxauren "gune askea", ez

Ohiko Pentekosteetan ezinbesteko gune zen Bideberriko txosnagunea; aurten hutsik egongo da Xaxauren "gune askea". Jai herrikoien konpartsa saiatu da ekitaldiren bat antolatzen, baina, azkenean, kaleko ekitaldi guztiak suspenditu dituzte, Udalak eskatuta. "Pena itzelaz" bizi dute egoera. "Gure urteko ekintza handiena da eta dena genuen lotuta. Inpotentzia ere sentitzen dugu, gure lana boluntarioa delako eta ilusio handia genuelako jarrita aurtengo egitarauan. Ezin dugu ezer egin birus honek eragin duen kaosaren aurrean; orain garrantzitsuena guztion osasuna da", dio Xaxauko Iosu Agirrek. Jardun euskara elkarte omen du behar zuten, aurten 30 urte

Saio berezia Seminarixotik, zuzenean

Aurten ez dira Pentekosteak ospatuko, baina Goiena telebistan jaiak berbagai izango dira. Egoera berrira egokituz, atzera begira jarriko da *Hemen Debagoiena* saioa; aurreko urteetako hainbat irudi berreskuratu eta jaietan ohiko protagonista izan ohi diren protagonistekin solasaldiak egingo dira. Erraldoiak, bakailao lehiaketa, 1990eko Bitorianatxoren jaietsiera, atzerrian bizi diren bergararrak, zuzeneko musika, herriko hainbat protagonistarekin elkarriketak, eta beste hainbat sorpresa. Saio berezia gaur ikusi ahalko da Goiena telebistan (18:00), zuzen-zuzenean Seminarixotik.

bete dituelako, eta garai baten arrakasta handia zuen baltsen jaietsiera ere aurten berreskuratu behar zuten. COVID-19ak ez du utzi, eta jaiak orain arte eza-gutu den ereduarekin ospatu ahal direnean egingo dira bi ekitaldi horiek.

Azken egunotan egitaraua "hainbat alditan" moldatu ostean, online kontzertuak izango dira Xaxauren egitaraua osatuko duten ekitaldi bakarrak (ikus 30. orria). Azken mezu bat ere helarazi nahi izan du Agirrek: "Eskerrik asko lagundu gaituen jende guztiari eta, bereziki, eskerrik asko jaietan online bada ere kontzertuez gozatzeko aukera eman duten musika taldeei eta teknikariari. Indarberrituta itzuliko gara hurrengo jaietan!".

Dirua, beste poltsa batera

2020ko Pentekosteetarako 115.000 euroko partida zuen aurreikusita Udalak, 2019ko jaietako aurrekontua baino 15.000 euro gutxiago. Udalak ekitaldirik antolatu ez duenez, "ia partida osoa" geratu da gastatu barik: "Behar berrietara bideratuko dugu diru partida hori".

"Pena itzela da jaietz ez gozatzea; orain, arduraz jokatzea dagokigu"

KRISTINA MARKINA KULTURA ZINEGOTZIA

Nola izan da jaiak bertan behera lagatzeko prozesua?

Hilabeteak generamatzan ilusio handiarekin lanean eta egitarau osoa genuen lotuta, COVID-19ak guztion bizitzak hankaz gora jarri zituen. Alarma egoera ezarri zenean ezin zen bi hilabete eta erdira begirako egoera irudikatu, baina egun gutxira ikusi genuen jaiak ezingo zirela bere horretan ospatu. Apirilaren 27an hartu genuen erabakia, baina ordura arte luze jardun genuen agertoki ezberdinak aztertzen. Egunek aurrera egin ahala argi ikusi genuen ezinezkoa izango zela egitarauarekin aurrera egitea. Mimos ari ginen jaiak prestatzen eta pena itzelarekin bizi dugu ospatzeko aukerarik ez izatea. **Ze mezu helarazi nahi duzu?** Herritarrei eskatu nahi diet zuhurtziaz eta arduraz jokatzeko. Denok nahiko genuke beste



K.M.

egoera baten egon eta jaiak normaltasunez ospatu ahal izatea, baina ezin dugu ahaztu COVID-19ak gure artean jarraitzen duela; iritsiko dira sasoi hobeak, hori ziur.

Jai batzordeak nola hartu zuen Udalaren erabakia?

Talde politiko guztion erabakia helarazi genienean, inor ez zen harritu. Badira etxetik disfrutatzeko moduko ekintzak, eta horiez gozatu beharko dugu. Bitartean, animo asko guztioi!

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



RPS: 258/18

Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA
www.gorosabeldental.com

Bisita ezazu gure webgunea: www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

Gu ere
bergararrekin!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENO!!

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Gora Bergara!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Festa gazi-garratzak; nahi eta ezinaren artean ospatuko dituzte aurten

Herritarrek aurtengo Pazko festak oso bestelako moduan ospatuko dituzte, COVID-19ak eraginda. Lerrotoako protagonistek aitortu dute festa gogoz dagoela Bergarako herria; hala ere, egoerara egokitu beharko dutela jakin badakite guztiek

M.A. / I.B. BERGARA

Pentekoste jaiak izaera propioa dauka herriko hainbat eragile eta protagonistaren sormen eta etengabeko lanari esker: Xaxau taldearen ekintza parte-hartzaila, Bitorianatxoren jaitsieraren unea, Udal Musika Bandaren doinua eta kalejira, barraketako giro alaia eta koloretsua, Jardunen eskutik urtero identitate ikur bilakatzen diren zapiak...

Aurten, ordea, guzti-guztiek badakite jaiak ez direla ohiko moduan ospatuko.

Bereziak izango direla jakin-koa da; akaso, tristeak ere zenbaitendako. Hala ere, egoerari alderik hoberena ateratzen saiatuko dira, bakoitza bere esparrutik eraginda eta etxetik.

lazko zapiak eskuragarri

Jardun euskara elkartetik deialdi berezia egin dute zapiak balkoietan eskegitzeko. Izan ere, aurreko urteetako zapiak jarri dituzte zintzilikatuta webgunean eta herritarrek eskuragarri dituzte jada.

Etxetik gozatzeko aukera


Jaiak kalean ospatuko ez diren arren, eragile ezberdinek eskainiko dituzten aukerekin eta ekintzekin gozatzeko bidea ere izango da, noski. Udaletik "jaiei jarraipena etxetik" egiteko gomendatu dute.

Festaren hasiera Goiena telebistan prestatutako saio bereziarekin egin dezakete herritarrek. Irekiera ekitaldirako, gainera, Udal Musika Bandako kideek prestatu duten bideoa ikusgai izango da.



ENRIKE TXURRUKA
UDAL BANDA KO ZUZENDARIA

"Azken unera arte, egokitutako kalejiraren bat egiteko aukerak aztertzen ibili gara. Baina ez da posible izan: Bergarako Udalak, babes neurri gisa, kaleko ekitaldi guztiak ez egiteko gomendioa egin du. Lagun talde bat gara eta asko gozatzen dugu elkarrekin, pena da. Hala ere, bideo berezi bat gertatu dugu, jendeak jaien hasiera etxetik ikus dezan. Jaien irekieran lehenengoz parte hartzekoa nintzen ni; bada, datorren urtean izan beharko du!".



IOSU AGIRRE
XAXAU KONPARTSA

"Jai gazi-garratzak izango dira. Nahi eta ezinako jaiak dira aurtengoak. Oso mugatuta egon gara; zerbait egin gura izan dugu, baina, azkenean, ezinezkoa izango da. Ahal den neurrian ospatzen saiatuko gara, beraz. Badakigu Udalaren erabakia zaila izan dela, eta guztiz ulergarria da. Horregatik, balkoietan ospatzeko dei egin dugu. Jaietako koloretako blusa jantzi eta ahal den heinean etxean ospatzeko eskaera egiten dugu Xaxau taldeko kideok".

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako prezioetan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Gu ere
bergararrekim!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK


IÑIGO ALMORTZA
 BERGARAKO ZEZENAK


"Gure kasua oso konplikatu da, eta ezingo dugu ezer antolatu aurten. Egoera zaila da, eta administrazioek erabakiren bat hartu beharko du. Karga handia dugu guk, ganadu piloa, eta aurten ez dugu jairik izango. Maiatzetik urrira egiten dugu lan, eta datorren urtera begira jartzea geratzen zaigu soilik..."


IBON UNAMUNO
 ERRALDOI ETA KILIKIAK

"Triste eta penaz biziko ditugu aurtengo Pentekoste jaiak. Bergarako Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren 20. urteurrena izanda, egitarau ederra genuen prestatuta: Aroztegi aretoan erakusketa jartzekoak ginen, zapatuan kanpotik sei talde etortzekoak ziren, gurekin zazpi, eta gero, proiektu bat genuen herriko ikastetxe guztiak egiteko... baina ezinezkoa izango da. Hala, 20. urteurreneko ekintza guztiak 2021era pasako ditugu".

JUAN PABLO SANZ
 ATRACCIONES SANZ

"Pentekoste jaietan ez gara egongo aurten. Orokorrean, uztailearen 1era arte ezingo dugu ezer egin. Barraka mota batzuekin ezarri ditzakegu segurtasun neurriak; beste batzuekin, aldiz, ez. Horiekin urte osoan ezingo da lanik egin. Nire barrakekin lan egiteko hartu ditzaket neurri guztiak, baina ez da egoera erraza".


MAITANE ARIZABALETA
 JARDUN EUSKARA ELKARTEA

"Jardunetik jaietarako zapiak egiten ditugu urtero. Aurten, berriz, aurreko edizioetakoak jarri ditugu webgunean jendeak deskargatzeko, eta balkoietan jarri ditzan. Hala, gure presentzia ere izan dezaten Pentekosteek. Horrekin batera, Xaxauk omenaldia eskaini behar zigun, eta penaz gaude... ea aurrerago posible den".


ANA ABAJO
 KOKOXA ANTZERKI TALDEA

"Antzerki taldekideon artean aldatzen joan gara urtetik urtera nork egin Bitorianatxoren papera, eta nik bi urtez egin dut. Herri guztiaren aurrean egotea ardura potoloa da, eta diskurtsoa ere egin izan dugu mezu esanguratsu batekin... Aurten, zerbait egiteko asmoa badugu, baina ikusiko dugu zer; egon daiteke sorpresaren bat".



Bergara •
metagra
 México •
 Group

Gu ere bergararrekin!

Jone Olabarria BERGARA

Gaur iluntzean, 40. aldiz egin beharke zukeen Bitorianatxok Seminarixotik udaletxerako bidea. COVID-19 gaitzak eraginda, baina, bertan behera geratu dira 2020. urteko Pentekoste jaiak; edo, behintzat, ez dira orain arte ezagutu diren bezala ospatuko. Aurtengo egoera ezohikoak badiu aurrekariak herrian, eta, denboran atzera eginda, jaiak egoera berezian ospatu edota bertan behera geratu zireneko zenbait adibide daude.

Era berean, jaiak eta bertan ospatzen diren ekintzek, horien kokalekuek edota protagonistek urteetan zehar jasan dituzten aldaketak jasotzen dituzten zenbait dokumentu eta irudi daude Udal Agiritegian, antzinako Pentekoste jaien memoria osatzen lagundu dezaketenak.

Historiari lotuak

Hain zuzen, 1979ko Pentekoste jaietan egin zen lehen aldiz Txibistoren jaitsiera. Bitorianatxoren aitzindari izan zen panpina hark, baina, ez zuen sekula atzerako bidea egin; ez zen inoiz egin Txibistoren igoe-



Gazte talde bat txosnagunean, 1991ko maiatzean. BKE FONDOA



Pazkoetako estanpen lehiaketa plazan, 1976an. R. LARRAÑAGA

Pentekoste jaiak urteetan zehar: nola aldatu dira orain arteko Pazkoak?

Bertan behera geratu dira Pazkoak, baina aurtengoa ez da Pentekoste jaiak historian zehar jasan duten gorabehera bakarra. Bertan behera geratu diren urteez gain, jaiak zenbait aldaketa izan dituzte, tokiari, egitarauari eta ekintzei dagokienez

ra. Urte hartan, festak bukatzeko zirela, bertan behar geratu ziren Pazkoetako azken egunean, martitzenean. Bergarako Udalak ezohiko udalbatza deitu, eta jaiak bertan behera lagatzeko erabakia hartu zuten. Hala jasotzen du udalbatza hartako aktak: "Gertakariak baloratu ostean eta haien iritzia eman nahi izan duten herritarrek entzun ostean, Bergarako Udalak aho batez erabaki du jaiak bertan behera uztea".

Erabakiaren arrazoia Gladys del Estal aktibista ekologistaren heriotza izan zen: 1979ko ekainaren 3an, domeka, Tude-lan hil zuen Guardia Zibilak Del Estal gaztea, buruan tiro bat emanda. Energia Nuklearraren aurkako Nazioarteko Jardunaldia zela eta antolatutako manifestazio batean parte hartzen ari zela erail zuten.

Atzerago begira, gerra garairako salto eginda ere, 1937ko maiatzaren 10eko udal aktak jasotzen duenez, herriak bizi zuen egoeran Bergaran urte hartan ospatzekoak ziren jaiak eta ekintza kulturak guztiak bertan behera lagatzea eraba-



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibarraiz ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Gu ere bergararrekin!



www.ibilimenaje.com

Gu ere bergararrekin!!

ki zuen orduko Udalak; tartean, Pentekoste jaiak.

Aldaketak urteetan zehar

Orain arte herritarrek ezagutu duten jai ereduak aldaketa ugari jasan ditu urteetan zehar, baita ekintza horiek egiteko kokalekuak ere. Barrakei dagokionez, azken hamarkadetan Matxiategi inguruan kokalekua izan duten arren, aurretik herriko beste hainbat gune izan dira herritarren dibertsiorako toki. Udal Agiritegian azaldu dutenez, 30eko hamarkadan Fraiskozuri eta Bideberriko gunea izaten zen mota horietako ospakizunetarako lekua, *Feriala* izenez ageri da udal artxiboetan. Ostean, trenbide zaharren beheko estazio ingurua izan zen, 90eko hamarkadara arte, atrakzioendako lekua.

Pazkoetako protagonistak

Egun bereziki errotua dagoen Bitorianatxoren aurretik, bi izan ziren jaiak hasiera eta amaiera emateko ardura izan zutenak. 1979. urtean jaio zen Txibisto panpinaren figurak ez zuen askorik iraun, eta, urtebete geroa-

go, 1980an, Txirularik egin zuen udaletxerako bidea. Lehen bi protagonista haien ostean iritsi zen Bitorianatxo, 1981. urtean; hala, Bitoriana Lizarralde emakumearen omenezko panpinak 40. urtea izango zuen aurtengoa jaietako protagonista izaten.

Estanpen arrakasta

Gaur egun galdua dagoen ohi-tura den arren, parte hartze handiko ekitaldia izan ohi zen estanpa lehiaketa Bergarako jai nagusietan. Talde edo kuadrilla-ka antolatuta, gai baten bueltan mozorrotu, karroza egin eta herriko kaleak zeharkatu ohi zituen estanpa lehiaketak. Lehiaketa horien artxibo ugari gordetzen ditu Udal Agiritegiak, eta, bertan ikus daitekeenez, aldarrikapenez beteriko mozorro eta parodiak aukeratzen zituzten bergararrek. Desfilearen ostean goraino beteta egon ohi zen plazan antzezlan txiki bat egiten zuen talde baikoitzak.

Aurten Xaxau konpartsak berreskuratu gura zuen baltsen jaitsierak ere herritar ugari bildu izan zituen urteetan zehar Deba ibaiaren bueltan.



Estanpa bat, 60ko hamarkadan. J.B. IDIGORAS



Barrakak beheko geltokian, 90eko hamarkadan. J. AREITIO ETA P. MARTIN



Ijito jantzitako taldea asto batek tiratzen duen gurdiarekin, 1965ean. J. ITURBE



Baltsen jaitsiera, 90eko hamarkadan. BKE



- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Gu ere bergararrekin!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com

- Ibargarai 24
Tel.: 943 76 70 29
- Super Amaran ere bai:
San Lorentzo pol. 9
Amillaga 18
Tel.: 943 76 99 34
BERGARA

Gu ere bergararrekin!



'Streaming' bidez kultura ekitaldiekin gozatzeko hainbat proposamen

Astelehenean hasi eta atzo bitartean herriko musikariekin hamabi emanaldi grabatu dituzte gaztetxean, publiko barik; kontzertu horiek guztiak gaur hasi eta martitzena bitartean Xaxau konpartsak Youtuben daukan kanalean eskainiko dituzte, doan

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Argi dago ez dela gauza bera musikaria aretoan ala pantaila batean ikustea; hala ere, musikariek, arloko profesionalek eta zaleek gustura hartu dute "behin-behineko *streaming* eskaintza hori, arnagune delako".

Hamabi emanaldi grabatuta
Iñigo Herreros -R. Sound- Bergarako soinu teknikariak jaietan kontzerturik egiteko aukerarik izango ez zela ikusita eta "herriarrei zerbait eskaintzeko

asmoarekin" jo zuen, orain dela aste eta erdi, gaztetxeko eta Xaxau konpartsako kideengana. "Bi hilabete eta erdi daramat geldi, eta zerbait egiteko beharra sentitzen nuen; hala proposatu nien kontzertuak gaztetxean aurrez grabatu eta ondoren *streaming* bidez eskaintzea Pentekosteak ospatu beharko lirartekeen datetan. Ideia gustatu zitzaien eta geroago Udalak ere bat egin zuen ekimenarekin".

Hasieratik argi zuten bakarrik herriko musikariendako deialdia

zela hori, eta "aurreikusitako baino formazio gehiagok" adierazi zuten segituan ekimenean parte hartzeko aukera. Brigade Loco taldeko Oier Aperribai baxujoleak dio "ekimen oso polita" iruditu zaiela, eta "asko" esker-

**HERRIKO MUSIKARIEN
HAMABI KONTZERTU
IZANGO DIRA GAUR
HASI ETA MARTITZENA
BITARTEAN IKUSGAI**



Brigade Loco taldeak astelehenean grabatu zuen kontzertua. XAXAU KONPARTSA

tzen dutela "taldekideei berriz elkartzeko emandako aukera". Azkaiter Pelox seikoteko kide Unai Azkaratek ere "txalotu" egin du ekimena, eta emaitza ikusteko deseatzten daudela dio; eta Arragoa eta Diablues&Blucifer Blues taldeetako kide Asier Elortzak ere zera dio: "Ideia oso ona da, eta iruditzen zait Xaxau konpartsan oso jende baliagarria dagoela; Bergarako gazteria oso osasuntsu dagoela erakutsi dute, beste behin. Balioa ematen diote herriari".

Hamabi emanaldi grabatuta
Astelehenean hasi ziren grabatzen -egunean hiru-, eta atzo, eguna, borobildu zituzten hamabi grabazioak. "30 eta 40 minutu bitarteko kontzertuak dira, luzeagoak, nire ustez, pantaila aurrean ikusteko aspergarriak izan daitezke eta. Argi berri batzuk ere muntatu ditut ikusgarriago egiteko. Ohiko zuzenekoak balira bezala grabatu ditugu; hau da, hasieratik bukaera arte etenik egin barik. Hasteke, kantu bat soinu-proba

GOKI
erreformak

Gu ere bergararrekin!

Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

itesa

Gu ere bergararrekin!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97



Bi familiak osatzen duten Arragoa taldea martitzenean gaztetxean grabatzen. X.K.

moduan grabatu dugu bakoitza-rekin; hori entzun, eta gustatuz gero, ordu erdiko saioa grabatu dugu jarraian. Bideoan entzuten den soinua mahaian bertan nahastutakoa da".

Talde bakoitzari gaztetxean bi orduko tartea egokitu diote, eta lantalde murriztua izan da han. "Gaztetxean ahalik eta jende gutxien elkarte zen helburua. Beharrezko taldea bakarrik izan da grabaketa bakoitzean: musikariak, bi soinu teknikari eta argazkilaria eta bideo-egilea".

Formazio eta estilo ezberdinak

Zabala da eskaintza. "Denetari-koak daude: bakarlariak, talde txikiak eta handiagoak; ezagunagoak eta berriagoak; eta estiloari dagokionez ere hala da: punk estiloko hiruzpalau talde daude, hardcore talde bat, folk, blues eta musika akustikoagoa egiten dutenak... Oso gogotsu etorri dira guztiak, jotzeko irrikaz, nahiz eta guztiak dioten publiko barik jotzea ez dela erraza. Aspaldi entsegurik egin barik daude gehienak, eta igarri da hori, lehertuta bukatu dute gehienek saioa".

'Streaming' kontzertuen egutegia

Egubakoitza

- 12:30 Garazi eta Maider.
- 16:30 Brigade Loco.
- 21:30 Azkaiter Pelox.

Zapatua

- 12:30 Olatz Ugarte.
- 16:30 Lemak.
- 21:30 Ttun Ttun Brigade

Domeka

- 15:30 Indai.
- 21:30 Barne Guda.

Astelehena

- 15:30 Diabluos & Bluecifer.
- 21:30 No Limits.

Martitzena

- 15:30 Arragoa.
- 21:30 Flyshit.

24 orduz izango dira ikusgai, Xaxau konpartsak Youtuben duen kanalean.

Talde bakoitza bere onena ematen saiatu da ordu erdia ahalik eta ondoen zuketuta; Brigade Loco, esaterako, argitaratu berri duen *Amets bati lotuta* lane-ko hiru kantu aurkeztuko ditu, aurreko lanetako kantu zahar-rragoen artean.

Arragoa taldearen proposamena bitxia da; izan ere, bi familiak osatutako taldea da, jolas moduan hasi zena eta gaur egun zuzeneko-koetarako eskaintza asko jasotzen duena. Hala dio Asier Elortzak: "Zortzi lagun gara, bi aita, bi ama eta gure seme eta alabak. Martitzenean grabatu genuen guk, publiko barik, arraro samarra guretako ere; hala ere, oso berezia eta polita izan da gure seme-alabekin gaztetxean jotzea. Folk estiloko kantu ezberdinak eskainiko ditugu: Irlandakoak, Suediakoak eta euskaldunak. Lasai hasi eta indartsuagoekin jarraituko dugu".

24 orduz Xaxauren kanalean

Egitarauan jasota dagoen datan estreinatuko dituzte kontzertuak *online*, eta 24 orduz izango dira; musikariek erabakiko dute gero euren profiletan argitaratzea.

Film laburren XVIII. lehiaketa

Alarma egoerak baldintzatuta, ezingo dute modu presentzian sarietako film laburren emanaldirik eta sari banaketa ekitaldirik egin; hori horrela, *streaming* bidez egingo dute –Xaxau konpartsak Youtuben duen kanalean– etzi, domeka, 20:00etan emanaldia eta gauerdian sari banaketa.

Oinarrian, orain arteko ezaugarriak ditu; honela dio antolaketa taldeko losu Agirrek: "*Xaxau* da filmean derrigorrean agertu behar den objektua eta erabili beharreko esaldia; *Simonek dio* da. Bost minutukoak beharrez, hiru minutukoak egitea eskatu dugu, deialdia ohi baino beranduago egin dugulako. Gaur da filmak bidaltzeko azken eguna, *Xaxaukomunikazio@gmail* helbidera".

ESTELLA
FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.
Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

Aurtengo Bergarako jaiak bihotzez ospatuko ditugu!
Guztion artean lotuko dugu!

alet
BERGARA

www.alet-taldea.com
Tel.: 943 765 815
620 56 13 16
669 36 69 53

Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Aerotermia

Autokontsumoko instalakuntza fotovoltaikoetan eta litiozko baterietan adituak gara.

Gora bergararrok!

Pentekoste jaietako zapitxorik gabe geratuko dira herriko jaioberriak

Pentekoste jaietako jaioberrien ongietorria bertan behera geratu da aurten, halaberrez. Izan ere, hitzordu berezia izaten da hori bergarar askorentzat; edozelan ere, aurrerago egiteko esperantzarekin azaldu dira herriko zenbait guraso

Naroa Urien Berrio BERGARA

2011n hasitako tradizioari jarraiki, Pentekoste jaietan ongietorria egitekoak ziren haur jaioberriei. Iazko jaietatik aurtengo jaietara arte jaiotako haurrei egingo liekete gonbita. Egun horretan, Pentekoste jaietako zapitxoa ematen zaie jaioberriei, udaletxeko areto nagusian, eta Bitorianatzorekin argazkia ateratzen dute askok. Baina koronabirusaren krisiaren ondorioz, bertan behera geratu da aste honetan gauzatuko zen

ekintza. Ainhua Lete zinegotziak azaldu duenez, "egitaraua guztia bertan behera geratu da, jaioberrien ongietorria barne, eta, momentuz, hurrengo urtera arte, ez da beste datarik aurreikusten".

Ekitaldi berezia herritarrentzat

Hamargarren edizioa izango zen aurtengoa; 2011n jaietako batzordean jasotako proposamena du oinarrian. Pena handiz hartu dute erabakia herritarrek; bereziki, aurten guraso bilakatu diren familiek. Ekitaldiaren

helburu nagusia "jaioberriak jaietan integratzea" da, eta zapia erabiltzen da horren adierazgarri. Ilusio eta emozio handiko ekitaldia izaten dela azaldu du berriki ama izan den Intza Zabaleta bergararrak: "Azkenengo

HAMARGARREN EDIZIOA OSPATZEKO ZEN, BAINA KRISI EGOERAGATIK BERTAN BEHERA GERATU DA



Intza Zabaleta, Iker Agirre eta Jule Agirre Zabaleta. I.Z.

urteetan lagunen umeak ikustera joan gara jaioberrien ongietorri ekitaldira, eta egun oso polita izaten da. Pena da guk ezin egitea. Iker nire senararentzat eta biorentzat oso berezia da ekitaldi hori. Herrian egiten diren hainbat ekintzatan parte hartzen dugu, eta gogotsu geunden aurten Julerekin batera ekintza honetan egoteko. Ea aurrerago egiteko aukera dugun".

Gurasoak, pena handiz

Ilusio handia zuten gurasoek, baina egoera ulertzen duela eta

orain beste kontu garrantzitsuetan pentsatu behar dela azaldu Zabaletak: "Nork esango zuen orain dela lau hilabete egoera horrela egongo zenik! Baina mentalizatu gara dagoeneko. Gure bizimodua asko aldatu da; beraz, aurreikusten genuen bertan behera geratuko zela. Momentu honetan beste kontu batzuk garrantzitsuagoak direla uste dut. Dena hobierantz badoa, agian, aurrerago egiteko aukera dago. Ekitaldi polit honetaz gozatzea bikaina izango litzateke".



Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Su ere bergararrekin!

Leizeaga 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84



efizientzia energetikoa **dirulaguntzak**



irigarritasuna **igogailuak**



ondare arkitektura

jai zoriontsuak!



zetabi
arkitektura bulegoa

zetabi@zetabi.eu 943 76 53 09



Mariaren Lagundia Ikastola • Bergara
MARIAREN LAGUNDIA

Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta egiteko Erdi Mailako Zikloa

Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloa

**Ekainaren 1etik 19ra arte on-line
Idazkaritza ekainaren 4tik zabalik
09:00etatik 14:00ak arte**



AURREMATRIKULAK

**Eraiki dezagun.
Zentzuz.
Elkarrekin.**

Mariaren Lagundia Ikastola
Espoloia Kalea1,20570 Bergara
T: 943762540

mlagundia.org
idazkaritza@mlagundia.org
koordinatzaileagmhz@mlagundia.org





Antzuolako Mairuaren Alardearen ekitaldi nagusia plazan. GOIENA

Ohiko festak ezin izango dira egin, gaur-gaurkoz

Alarma egoerak guztiz baldintzatu ditu ekitaldi jendetsuak eta, bereziki, herrietako jai nagusiak. Fase batetik besterako aldaketak zein neurri ekarriko dituen oraindik ez jakin arren, ohiko festak egitea zaila izango dela aurreikusitako du Jai Batzordeak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Asteon, bilera telematikoa egin du Jai Batzordeak. Herriko jaiak ate joka dauden honetan, zalantza asko daude, eta aurtengo jaiak nolakoak izango diren erabaki zehatzik ez dutela hartu adierazi dute.

Mairuaren Alardearen Elkarteak ere ez du adierazpen ofizialik kaleratu –datozen egune-

tarako iragarri du—. Hala ere, zaila izango dela egitea jakinarazi dio GOIENARI: "Alardea antolatzen gabiltzanon artean nekez ikusten dugu, gaur-gaurkoz, ohiko Alardea egin ahal izatea aurten". Udalak ere erabaki zehatzik ez du hartu, eta, oraingoz, ez dago adierazpen ofizialik. "Udalak eta Jai Batzordeak erabaki dute aurten herri-

ko jaiak ez direla beti bezala ospatuko; hala ere, datak gerturatu ahala ekintzaren bat egiteko baldintzarik balego, antolatzen saiatuko ginateke", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Bitxikeria gisa, gogora ekarri behar da 36ko gerraren ondorioz, 1937an eta 1938an Mairuaren Alardea eta herriko jaiak bertan behera geratu zirela.

Triki-bertso kalejira, babes neurri zorrotzekin, bihar


Irati Gardoki, Lierni Errasti eta Garazi Kortabarria trikitilarien laguntzarekin bertso saio ibiltaria egingo da bihar. Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Miren Amuriza bertsolariek 12:00etan Herriko Plazan hasiko dute saioa. "Arauk aldatu dira, eta plazan egingo dugu, aukierkin eta distantziak mantenduta. Jendea eserita eta maskararekin

egongo da. Zutik ezin da egon, ezta mugimenduan ere. 30 minutuko saioaren ostean, udal ibilgailuan joango dira auzoetara. Jendeari eskatu gura diogu ez joateko atzetik. Balkoietan zein terrazatik ahalko dute gozatu. Boluntario taldea egongo da zaintzen eta saio amaieran aukietatik noiz altxatu abisatuko dute", argitu du alkateak. Plazan tokirik ez duenak auzoetan entzun beharko du; bestela, www.bertsoa.eus webgunean ikusteko aukera izango dute.

Elkarteak, oraingoz, itxita

Antzuolako elkarte gastronomikoez denek batera zabaltzeko proposamena dute esku artean aztergai. Proposamena zehazteko eta adosteko, baina, elkarte guztietako ordezkariekin batzarra egingo dute. Izan ere, elkarte bakoitzaren azpiegitura eta egoera oso da ezberdina.

Batzarra noiz egin zehazten dihardute, oraingoz.



A.M.

Udalak herritarrei maskara bana emango die

Asteon, iritsi dira Antzuolara Udalak eskatutako maskara berrerrabilgarriak eta homologatuak. Zehazki, herritar bakoitzarendako bana iritsi da, eta datozen egunetan banatuko ditu Udalak. "Herritarrek udaletxera etorri beharko dute maskara jasotzera. Eskatzen dugu, ordea, etxebizitza bakoitzetik bat etortzea, pilaketak saihesteko", dio alkateak.

Etxebizitzan bertan bizi direnen errolda-agiriaren arabera banatuko zaizkio herritarrei tokatzen zaizkion maskarak.

COVID-19ari aurre egiteko onartutako dirulaguntza poltsatik bideratu dute maskara erosteko aurrekontua: "6.000 euro inguru bideratu ditugu laguntza poltsatik. Gure herritarren osasuna zaintzea tokatzen zaigu, eta alarma egoera amaitu arte iraungo dutelakoan gaude; izan ere, berrerrabilgarriak dira eta 300 bider garbitu daitezke".

Ohiko udalekuak ere, zalantzan

Argazkian ikusgai duzuen moduko irudia zaila izango da aurtengo Antzuolako jaietan errepikatzea. Izan ere, udaleku irekien azken festa ez dute aurten herriko jai nagusian ohiko moduan ospatuko.

Udalak jakinarazi du ohiko udalekuak ospatzea nekez ikusten duen arren, gaia aztertzen diharduela. Idolazekin elkartuko dira iritzia jasotzeko.



Antzuolako udalekuen amaiera jai. GOIENA

Haur eskolako izen-ematea zabalik dago ekainaren 8ra arte

Haur eskolako izen-ematea zabalik dago ekainaren 8ra arte. Hezitzailea bertan dago itzulera prestatzen eta eraikina ikusteko aukera ere badago aurrez txanda hartuta. Hezitzaileari informazioa eskatzeko edo harremanetan jartzeko bideak hauek dira: antzuola.antzuola@haurreskolak.eus helbidea eta 943 78 60 15 telefono zenbakia.

Liburuak maileguan hartu ditzakete herritarrek

Torresoroako liburutegiaren ohiko zerbitzua eta jarduna gelditu, etenda dago. Hala ere, liburuak maileguan –etxera eramateko aukera– eskatu ahal izango dituzte antzuolarrek. Eskerak egiteko honako bideak daude: telefonoz deituz, *whatsapp*-a bidaliz (673 90 53 28) edo *liburutegia@antzuola.com* helbidean eskaera eginez.

20.000 euro COVID-19ak eragindakoak arintzeko

Modu telematikoan egin dute osoko bilkura, eta aho batez hartutako neurrietako bat da hori. 2019ko gerakineko 63.000 euro zertara bideratu eta Kutxabank bulegoaren itxieraren aurkako adierazpen instituzionala adostasun osoz onartu dituzte

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

COVID-19ak Elgetan eragindako kalteak arintzeko bi dirulaguntza lerro sortu ditu Udalak. Partidarik handiena -15.000 euro-merkatariari, ostalariei eta negozio txikiei bideratutakoa da. Iraitx Lazkano alkateak azaldu du eskatzaileek hileko 400 euro jasotzeko aukera izango dutela galdutako jarduna osoa izan den kasuetan. Hileko beste 100 euroko laguntza aurreikusten da jardun osoan kontratatutako langile bakoitzeko. "Datu absolutuak dira, eta modu proportzionalan aplikatuko dira", azaldu du alkateak.

Bigarren dirulaguntza lerroa -5.000 euro- familien kontziliaziora bideratzen da; izan ere, 12 urtera arteko seme-alaben edota dependentzia duten pertsonen zaintzara bideratutako laguntza da. Hileko 250 euroko laguntza dago aurreikusita kontziliazio kontuak tarteko pertsona bat kontratatu bada -jardun osoan-



Udalbatzako kideak martitzenean modu telematikoan egindako osoko bilkuran. L.Z.L.

edota lanean jardunaldi osoko murrizketa hartu bada. Kopuru absolutuak dira, eta modu proportzionalan aplikatuko dira. "Eskari gehiago balego adostutako diru kopuru totala baino, modu proportzionalan banatu-

ko da", zehaztu du Lazkanok. Oposizioaren adostasunarekin onartutako neurria da. "Ondo justifikatu beharko dira gauzak, eta beste erakundeetatik ere egongo dira laguntzak, baina Udalak, bere neurrian, laguntza-

txo bat ematea ondo iruditzen zaigu", esan zuen EAJko bozeramaile Aintzane Oiarbidek.

Hondakinen tasan ere laguntza

Laguntza zeharka emateko beste aukera bat ere baliatuko du Udalak; izan ere, alarma egoeratik derrigorrez itxita egon diren negozioek 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion hondakinen tasa ez kobratzeko eskaera egiteko aukera izango dute. Eskaerak udaletzeko erregistroan zein posta elektronikoz egin daitezke. Neurria begi onez ikusi du oposizioak.

Kezka enpresen egoerarekin

Jeltzaleek, hala ere, kezka agertu dute enpresen egoerarekin. "Garrantzitsu deritzogu industrialdean dauden enpresen egoera zein den jakiteari. Komeni da guztiak zerrendatzea eta ikustea zein egoeratan dauden. Lanpostuak daude jokoan, eta ez da lagata uzteko moduko kontua. Gainera, Udalak diru-bilketan izan dezan eta zerbitzuak eman ditzan beharrezkoa da jarduera ekonomikoa egotea herrian".

Ados agertu zen alkatea. "Lanketa orokor horretan dabil Garapen Agentzia. Sektore ezberdinetako enpresen egoera zein den eta aurreikuspenak zeintzuk diren ikusten ari da. Hurrengo xostena entregatzen digutenean landuko dugu gaia; izan ere, hurrengo bi urteetan, gutxienez, gai oso potoloa izango da".

Gerakinaren erdia, bideratuta

Udalak 131.000 euroko gerakinarekin itxi zuen 2019ko ekitaldia. Hala, udalbatzak hainbat erabaki hartu ditu partida horretako 63.000 eurori dagokienez. Erabaki dute 24.200 euro udal langile baten aurretiazko erretirora bideratzea. Gainerakoan, 20.000 euro COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko dirulaguntzetarako izango dira, 8.800 euro hilerriko kolunbarioaren lanetarako, 5.000 euro haur eskolako galdara berritzeko, eta beste 5.000 euro baserriarren batzordeko lanetarako.

Kutxabank auzia

Gai honetan ere bat datoz bi talde politikoak, eta bulegoa ixteko erabakiaren aurrean adierazpen instituzional bateratua onartu dute. Bertan, elgetarren gaitzespena adierazten diote Kutxabank erakundeari. Atzera egin eta bulegoa mantentzeko eskaera egiten diote. Gaineratzen dute Udalak ahalegina egiten jarraituko duela bulegoa itxi ez dadin, eta adierazten dute Xalbadorpe erretiratuen elkartearen sinadura jasotzearekin bat egiten dutela.

2019KO GERAKINETIK FINANTZATUKO DIRA LAGUNTZAK, ETA ESKAERAK EGITEKO EPEA ZABALIK DA

Ferixa Nagusiko jaiak bertan behera, koronabirusagatik

Gaia herriko hainbat eragilarekin landu ostean hartutako erabakia dela esan du Iraitx Lazkano alkateak

L.Z.L. ELGETA

Herriko elkarteekin, ostalariekin eta jai batzordeetan parte hartzen duen jendearekin egin dute lanketa jai batzordean. "Iritziak eta ekarpenak jaso nahi genituen eta denbora hartu dugu horretarako. Jendeak, orokorrean, ulertzen du ez dagoela jaiak bertan behera utzi beste erremediorik", esan du alkateak. "Kontziente gara oso arina den programazio bat antolatuta ere jende pilaketak egongo direla. Azken aste pare honetan ikusi dugu beste herri batzuetan zer

gertatu den. Ikusten dugu ezin dugula segurtasuna bermatu".

Ostalariek ere antzerako iritzia dutela esan du Lazkanok. "Erabaki honek eragina izango du, baina tabernek ere hainbat lege bete beharko dituzte, eta jaiak antolatzeak zailtasunak ere ekar diezazkieke". Jaietan boluntario lanetan ibiltzen direnei buruz esan du: "Nahikoa lan izaten dute bestela ere gainetik jendearen segurtasuna, distantziak mantentzearen ardura eta hala-koak gehitzeko. Ezin dugu hori bermatu".

Gure Bordako bazkideek erabili dezakete elkarte, berriz ere

Herriko elkarte gastronomiko txikiak da; gainerakoek denbora behar dute araudia nola bete ondo aztertzeko

L.Z.L. ELGETA

Gure Bordako bazkideak egunotan ari dira abisua jasotzen. Hainbat baldintzarekin bada ere, Asentziora dagoen elkarteko zuzendaritzak erabaki du erabilera baimentzea. "Aurrez erreserbatuta eta garbitasun eta distantzia neurriak errespetatuz" beharko du, eta, "beharrezkoa bada, maskarekin". Alkoholdun gela eta botatzekoak diren mahai-zapiak eta ezpain-zapiak ipini dituzte. "Erabili ostean bazkideek lixibarekin garbitu beharko dute dena", esan dute. Bazkide gutxi

dira, eta aire zabaleko eremua erabiltzen dute askotan.

Gainerakoak, egoera aztertzen

Ozkarbin lasai hartuko dute kontua. "Bazkide batzuek galdetu dute, baina, oraingoan, itxita dago elkarte", esan du Zuhaitz Uzuriaga presidentea. "Arautegia ondo aztertu behar dugu eta ikusi behar dugu nola bete. Garbitasun kontuetan, esaterako, oso zorrotza da, eta eskatu dugu aurrekontu bat. Erabaki beharko dugu, baita ere, elkarte gutzia zabaldu edo solairuren

bat. Goikoa bakarrik? Behokoa bakarrik? Seguruena, hurrengo astean elkarteko gara kontua ondo aztertzeko".

Oraingoan, itxita dago, baita ere, Mendi Mendia elkarte. "Bazkide batzuk galdezka ari dira, baina erantzun argirik gabeko zalantza ugari ditugu oraindik", esan du Jose Ignacio Manso presidentea. "Elkarteak 52 metro koadro ditu. Uste dugu 8-10 pertsona egon daitezkeela batera, baina zenbat mahaitan? Maskarekin? Erabiltzaile aldatuta dagoen aldiro garbitzaileak joan beharko du? Donostiako beste elkarte batzuekin kontaktuan nago, ea irizpide garbirik jasotzen dugun".

Intxorta elkarteko zuzendaritza asteon elkartu da. Lerrook idazterakoan, amaitzeke zegoen batzarra.



Gaztetxeko batzuk joan den urteko arte udalekuetan Ugarkalden. GOIENA

Beste dinamika bat izango du udako aukerak

Udaleku irekietan eta arte udalekuetan izena eman zuten umeek izango dute aukera udako zaintza hezitzailean parte hartzeko; ez dute ume gehiagorik hartuko. Norbaitek atzera egin gura badu, datorren astean egin behar du horretarako eskaera

Oihana Elortza OÑATI

Udaleku irekiak, arte udalekuak eta uda kanpaina bertan behera gelditu dira, baina *Udako zaintza hezitzailea* aukera prestatzen ari da Udala, "egoerara eta beharretara egokitutako zerbitzua, segurtasuna bermatzea lortzen bada eta dekretuak eta jarraibideak kontuan hartuta".

Hainbat topagune

Zerbitzu hori ekainaren 29tik uztailaren 24ra eskainiko da, baina baditu aurreko urteetako udalekuekin alderatuz hainbat desberdintasun: batetik, taldeak txikiagoak izango dira; bost umeko taldeak egingo dituzte. Topalekua ere ez da gaztelekua izango, herriko gune ezberdinak baizik. Hau da, litekeena da taldeak San Lorentzon, Olakuan, Errekalden, Kale Zaharreen, plazan edo herriko beste edozein gunetan elkartzea; beti bezala, hori bai, elkartutako toki berean agurtuko dira goizeko jarduna egin ostean.

Udako eskaintza hau ere goizetan egongo da, baina lau ordukoa izango da hirukoaren ordeiz: 09:00etatik 13:00etara. "Lehengo zaintza zerbitzua ez da egongo, baina kontziliazioari begira ere iruditu zaigu lau orduko jarduna eskaintzea lagungarria izango dela", dio Haur eta Gazteria zinegotziak, Iker Oñatek.

Udako zaintza hezitzaileak izango duen dinamika ez da aurreko urtekoen bera izango, eta dagoeneko ari dira izango den hori diseinatzen eta lantzen. "Erabiltzen den materiala, esaterako, ume askoren eskuetatik pasatzen da, eta, horrenbestez, ekintza batzuk ezingo dira betiko moduan, behintzat, egin.

DEKRETUEK ETA OSASUN-ADITUEN JARRAIBIDEEK KOPURUA MUGATZEA EKAR DEZAKETE

Oinherri elkartekoen laguntzarekin, adibidez, ari gara dinamika berria prestatzen", gaineratu du Oñatek.

100 begiraletik gora

Begiraileen izen ematea astean itxi da eta 100 lagunek baino gehiagok eman dute izena. Orain, umeen kopurua zehaztu gura dute. Udaleku irekirako eta arte udalekuetarako izena emandako umeen zerrenda hartuko dute; ez dute ume gehiagorik hartuko. Dena den, Oñatek azaldu duenez, argitaratzen diren dekretuek edo osasun-adituen jarraibideek kopurua mugatu beharra-edo ekar dezakete, eta gerta daiteke adin muga aldatzea.

Izena emanda izan arren iritziz aldatuz gero, datorren astean egin behar da jakinarazpena, eta dirua bueltatuko da. Eskaerak HAZ bulegora joanda edo udal webgunean sartuta egin behar dira. Zaintza zerbitzuaren kuota ordaindu dutenei ere bueltatuko diete diru kopuru hori.

Kultura krisien mahaian egon behar litzatekeela uste du EAJk

Sektore horri laguntzeko aukerak "denen artean" lantzea gura du, eta egindako hiru proposamenei eusten die

O.E. OÑATI

"Kultura sektoreko herritarrei ere laguntzeko erabakiak alde guztien artean" hartzea gura du EAJk, eta "garbi" ikusten du kulturak ere pandemiaren krisiari aurre egiteko sortu den mahaian berezi horretan egon behar lukeela, "sozioekonomiako eta gizarte zerbitzuetako gaiak dauden moduan".

Jeltzaleen hiru proposamenak

Neurri Berezien Mahaian proposatu du EAJk kultura foro bat egotea; osoko bilkuran ere aipatu zuen foro horren beharra Amaia Erostarbe zinegotzi jeltzaleak. Jeltzaleek kultura arloko herritarrei laguntza emateko hiru proposamen egin dituzte, baina "gehiago ere egon daitezkeelako eta denak denen artean aztertzeko", foro hori sortu eta bertan horrelako erabakiak hartzea da planteatu dutena; Kultura teknikaria eta herriko kultura eragileak egotea ere gurako lukete.

Alderdi jeltzaleak hiru proposamen egin ditu kultura sektoreari laguntzeko gai honen inguruan. "Hirurak daude mahai gainean eta hirurei eusten die-

gu", adierazi du Erostarbek. EAJk proposatutako hiru bideak hauek dira: lehenengoa, herriko kultura-sormena –herriko talde txikiena– lagundu eta sustatu; emanaldi presentzialak hasten diren bitartean, birtualak eskaintzeko diru partidabat sortzea. Bigarrena da kontratatuta zeuden emankizunei eustea eta artistei ordaintzea; emanaldiak atzeratzea, eta artistei lanaren ordainketa arrotzat dauden emankizunak bertan behera utzi ordez. Eta hirugarrena, Oñatiko herriaren bereizgarri diren jaiei, jaialdiei eta kultura-ekitaldiei balioa ematea; herriko jaialdi eta kultura ekitaldiak birplanteatzea, beste modu batera bada ere ospatu ahal daitezten.

Proposatzen jarraitu

Jeltzaleek gaineratu dute proposamenak egiten jarraituko dutela eta gaiak "elkarlanean" lantzea gurako luketela. "Egoera honek luze joko du eta lanean jarraituko dugu, gaiak landuz eta proposamenak eginez, betiko moduan. Erabakiak elkarlanean hartzea ere gurako genuke", esan du Erostarbek.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

Tximeleta-efektua

Asteotan pandemiak erakutsi digu berriz ustezko orekan bizi garela, nahikoa dela kanpotik etorritako ezer gurean eragin dezan, dena irauliz, XXI. mendeko tximeleta-efektuaren bertsio madarikatuan.

Eta gogora datozkit senideengandik agurtu gabe hildako gaixoak, bozina joz egunero ogia eta umeentzat flauta goxoa dakartzan okina, indar guztiak eta bizitza eman duten osasun-langileak, bizilagunen txaloak eta Egoitzek tronpetaz piztutako haurren urtemuga gazi-gozoak, zahar-etxeetan itxialdi bikoitza bititako adinekoak, etxe-kartzelan sentitu diren umeak, telelana eta haur-zaintza bateraezinak direla halabeharrez ikasi duten gurasoak, eta etorkizun iluneko langileak, lana galdu baitute egunotan. Ansietatez gaixoak, Agurtzane eta Jasonerekin hartu gabeko kafeak, musukorik gabe bagoi jendetsuetan lanera joan behar izandako langileak eta eman gabeko musu eta besarkadak, egiten genuen moduan, goxotasunean, berotasunean, normaltasunean. Itoizek hala zioen kanta batean, *denborak sendatzen du dena...* agian ez.



Auzo erdigunean dago ostatua izango dena, elizaren ondoan. O.E.

Instalazio lanak hasi dituzte Araozko ostatuan

Lehen fasean, eraikinaren estruktura konpontzeko lanak eta barruko distribuzioa egin zituzten, eta bigarren honetan, iturgin, elektrizitate eta igeltserotza lanak ari dira egiten, besteak beste. Lan horien ostean, barrua altzariz hornitzea baino ez da faltako

Oihana Elortza OÑATI

Bigarren eta azken faseko lanak esleituta eta egiten hasita daude, eta, horrenbestez, aurrera doaz Araozko ostatua egiteko obrak. Aretxabaletako Eco-Silma enpresa ari da lan horiek egiten eta bost hilabete izango ditu bukatzeko.

Bigarrena eta azkena

Lehen faseko lanak ere Aretxabaletako enpresa berak egin zituen. "Teilatua konponduta zegoen aurretik, eta guk paretak txukundu, leihoak egin, lur zorua zaindu eta estrukturarri dagokion lanak egin genituen. Baita barrua berrantolatu ere", dio Eco-Silma enpresako Mariako Romero aparejadoreak.

Bigarren fase honetan, berriz, eraikin barruko instalazioak egiten dihardute: iturginak, elektrikariak, igeltseroak, artzak... ari dira lanean. Dena utziko dute prest altzariz janzteko. Izan ere bigarren faseko lan hauek azken faseko ere

badira. Bukatzen dituztenean, ostatu barrua behar diren altzariz eta gailuz janztea bakarrik faltako da. Esleipen hori, baina, beste bat izango da, aparte egingo dute.

Errepublikara garaian nesken eskola izandako eraikina solairu bakarrekoa zen lehen, dena zen gela handi bat. Ostatuak, ordea, bi solairu izango ditu: behean taberna eta irisgarria den apartamendu bat egongo dira eta goian, beste hiru apartamendu turistiko. "Ederrak dira goiko espazioak. Apartamendu batek, esaterako, 55 metro karratu ditu, eta besteek ez askoz gutxiago. Bina gela, sukaldaria eta bainugela ditu bakoitzak. Oso apartamendu ederrak

OÑATIKO UDALAK ETA ARAOTZ AUZOAK PROIEKTU HASIERAKO HITZARMENA BERRETSI DUTE

dira, toki asko dute eta oso argitsuak dira, gainera. Denek dituzte leihoak", dio obrako aparejadoreak.

Berriz sinatu dute

Proiektu honen finantzaketan hiru alde daude sartuta: Jaur-larritza, Oñatiko Udala eta Araoz auzoa. Ia 700.000 euroko proiektua da; erdia Jaur-larritzak jarriko du eta beste erdia Udalak eta auzoak erdi bana. Hain zuzen ere, erdi banako finantzaketa jasotzen duen hitzarmena sinatu zuten alde biek proiektuari hasiera eman ziotenean, eta bigarren fasea hastean, berriz sinatu dute. Diru kontuaz gain, baina, alde bakoitzaren ardurak zeintzuk diren ere jasotzen du akordio horrek. Horrela, auzoak Udalarai eraikinaren lagapena doan emango dio hamar urtetarako. Epe hori pasatzen denean auzoari itzuliko dio Udalak, baina 20 urtean ezingo du saldu eta erabilera hitzarmenak jasotako modukoa izango da.

Txiki Txoko haur eskolan zabalik dute umeen izen ematea

Txiki Txoko haur eskolan zabalik dute dagoeneko datorren ikasturterako izen ematea. Bi bide zabaldu dituzte horretarako: www.haurreskolak.eus webgunean sartuta eta Olakua auzoan dagoen eraikinera bertara joanda; ekainaren 1etik 8ra egin ahal izango da han. Informazio gehiagorako: 943 71 64 05 edo oinati@haurreskolak.eus.



Martxoaren aurretiko agerraldia. GOIENA

ZUZENKETA

Aurreko asteko GOIENA aldizkarian, 11. orrian Isabel Morenori egindako elkarrizketan, gaizki publikatu genuen erantzunetako bat. Azken galderaren erantzun zuzena hauxe da: "Gurako gurek bailarako udalak eta Mankomunitatea aitzindari izatea estatu mailan, biztanleen osasuna zaintzen eta bermatzen dutelako".

Barkamena, beraz, Isabel Morenori, publikatutako erantzun okerrarengatik.

Elkarretaratzeei ekingo diete erretiratuek

Astelehenetik aurrera, asteroko elkarretaratzeak egingo dituzte herriko pentsiodunek eta erretiratuek Foruen plazan. 12:00etan izango dira gero ere, eta maskara jantzita eramatea eta bi metroko aldea mantentzea eskatzen dute. Asteleheneko elkarretaratzean, COVID-19arekin gaixotu edo hil direnak eta osasuneko zein egoitzetako langileak omenduko dituzte.



Ile apaindegia itxi egingo dugu, erretiroagatik.

Gure ibilbide profesionalean ondoan egon zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Ondo izan eta zaindu!

Zubibarri 4 - Oñati



Eskola Kiroleko jardunean Zubikoako kantxa urdinean, pasa den abenduan. O.E.

Eskola Kirolaren azken jaia gaur da Zubikoan

Konfinamendu egoerara egokituta, urteko egutegia bete egin du Oñatiko Eskola Kirolak, eta gaur, egubakoitza, azken jaia egingo dute Zubikoako kantxa urdinean. Txandaka sartuko dira umeak euren dako bereziki prestatuko oparitxo hartzera

Oihana Elortza OÑATI

Ikasturte amaierako azken festarekin amaitu izan da urteroko Oñatiko Eskola Kirola, eta aurtentzen ere horrela izango da. Festa, baina, ezohiko egoera honetara moldatuta egongo da, azkeneko asteetako jardunak bezala. "Berme guztiakin egingo da", dio Rosa Lasagabaster teknikariak.

532 ume ikasturtean

Lau txoko ezberdinetan mahaiak eta umeen maila adierazten duten kartelak jarriko dituzte. "Ume bakoitza dagokion txokora joango da eta han euren dako bereziki prestatu dugun poltsa bat jasoko dute. Sarrera eta irteera ezberdinak izango dira, zapa-tuetan azoka egiten den moduan, berdin. Eta barrura sartzeko ilaran egon beharko dute, eta txandaka sartu. Ez da jende pilaketarik egongo kantxa barruan, azokan egiten den moduan funtzionatuko dugu guk ere", azaldu du Lasagabasterrek.

Umeak ez ezik, gurasoak ere gonbidatuta daude azken jai honetara. Baita Udaleko, Aldundiko, Aloña Mendiko eta bestelako elkarte eta erakunde ezberdinetako ordezkariak ere. "Guztion arteko proiektua da Oñatiko Eskola Kirola, eta, beste urteetan egin dugun moduan, aurtentzen ere gonbidatu ditugu etortzera eta gurekin batera umei oparitxo bana banatzera".

HH-5etik LH-6ra bitarteko 532 ume ibili dira aurtentzen Eskola Kirolean, eta guztiendako egongo da opari bana. 12:00etatik 13:30era HH-5etik LH-2ra bitartekoak; eta 16:00etatik 18:30ak artean LH-3 eta LH-6 artekoak. Ezin dutenek 10:00etatik 19:30era joan ahal izango dira.

AZOKAN MODUAN, SARRERA-IRTEERAK EZBERDINAK IZANGO DIRA ETA TXANDAKA SARTUKO DIRA

Balorazio positiboa

Oñatiko Eskola Kirolak egutegiari eustea erabaki zuen eskolak eten zirenean. "Uste dut erabaki ona hartu genuela, pozik nago hori egin izanaz. Egutegiari eutsi diogu eta saiatu gara zapatu guztietarako kirol proposamen ezberdinak egiten umei eta gurasoei. Egia da ez dakigula zenbatek jarraitu duten egiten, baina badakigu harrera ona izan duela. Gainera, proposamenak eta erronkak prestatzerakoan kirol talde ezberdinen laguntza jaso dugu. Esaterako, Oñatiko Orientazio Eskolarena, Arrasateko Rugby Taldearena eta boleiboleko federazioarena, adibide batzuk aipatzearen. Sekulako laguntza izan dugu, jendeak jarrera ona izan du, bat egin du egitasmoarekin, eta hori oso pozgarria izan da", dio Eskola Kiroleko udal teknikariak.

Gaur bukatuko da aurtengo programa eta datorren urteari begira jarriko dira laster, zer eta nola antolatuko pentsatzeko.



Gaztetxo batzuk espeleotxiki ekintzan parte hartzen koba barruan. GOIENA

Arrikruzteko kobak, ibilbide turistikoaren finalistaren artean

'Turinea' webguneak aukeratutako lehen hamarrenetan daude eta jendearen botoekin aterako da irabazlea

O.E. OÑATI

Ibilbide turistikoaren hamar finalista aukeratu ditu *Turinea* webguneak, eta horien artean dago Euskal Koben Ibilbidea, eta Arrikruzteko kobak ibilbide horretan daude.

Arrikruzteko kobekin batera, Lurpea elkartearen dauden kobek eta Santimamiñek osatzen dute Euskal Koben Ibilbidea, eta aukera hori da ibilbide turistikoak proposatzen dituen webgune horrek finalerako aukeratu duenetako bat. Jendearen botoek erabakiko dute, baina, irabazlea zein den. Horretarako, *www.*

turinea.com helbidean sartu behar da, eta botoa eman. Maiatzaren 31, datorren domeka, izango da botoa emateko azkeneko eguna.

Autobusa domekatik aurrera

Bide batez, Oñati eta Arantzazu lotzen dituen autobus zerbitzua domekan, hilak 31, hasiko da berriz martxan. Udako ordutegia izango du, eta egun guztian arituko da ibilbidea egiten. Gainerako autobusetan bezala, maskara eraman beharko dute erabiltzaileek. Domeketan eta jaiegunetan egongo da zerbitzua.



O.E.

Margotzea bakarrik falta da

Lurzoruan erretxina bota dute aste honetan Olakuako kirolgunean, eta, behar bezala lehortzen denean, futboleko eta saskibaloian egiteko eremuak margotuko dituzte. Argiteria berritu egin dute gune horretan, saski eta ate berriak jarri, arrapalak ere egin dituzte eta hesia jarri ere bai ate atzean. Partaidetzako aurrekontuan ateratako proiektua da.

Egin tokiko komunikabideen alde

Egin Goiena Klubeko bazkide



Anima zaituz, egin zaituz Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- **Deskontuak** hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilia.
- **Puntuak** aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- **Zozketak**: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- **Deskontuak** *Iragarki sailkatuak atalean*, Goiena aldizkarian.
- **Deskontuak** eskelak jartzean Goiena aldizkarian.

Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- **30 euro bakarrik** kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrea.
- **%30 merkatuko zaizu bazkide** kuota errenta aitortzen egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jardura izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- **Maskara jasagarria** jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)



BAZKIDE EGITEKO:

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus





Otsailean Bergaran egindako Gipuzkoako Txapelketarekin –irudian– amaitu zuten igerilariak denboraldia. GOIENA.

Uztailera arte ez dute igeri egingo

IGERIKETA Bergarako eta Aloña Mendiko ia 200 igerilari inguruk –federatutakoak– bestelako kirol jarduerak praktikatzen jarraitu beharko dute, Debagoieneko igerilekuek itxita jarraitzen dute eta. Itsasora joaten hasi dira, sentsazioak errekupekatzen hasteko

Xabier Urzelai ARRASATE Bigarren fasean sartzeak eman dituen aukera berriak baliatzen dabilza Debagoieneko kirolariak euren kirol jarduerekin jarraitzeko. Baina denak ez daude egoera berean, Bergarako Igeriketa Taldeko 80 neska-mutikoez eta Aloña Mendik dituen 100 neska-mutikoez –gutxi gora-beherako datua da– oraindik ezin dute eta igeri egin, eta egoera hori ez da aldatuko datozen egunotan, euren entrenamendu toki den Agorrosingo igerilekua oraindik ez dute eta zabalduko –ekain amaieran zabalduko dutela adierazi diete klubeko ordezkariak–.

Hala, GOIENAK baieztatu du Musakolako igerilekuak ere uztaile hasierara arte ez dituztela zabalduko, eta, uda sasoiaren egin ohi duten moduan, orduko kanpoko igerilekuak dira

zabalduko dituztenak; barrukoak ez dituzte udazkenara arte zabalduko.

Hala, ibarreko bi klubetako ordezkariak zailtasun horiek guztiak gainditzen ahalegindu dira. "Hiru hilabetez ura ukitu barik egoteak hankaz gora jarri du igerilarien gorputzaldia, dagoeneko agur esan diogu aurtengo denboraldiari, eta onena da datorren urtera begira pentsatzen hastea", dio Josune Odriozola entrenatzaile oñatiarrak. "Izan ere, ez da orain arte galdu duguna soilik, igerilariak beste hilabetez entrenatu barik

**EUSKADIKO
TXAPELKETAREN
ATARIAN IRAGARRI
ZUEN GOBERNUAK
ALARMA EGOERA**

egongo dira eta. Denbora asko da", gaineratu du Xabi Labaka entrenatzaile bergararrak.

Hilabete hauetan modu telematikoa zuzendu dituzte igerilarien entrenamendu saioak; bereziki, *core* ariketak egin dituzte: "Baina modu horizontalean lan egitea falta izan zaie, eta hori ezin da uretatik kanpora landu".

Igerian egitera, itsaso zabalera
Hala, bigarren fase honetan baimenduta dago probintzia barruan bidaiatzea, eta Bergarako igerilariak hasi dira itsasora joaten: "Entrenamenduetan pentsatzeak ez du zentzurik, gehiago da urarekin osterara ere kontaktuan jartzea, sentsazio horiek errekupekatzea, eta gozatzea", dio Labakak. Oñatikoez, berriz, asteburuan antolatuko dute itsasora lehenengo irteera.

"Oñatikoezkin batzea positiboa izan da"

XABI LABAKA BERGARAKO IGERIKETA TALDEKO ORDEZKARIA

Zelan moldatu zarete konfinamenduan egon garen bitartean?

Beno, ahal duguna egin dugu. Gure kirol jarduera ezin da etxean praktikatu, eta bereziki *core* ariketak egiten ibili gara, modu telematikoa. Bereziki, taldekideekin arteko hartu-eman mantentzen saiatu gara, jendea zelan zebilen ikusten. Hutsetik hasi beharko dugu denok.

Gipuzkoako txapelketa antolatzea izan da klubaren erronketako bat.

Bai; txapelketa otsailean egin genuen, eta, egia esan, aurtengoa egin ahal izan dugun txapelketa bakarretakoa izan da. Txapelketa etxean antolatzeak beti ematen du ardura puntu bat, eta igerilariendako ere ez da gauza bera etxekoan aurrean jardutea. Pena da Euskadiko Txapelketak bertan behera geratu zirela.

Galdutako urtea izan da?

Ez dut uste; martxora arte egindako lanarekin geratzen naiz, uste dut igerilariak oso lan txukuna egin dutela. Orain, ikusi egin behar ikasturtea normal hasiko dugun. Gainera, aurtengo nobedadeetako bat izan da Aloña Mendiko igerilariak ere gurekin entrenatu direla Agorrosin. Antolaketa aldetik hasieran zailtasunak ekarri zituen horrek, eta denok egin behar izan dugu moldatzeko

ahalegina. Baina uste dut guretako oso positiboa izan dela euren ondoan jardutea, maila oso polito igerilariak dituzte Oñatin, eta sinergiak batzeko oso ondo etorri zaigu guri ere.

Itsasora joaten hasi zarete entrenatzera.

Bai, fase berrian baimenduta dago probintzia barruan ibiltzea, eta neoprenozko trajea daukagunok bagabiltza poliki-poliki itsasora igeri egiten. Ura hotz dago oraindik, baina sentsazio ederra da osterara ere igeri apur bat egitea. Hori bai, klub mailan igerilari guztiaren halako irteerak egitea ez da batere erraza.

Zuetako batzuk, gainera, itsas zeharkaldietan ere ibiltzen zarete...

Lasterketa horiek ere bertan behera utzi dituzte, eta ikusteko dago uda ostekoak egingo dituzten ala ez. Igeri egiteko uste duguna baino zailtasun handiagoa dago gurean, eta Bergaratik 20 laguneko kuadrilla ibiliko da itsas zeharkaldietako probetan esku hartzen. Esaterako, Zarautz eta Getaria artean egiten duten zeharkaldian oso giro polita egoten da, herri mailako proba da eta.



Begarako igerilari batzuk, talde erretratuan. BERGARAKO IGERIKETA TALDEA

"Martxora arteko lana ona izaten zebilen"

JOSUNE ORDIOZOLA ALOÑA MENDIKO TALDEKO ORDEZKARIA

Zelan moldatu zarete konfinamenduan egon garen bitartean?

Astean lautan bideo deiak egin ditugu, taldeka antolatuta, eta indar ariketak egiten ibili gara. Baina ez da gauza bera, igerilariok denbora tarte honetan asko galdu dugu. Badakit beste kirol jarduera batzuetan ere badabiltzala, bizikletan, mendira joaten... Baina bai, igerilekuan, ahal dugunean, hutsetik hasi beharko dugu. Dena dela, gauza positiboan artean nabarmenduko nuke taldekide askok komentatu didatena; alegia, konturatu direla zenbat igartzen duten faltan igeri egitea eta eurendako erronka polita dela gutxieneko markak hobetzen joatea, igeri geroago eta hobeto egiten ikastea. Hori entzutea pozgarria izan da niretako.

Euskadiko Txapelketa jokatu ezinda geratu zineten.

Pena eman zigun, Euskadiko Txapelketarako talde polita geneukalako, guztira hamalau igerilari zeuden bertarako sailkatuta [Irati Delgado, Naroa Ibabe, Ane Madina, Ane Pelayo, Izar

Mendizabal, Enaitz Sagasta, Ekhi Lazkanoiturburu, Sara Isasisasmendi, Ane Kortabarría, Eldeder Ibabe, Kepa Aldekoa, Ainhoa Redin, Aitor Diaz eta Aitor Tatiegij]. Bestalde, Kepa Aldekoak eta Enaitz Sagastak Espainiako Txapelketarako gutxieneko markak ere lortuak zituzten, eta eurekin batera beste pare bat igerilari genituen



GOIENA

helburu hori lortzeko oso gutxi falta zitzaiena, esku-eskura zuten. Bada, bai, pena ematen du, baina zer egingo diogu, helburu horiek lortzeko datorren urtean hasiko gara ostera ere gogor entrenatzen.

Galdutako urtea izan da zuendako?

Ez, ez nuke halakorik esango, martxora arte egindako lana oso ona izan da eta. Iaz, pozik geratu nintzen egindakoarekin, eta nire sententzia zen aurtengoa are hobea izan behar zela.

Urte aldrebesa zuena: Zubikoa obretan, ondoren hau...

Bai, halaxe izan da. Urtarrilean gure igerilariak Bergaran hasi ziren entrenatzen, eta horrek nahikoa buruhauste ekarri zituen, bai. Entrenamenduetarako ordutegiak, taldeak... Eta martxoan, COVID-19arekin bertan behera geratu zen dena.

Zuek ere itsasora joateko asmorik bai?

Bai; asmoa da asteburuan egitea lehengo irteera, baina ez da erraza taldeak antolatzea, eta denek dute eskubide bera. Baina ez dira entrenamenduak izango, itsasozan ezin dituzte zuzenketak egin; igeri apur bat egin eta ondo pasatzera joango gara.



Oñatiko igerilariak, Gipuzkoako Txapelketan. GOIENA

Uztailean gura dute motor hotsa itzultzea

AUTOMOBILISMOA Euskadiko Automobilismo Federazioa lanean dabil uztailean lasterketak itzul daitezela. Segurtasun neurriak zaintzeko protokoloa landu dute, baina kontziente dira antolatzaileek arazo handiak izan ditzaketela babesleak bilatzeko

Xabier Urzelai ARRASATE

Uztailearen 10eko eta 11ko asteburuan Zamudioko rallyarekin ekin gura dio ostera ere Euskadiko Automobilismo Federazioak egutegiari. "Rallyen barruan lasterketa gehientsuenak egitea espero dugu", dio Federazioko komunikazio arduradun Eduardo Maturanak. "Baina oso kontziente gara zein den egoera. Eusko Jaurlaritzarekin hartu-eman zuzena dugu, oso sintonia onean gabilta lanean, garbi dago-eta gauzak poliki-poliki martxan jarri behar ditugula, baina, aldi berean, ziurgabetasun handiarekin gabilta denok lanean, egoera goitik behera alda daiteke-eta denbora gutxian".

Hala, lasterketak egiten hasten dituztenerako segurtasun protokoloa landuta daukate: "Distantziak handitu beharko ditugu, esaterako, asistentzian, eta publikoa ere ezingo da pilatu lasterketak ikusteko". Eta horrek zailtasunak ekar ditzake, esaterako, Gorlako Igoeran eta halako probetan. Izan ere, taldeek Bolu auzoko zuzenean jartzen dute asistentzia, eta han ez dago leku askorik: "Halako zailtasunak antolatzaile bakoitzarekin aztertu beharko ditugu, eta ikusi egin behar dugu zeintzuk dauden prest 2020an lasterketa



Agirretxeren eta Intxaustiren BMW autoa, iaz, Aramaion. X.U.

antolatzeko, eta zeintzuk ez. Gure partetik garbi dugu malgutasun handia izan behar dugula antolatzaileekin, eta laguntza guztia eman".

Batzarra antolatzaileekin

Federazioko ordezkariak asteburuan dute antolatzaileekin batzar telematikoa egiteko asmoa, euren ikuspuntua zein den jaso gura dute. "Badakit, esaterako, Aramaioko Rallysprinta antolatzeko asmoa dutela, eta Gatzagako Igoera antolatzeko ere lanean dihardutela, nahiz eta

beste data batzuetan izango den [uztaileko lehen asteburuan egin behar zuten]. Dakidanagatik, Udanako Igoerarik ez da aurten egongo, eta aurtengo nobedadeetako bat izan behar zen Intxortako Igoera ere -A+Gas taldeak antolatu behar zuen- bertan behera utziko dutela babesleak aurkitzeko zailtasun handiak izan dituztelako. Ikusteko dago maiatzaren 23an egin behar zuten Gorlako Igoera uda ostean erreperatuko duten ala ez". Izan ere, babesle barik nekez egingo dute aurrera.

Kirol klubek Elkargiren laguntzak jaso ditzakete

Kredituak eta dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte alarma egoerak sortu dituen galerei aurre egiteko

X.U. ARRASATE

"Orain arte, kirol erakundeek ezin zituzten kreditu-lerro horiek eskuratu, gehienak ez baitira merkataritza-erakundeak; alabaina, Eusko Jaurlaritzak puntu hori aldatu du programaren

azken hedapenean, eta horrek jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko erakundeei ere likidezia erraztea ahalbidetuko du", adierazi du astean Jon Redondok, Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak.

"Funtsezko neurria da"

Hala, Redondok gaineratu du funtsezko neurria dela kirol-erakundeentzat gaur egungo egoeran: "Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak hainbat bilera egin ditu sektorearekin osasun larrialdia deklaratu zenetik eta alarma egoera ezarri zenetik. Eta ikusi dugu likidezia falta dela kirol-entitateen arazo nagusietako bat. Neurri hau lagungarria izango da klub, federazio eta kirol elkarte askorentzat".



Zuk zureztat sortu lanak jaso du sari nagusiaren erdia. EUSPOT



Ondo pentsatu spotarentzako izan da sari nagusiaren beste erdia. EUSPOT

Berdinketa bikoitza, atzo, Euspot-en sari banaketan

'Ondo pentsatu' eta 'Zuk zureztat sortu' iragarkiek erdi bana jaso dute saria potoloa; azken horrendako izan da MUko ikasleena ere; BHKlip saria elkar banatu dute Oihan Loitik eta Lur Bengoak; eta ikusleek 'Zer dago zuk janzten duzunaren atzean?' saritu

A. Aranburuzabala ARETXABALETA Iaz ordura arteko langa gaintu zuten, euskarazko 98 iragarki jasota, eta aurten ez dituzte gehiago lortu; hala ere, antolatzailak "oso pozik" daude jaso duten lan kopuruarekin: 51. "Lehiaketa oso berezia izan da; konfinamenduak eta alarma egoerak pare-parean hartu gaituzte, baina izugarria izan da jaso dugun lan kopuru handia: 18 urtetik beherakoek egindako 24 eta helduen 27 lan", azaldu du antolaketa taldeko kide Goraka Zubizarretak.

Aurreko aldietan moduan, Euskal Herriko leku askotatik jaso dituzte: eskualdekoez gainera, Gipuzkoako herri as-

kotatik, eta baita Bizkaitik eta Nafarroatik beste hainbat ere.

Publikoaren sarirako bozketan, orain arteko errekorra egin dute 2.600 boto jasota.

Nagusia, Eibarrera eta Irunera

Aurtengo lehiaketak janzten dugunaren inguruan hausnarketa egin nahi du. "Kontzientziazio kanpaina baterako spota sortu behar izan dute parte-hartzaileek, moda azkarrak eragiten dituen ondorio negatiboak ikusarazteko. Erosten dugunaren inguruko kontzientzia hartzea da lan berriekin lortu nahi izan dena; batez ere, arropari eta horren inguruan dagoen moda gurpilari erreparatuta".

Atzo egin zuten sari-banaketa ekitaldia, urtero moduan, Arkupe aretoan, baina, aretoan publiko barik, eta *streaming* bitartez; Usoa Agirrek aurkeztu zuen. Bi lanen artean zalantzan ibili ziren, eta, biek merezita zutela ondorioztatuta, bi spoten artean banatu zuten 1.000 euroko sari nagusia: *Zuk zureztat sortu* da bat –Eibarko Idoia Lahidalgak eta Oihane Puertasek egindakoa– eta Irungo Julen Urtxegiren *Ondo pentsatu* da bestea. "Spoten kalitate tekniko eta mezuaren egokitasuna" baloratu dute, bereziki, epai-mahai-kideek; eta Unai Elkoro Aretxabaleto alkateari egokitu zitzaion atzo sari hori ematea.

Gazteen saria, Arrasaten

Oihan Loitik behin baino gehiagotan erakutsi du ikus-entzuzkoak egiten duen trebezia, eta oraingoan ere hala egin du, BHKlip sariaren erdia harentzako izan da eta; beste erdia Lur Bengoa herrikidearekin partekatuko du. Alberto Garro Arizmendiko komunikazio arduradunak banatu zuen; epai-mahai-kideek "spoten kalitate tekniko" azpimarratu dute.

Aretxabaletan egindakoa den *Zer dago zuk janzten duzunaren atzean?*–Beñat Abasolo eta Markel Bazanbide– spota izan da ikusleen boto gehien jaso duena. Musika sinkronizazio onenaren saria, "musika egokitasunagatik eta originaltasunagatik", Mikel Agirrek, Ainhoa Imazek eta Kimetz Bilbaok egin duten *Beste bat?* lanak eskuratu du.

'Euspot.eus' atarian ikusgai

Aurtengo lehiaketako lan guztiak dagoeneko sariketaren atarian daude ikusgai. Horrez gainera, Euspot-en orain arteko ibilbidean batutako lan guztiak ere oraindik eskuragarri daude.

Udazkenean hasiko dira hurrengoekin: hamargarrena.

Euskarazko film laburren katalogo berria osatzeko garaia

Ekainaren 30a aurretik bidali behar dira Kimuak bilduman parte hartu nahi duten filmen eskaerak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Ettxepare Euskal Institutuak antolatutako eta Euskadiko Filmmategia Fundazioak kudeatutako programa da Kimuak, zeinek euskal film laburren sustapena eta banaketa duen helburu. Urteroko deialdiarekin katalogo bat osatzen dute eta Espainiako eta nazioarteko zinema jaialdietan zabaltzen dute gero.

Aurtengo uzta batu gura dute, eta ekainaren 30ean amaituko da lanak bidaltzeko epea. Iazko ekainaren 1etik aurrera egindakoak izan behar dute, eta, gehienez, 30 minutuko iraupenarekin; parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake. Oinarriak eta informazio gehiago, *Kimuak.com* atarian.

Iaz, Debagoieneko bi

Jesus Mari Lazkano Bergarako margolariak Josu Venerorekin egin duen *Artiko* ibilbide polita egiten ari da. Hego Korean estreinatu zuten, eta BBK Mendi Film festibalean euskarazko film onenaren saria eskuratu zuen. Aitor Arregiren eta Joxe Mari Goenagaren *Mateoren ama* lanak, besteak beste, Tangerko jaialdian gidoi onenarena eta ZINEBIN Euskal Zinemaren Sari Nagusia irabazi ditu.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 3AN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
ALEX TXIKON MENDIZALEA ELKARRIZKETATUKO DU
AIERT ARIETA KAZETARIAK

goiena
20 URTE ZUEKIN.





Kaleko Urdangak talde bergararra. HO DEI IZARRA


"Kaleak sutan" jartzeko diskoa, argitaratzear

Kaleko Urdangak talde bergararrak hiru abestirekin osatutako diskoa argitaratuko du astelehenean. Gaur, arratsaldeko zazpitan, aurkezpena egingo dute, 'streaming' bidez, Hamaika telebistan eta Doka antzokiko sare sozialetan

Narao Urien Berrio BERGARA
2010. urtearen amaieran, punk eta oi! estiloetan oinarritutako *Kaleko mobida* saioa grabatzeaz arduratzen zen lagun taldeak Kaleko Urdangak taldea sortu zuen. Ia hamar urte eta hamaika abesti eta bizipen geroago, ekainaren 1etik aurrera eskuagarri izango da taldearen hiru abesti berriz osatutako 7"-koa: *Kaleak sutan*. Egun berean jarriko da salgai *Kaoska Euskal Herrian* bilduma ere, non beste abesti berri batekin parte hartu duten. Tough Ain't Enough Records diskoetxe madrildarraren bitartez lortu daitezke biak. "Biniloan eta Internet bitartez argitaratuko da eta hiru abestiko 7"-ko bat izango da. Bi alde ditu EPak: A atalean zentzu politikoko abestiak daude eta B atala arrantza munduari omenaldi txiki bat da", dio Asier Kortabarria *Moto*-k. Bestalde, diskoaren izenburua jendarte mugiarazteko mezua dela dio Kortabarriak: "Kaleak sutan

jartzeko beharra dago, eta, ikusita koronabirusarekin egon den gestioa, gero eta zentzu handiago hartzen du izenburuak".

Diskoaren aurkezpena, gaur
Kaleko Urdangak taldea taula gainera igoko da gaur. Kontzertua Hamaika telebistan eta Doka antzokiko sare sozialetan jarraitu ahal izango da, 19:00etan.



'KALEAK SUTAN'

- **Estiloa** Punk-oi! musika
- **Diseinua** Smoke Signals
- **Disketxea** Tough Ain't Enough Records diskoetxe madrildarra

Ekainaren leian argitaratuko diren *Kaleak Sutan*-eko eta *Kaoska Euskal Herrian* bilduman sartutako abestiak aurkeztuko dituzte bertan, baita *Vis Vires* taldearekin ateratako EPkoak ere, besteak beste. "Gaur, Dokan, *streaming* bidez aurkeztuko dugu EP hau, arratsaldeko zazpitan. Guk zuzenekoak maite ditugu, eta, gaur egungo egoera ikusita, pixka bat iluna ikusten dugu etorkizuna. Europara irteerak genituen udan, eta dena galdu dugu, baina espero dugu diskoak harrera ona izatea", dio *Moto*-k.

Kultura babesteko unea

Koronabirusaren krisiak gogor astindu du kulturaren mundua, eta Kortabarriak argi utzi gura du orain inoiz baino gehiago kultura babesteko unea dela: "Kultura arloko pertsona asko egoera zailean daude eta ez dute etorkizunik ikusten; gustatzen zaizkigun taldeen, diskoetxeen... alde egiteko unea da".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sarearen izena" [barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa.

Inbentarioaren ZPD 1579977 legearen bidez jarrizko diruaren bitartez Goiena Hamaika Telebista eta Doka antzokiko sare sozialetan argitaratuko dira. Doka antzokiko sare sozialetan argitaratuko diren abestiak goiena.eus webgunean argitaratuko dira. Hamaika Telebista eta Doka antzokiko sare sozialetan argitaratuko diren abestiak hamaika.eus webgunean argitaratuko dira.

Tarta bat irabazteko aukera

GOXO-GOXOARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari Otorluzko atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: Ekainaren 2a da

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jartzeko
[barkidaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



ESKAINZA BEREZIA!!

Maiatzetik abendurako barkidetzeta: 30€

Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Baserría Oñatin. Baserrí bila gabiltza Oñatin. Telefonoa: 653 01 71 65

103. ERRENTAN EMAN

Zarautz. Etxebizitza ematen da errentan, hama-bostaldika, uda sasoirako, San Pelaio auzoan. Bi logela eta bi bainugela. Iggailua dauka. Balkoia-ekin. Dena kanpoaldera begira. Garajea barne. 685 72 23 75 (Nerea)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru kideko familia bat gara eta erdigunean etxebizitza hartuko genuke errentan, prezio onean. Telefonoa: 680 87 38 66

Bergara. Hiru pertsonako familia bat gara eta errentan hartzeko etxebizitza bila ari gara. Badaukagu lana. 645 72 92 87

Debagoiena. Errentan hartzeko pisu bila dabilen bikote bat gara. Telefonoa: 688 63 46 06

Eskoriatza. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada, Eskoriatzan; baina bailarako beste herriren baten ere izan daiteke. 651 64 55 05

105. ETXEA OSATU

Bergara. Errentan hartzeko logela baten bila nabil. 631 15 19 94

Debagoiena. 48 urteko mutila naiz eta logela bat behar dut errentan. Txar-kubi bat daukat, ondo hezitakoa. Deitu 666 16 95 11 telefonora.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

OÑATI

Erdigunean kafetegi-taberna bat ematen da errentan. 685 76 83 16

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxean bertan bizi izaten, emakume nagusi bat zaintzeko neska bat behar dugu. Derrigorrezkoa da soziosanitario titulua eta legezko agiriak izatea. Deitu 620 36 87 60 edo 615 70 95 04 telefono zenbakira.

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo beste-la. 603 25 79 96

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusien zaintza lanetan aritzeko prest dagoen emakume arduratsua naiz. Titulu soziosanitarioa eta legezko agiriak dauzkat eta baita esperientzia handia ere. 688 73 10 25

Bergara. Neska euskalduna lan bila: umeak zaindu, etxeko lanak egin, garbiketak eta abar. Esperientzia daukat arlo horietan. Irakasle titulua daukat. 608 03 51 50

Bergara. Neska gertu zapatu eta domeka goizetan lan egingo. Soziosanitario titulua daukat. 696 84 19 51

Debagoiena. Arratsaldetan, gauetan edo asteburuetan zainza lanak egingo gertu nago. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Asteburuetan eta astean zehar, egunez, nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketan lan egingo nuke. Baita legezko agiriak eta lanerako titulazioa dauzkat. 662 02 45 80

Debagoiena. Esperientzia eta gomendio agiriak dauzkan Nikaraguako neska nagusiak zaintzeko edota garbiketan lan egingo gertu. 600 86 41 39

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Baita orduka ere. Telefonoa: 642 41 02 49 edo 631 98 22 90

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Baita orduka ere. 642 18 77 89

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar lan egingo nuke. Orduka ere bai. Telefonoa: 617 20 79 97

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egingo nuke. 632 87 91 90

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egingo nuke. 632 37 65 40

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka lan egingo gertu nago. 631 19 75 84

Debagoiena. Garbiketan edota nagusiak eta umeak

zaintzen lan egingo nuke. 631 49 47 98

Debagoiena. Garbiketan zein nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 62 73 10

Debagoiena. Gizonezkoa gertu nagusiak zaintzeko, eraikuntzan laguntzeko edo tabernan lan egingo. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 642 90 41 05

Debagoiena. Mutila gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egingo: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketak egingo. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako gertu nago. Egunez, etxean bizi izaten edo asteburuetan. 612 48 63 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketa lanetan aritzeko gertu nago orduka edo egunean zehar. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 612 23 89 09

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketa lanetan aritzeko gertu nago, orduka edo egunean zehar. Baita asteburuetan ere. Telefonoa: 632 25 27 26

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 93 32 56 (Natividad)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketan edo sukaldetan laguntzen lan egingo nuke. 643 59 76 06

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, egunean zehar jardun osoz edo orduka. 602 32 06 58

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Erabateko prestutasuna. 631 93 11 90

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Erabateko prestutasuna. 658 92 43 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, baserriko lanetan eta garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 643 47 42 33

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, baserriko lanetan eta garbiketan lan egingo nuke. Telefonoa: 643 47 39 37

Debagoiena. Neska arduratsua zainza lanerako gertu. Etxean bertan

bizi izaten edo bestela. Esperientzia daukat. Telefonoa: 631 76 88 03

Debagoiena. Neska gertu etxeko laguntza lanetan jarduteko. Telefonoa: 651 64 55 05

Debagoiena. Neska gertu garbiketa eta lisatze lanak egingo edota umeak eta nagusiak zaintzeko. 611 24 26 64

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar zein etxean bertan bizi izaten. 642 41 72 62

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunez edo etxean bizi izanda lan egingo: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketarako gertu nago. 654 11 15 14

Debagoiena. Nikaraguako mutila gertu nagusiak zaintzeko, nekazaritzarako zein bestelako lanerako. 631 79 31 92

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan mutila gertu nagusiak zaintzeko edo denetariako garbiketarako gertu nago. 643 73 62 36

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan neska gertu nagusiak zaintzeko edo denetariako garbiketarako gertu nago. 643 73 62 83

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzen eta garbiketarako gertu nago. 686 55 29 33

Umeen zaintza-Debagoiena. Medikuntzan graduatutako neska gaztea, umeen zaintzan lan bila. Umeak zaintzen eta eskolara ematen lan-esperientzia. Euskara maila altua (EGA) eta First-a. 619 96 48 04

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Txahala. Baserriko txahala saltzen da. Pentusu, belar eta lastoz hazitakoa.

Izozkailurako modukoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 31 26 44

8. DENETARIK

802. EROSI

Bizikleta. Umeendako moduko 20 hazbeteko mendiko bizikleta erosiko nuke. Eskerrik asko. Telefonoa: 635 20 18 56

804. HARTU

Landareak. Piper eta tomate landareak hartuko nituzke. Emateko moduan badauzkazu, deitu zenbaki honetara mesedez: 656 75 76 98

806. GALDU

Betaurrekoak Arrasaten. Graduatuak eguzkitako betaurreko marroiak galdu ditut, Zuru-galde eta Munar aldame-neko parke inguruan. Aurkituz gero, eskertuko nuke telefono honetara deitzea: 620 11 82 43

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA

'Bereziak' Astelehena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

ALEX TXIKONI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 29

08:00 Txantxariak
08:30 Kantari Arrasate 6
09:00 Kantari Arrasate 5
09:30 Kantari Arrasate 2
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Osasun ariketak
11:30 Hala Bazan
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Kantari Arrasate 2
13:30 Kantari Arrasate 6
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albistek
15:30 Kantari Arrasate 6
16:00 Albistek
16:30 Ane Lore sukaldetan: Pasta feskoa
17:00 Hemen Debagoiena
17:30 Adinberri 25
18:00 Bergarako jaiak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Elkarrizketa: Pili Gartzia
19:45 Etxetik plazara
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hala Bazan
21:30 Ane Lore sukaldetan: Pasta feskoa
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Kooltur: Revolta Permanent

ZAPATUA, 30

09:00 Kantari Arrasate 8
09:30 Kantari Arrasate 7
10:00 Kantari Arrasate 9
10:30 Bergarako jaiak
11:30 Ane Lore sukaldetan: Pasta feskoa
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Elkarrizketa: Pili Gartzia
13:30 Hemen Debagoiena
15:00 Bergarako jaiak
16:00 Kooltur: Revolta Permanent
17:00 Hala Bazan
17:30 Adinberri 25
18:00 Bergarako jaiak
19:00 Elkarrizketa: Pili Gartzia
19:30 Hemen Debagoiena
21:00 Astearen errepasoa
21:30 Hala Bazan
22:00 Kooltur: Revolta Permanent
23:00 Elkarrizketa: Pili Gartzia
23:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 31

08:30 Hala Bazan
09:00 Txantxariak
09:30 Kantari Arrasate 7
10:00 Kantari Arrasate 8
10:30 Kantari Arrasate 9
11:00 Elkarrizketa: Pili Gartzia
11:30 Hala Bazan
12:00 Jaiak: Bergara 2019
13:00 Hemen Debagoiena
14:30 Hala Bazan
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kantari Arrasate 7
17:00 Kantari Arrasate 8
17:30 Adinberri 6
18:00 Jaiak: Bergara
19:00 Hemen Debagoiena
20:30 Astearen errepasoa
21:00 Kooltur: Revolta Permanent
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Jaiak: Bergara

EGUBAKOITZA, 26

BERGARAKO JAIAK ZUZENEAN

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUBAKOITZA, 26

REVOLTA PERMANENT TALDEA

'Kooltur'

23:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOAKO goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldarmeneko qr kodea.

MARTITZENA, 30



ARGAZKILARIA XXXX

PAZKO JAIEN LABURPENA

'Jaiak'

23:00

EGUENA, 2

HEMEROTEKARI BEGIRA

'Hala Bazan'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Horik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA

Ane Etxabe Bakaikoa

2020ko maiatzaren 20an hil zen, Baionan.

*Ane Etxabe laztana,
borrokalaria kuttuna, nekaezina ume-umetarik.
Borrokalaria antifrankisten alabia,
fan zitzen atzerri gogor batera, bañe gurekin akordau zitzen.
Alabia, ama eta amandria, kejaik sekula bez, inoiz bez.
Zure odola bizirik dauen artien, itsasora goiezenien
gidatzen gaituen brankaren zati bat izango zare.
Beti arte, morena.*

Maitte-maitte zaituen zure ama, alaba, lobak eta lehengusu guztixak.
Bergaran, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Ion Mirena Errasti Alzelai

*Lehen be pozik
aittaren onduan
eta orain ama hor dala
bai pozik bere altzuan*

...ta guk hirurok goguan.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Gorka Garitano Arregi

2020ko maiatzaren 27an hil zen, 50 urte zituela.

*'Unblenble, unblenble
kopa hori, kopa hori.'*

Gaurkoa Gorka, hireatik!

Kuadrillako lagunak.
Antzuolan, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Ion Murguz Orueta

'Murgu'

2017ko maiatzaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

*Zure hutsunea sentitu dugu
hiru urtetan barrena
baina sekula ez da hustuko
gugan utzi zenuena.*

Zure kuadrilla.
Oñatin, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Kepa Lopez de Aretxabaleta Fernandez de Betoño

(Enkarni San Julianen senarra)

2020ko maiatzaren 23an hil zen, 50 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Arrasate Herri Eskolako Komunitatea
lkasle, guraso, irakasle eta ez irakasleak.

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Kepa Lopez de Aretxabaleta Fernandez de Betoño

2020ko maiatzaren 23an hil zen, 50 urte zituela.

Dorletako Ama TXEko zuzendaritza, guraso, entrenatzaile eta lagun guztiok bat egiten dugu familiaren saminarekin.

Enkarni, Jon eta Ainhize, jaso gure doluminik sentikorrenak.

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 29an.

OROIGARRIA

Pilar Ibabe Elorza

Santi Urkiaren alarguna

2020ko maiatzaren 22an hil zen, 92 urte zituela.

*Agerren jaio, ezkondu arte
inguru hartan hazia.
Gero Ugastein bide berri bat,
osatuaz familia.*

*Izate lasai, goxo horrekin
poztu diguzu bizia.
Gure bihotzean, betirako
ama eta amandria.*

Haren aldeko hileta-elizkizuna ekainaren 26an izango da, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokunde Amaren parrokan.
Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerririk asko.

Aretxabaletan, 2020ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

Arantza Alberdi Arribas

2020ko maiatzaren 15ean hil zen, Bergaran.

Eskerririk asko egun hauetan eta beti, bai amari bai guri babesa eta gertutasuna adierazi diguzuenel guztiok (senitartekoei, lagunei, bizikideei eta herrikideei).

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko maiatzaren 29an.

ESKER ONA

Kepa Lopez de Aretxabaleta Fernandez de Betoño

2020ko maiatzaren 23an hil zen, 50 urte zituela.

Haren emaztea: Enkarni San Julian. Seme-alabak: Jon eta Ainhize. Gurasoak: Esteban eta Rosi (†). Ezkon-gurasoak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Pertsonalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.

*Ez dakigu noiz, ez dakigu non,
baina gure bideak
beriz gurutzatuko direla badakigu.
Maite zaitugu.*

Arrasaten, 2020ko maiatzaren 29an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 29 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26	Egubakoitza, 29 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 30 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39	Zapatua, 30 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 31 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74	Domeka, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 1 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65	Astelehena, 1 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 2 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 0	Martitzena, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 3 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30	Eguaztena, 3 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 4 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15	Eguena, 4 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 30 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	Zapatua, 30 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	Domeka, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 1 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63	Astelehena, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15	Martitzena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 3 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74	Eguaztena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 4 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87	Eguena, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
ORATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58	Egubakoitza, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 30 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	Zapatua, 30 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Domeka, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05	Domeka, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Astelehena, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28	Astelehena, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28	Martitzena, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16	Eguaztena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16	Eguena, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

BARESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Momentu zail hauetan,
lankideok, Jonak, Ibanek, Mariok eta Maribik,
sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu
Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu
Beti izan dugun lan egiteko eran.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

HILETA

Carmen Velasco Escribano

Antonio Coten alarguna

2020ko maiatzaren 1ean hil zen, 78 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna zapatuan, maiatzak 30, izango da, 18:00etan, Antzuolako Eruzkizo Amaren parrokan.


Beti izango zara gure bihotzetan.

Bertaratuko zaretenoi alde aurretik eskerririk asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2020ko maiatzaren 29an.

TXUTXU-MUTXUAK



1



4



5



2



3

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

1. Urrezko ezteiak

Joxe Mari Perez eta Begoña Aristi bergararrak 1970eko maiatzaren 27an ezkondu ziren. "Zorionak, eta musu bana familiaren partetik!".

2. Aitzulora paseoan

Susana Arrese, Itsaso Galdos eta Jasone Elorza mendi buelta egitera joan ziren aurreko asteburuan. Aitzuloraino heldu ziren.

3. Ilunabar ederrak

Arratsaldean paseora ateratzen direnek argazki ederrak egiteko aprobetxatzen dute. Horixe bera egin zuen Lukene Igartuak.

4. 'Txatxitelebista'

Umeendako eta nerabeendako saio bereziak egiten hasi dira Txatxilipurdiren kanalean, astean hiru egunetan.

5. Gaztelekuko kontzertuak

Oñatiko gaztelekuan egin diren zuzeneko kontzertuak ematen hasi dira Internetez. Azkena, Kimera oñatiarrek 2018an egindakoa.

ZORION AGURRAK



ELORRIO
Ilargi Urbina Fernandez de Arroiabe
Ekainaren 3an, 11 urte. Zorionak, maitia!
Jada hamaika urte! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Musu handi bat eta laster arte. Zure Arrasateko familia.



OÑATI
Irati Ugarte Imaz
Ekainaren 1ean, 39 urte. Zorionak, amatxo! Egun ederra pasatu. Muxu handi bat, familixaren partetik!




ANTZUOLA
Ander Etxaniz Zabaleta
Ekainaren 1ean, 11 urte. Familiaren partetik, egun ezin hobea pasa dezazula espero dugu eta muxu handi bat!



ARRASATE
Eider Zugasti
Maiatzaren 31n, 10 urte. Familiaren partetik, zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna. Zoriontsu izan!



ARRASATE
Ekai Arri Elortza
Maiatzaren 31n, 6 urte. Zorionak, Ekai! Ondo-ondo pasatu zeure egunian eta patxo erraldoi bat hainbeste maite zaitugunon partetik... Izan zoriontsu!




ARRASATE
Janitz Abasolo
Maiatzaren 30ean, 15 urte. Familiaren partetik, zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna. Zoriontsu izan!




BERGARA
Aratz Domenech Iñarra
Maiatzaren 30ean, 13 urte. Zorionak, maitia. Ai ama, beste urte bat; ze azkar handitzen zaren! Oso ondo pasatu eguna eta disfrutatu. Jarraitu zaren moduan izaten. Maite zaitugu, Gorkaren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Uxue Lezamiz Agirre
Maiatzaren 30ean, urtebete. Zorionak, Uxue, zure lehen urtebetetzean eta patxo potolo bat zure birramamaren, amamaren eta aitxixeren partetik.




ARRASATE
Haizea Errasti Canales
Maiatzaren 29an, 8 urte. Zorionak, Haizea! Oso ondo pasatu zure egunean! Musu handi bat, familiaren partetik. Bereziki, Markel, Aitor, June eta Alazne.



BERGARA
Manex Arana Garitano
Maiatzaren 29an, 9 urte. Zorionak, Manex, familixako danon partetik!



ANTZUOLA
June Garaikoetxea Iturbe
Maiatzaren 29an, 12 urte. Zorionak, June. 12 urte! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo bat.




BERGARA
Lara Cabrejas Moreno
Maiatzaren 28an, 12 urte. Zorionak etxekoan partetik. Ondo pasatu zure eguna.




ARETXABALETA
Araitx Pagaldai Atxa
Maiatzaren 28an, 8 urte. Zorionak, maitia! Egun zoragarria pasatu eta muxu potolo bat, etxeko danen partetik.



OÑATI
Luka Goitia Osinaga
Maiatzaren 27an, 2 urte. Zorionak, xagutxo! Bi urte jada! Ahal dan onduen ospatuko dogu. Patxo potolo pila bat, batez be Mattinen partetik! Asko maitte zaittugu!



ARRASATE
Ane Labayen Marin
Maiatzaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Anetxo! Etxeko printzesa! Asko maite zaitugu! Aitaxoren, amatxoren, Oihanen eta familia osoaren partetik. Patxo asko!



ESKORITAZA
Xabier Orobengoa Nevado
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun. Naiz eta pixka bat arraroa izan, primeran pasatuko dugu; ikusiko duzu! Besarkada bat etxeko guztien partetik, batez ere anaia Anerrek bidaitzen dizuna!



ARRASATE
June eta Andde Leibar Belinchon
Andek 6 urte, maiatzaren 5ean eta Junek 8 urte, 25ean. Zorionak etxekoan danok partetik! Zoragarriak zarete! Muxu handi bana, sorgintxuok!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.


Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




ARETXABALETA
Peio Uribe Coves
Maiatzaren 25ean, 3 urte. Mila zorion familia osoaren partetik eta egun zoragarria ospatu etxekoarekin!



ANTZUOLA
Maialen Aranguren Quintana
Maiatzaren 22an, 13 urte. Zorionak, Maialen! Laster ospatuko dugu lagunekin eta familiarekin. Muxu handi bat etxekoan partetik!



ARRASATE
Jokin Guzman
Maiatzaren 21ean, 9 urte. Mila kilo zorion aitaxoren, amatxoren eta Oierren partetik. Maite zaitugu!



OÑATI
Izar Isasti Azkoitia
Maiatzaren 25ean, 11 urte. Zorionak, Izar! Ederki pasatu zure urtebetetze eguna eta topera disfrutat. Muxu erraldoi bat, etxeuon partetik. Muak!



OÑATI
Ane Garmendia Zumalde
Maiatzaren 24an, urtebete. Zorionak, Ane! Ondo-ondo pasatu zure lehenengo urtemugan! Patxo handi bat danon partetik!



OÑATI
Aimar Hernandez Otxoa- Aizpurua
Maiatzaren 20an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat familiako danon partetik. Mua-mua!



ARRASATE
Aimar Rodriguez Sanzberro
Maiatzaren 12an, 9 urte. Zorionak, Aimar! Etxekoan eta, bereziki, Iratiren eta Ekainen partetik. Egun ederra pasatu genuen!



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

"Normaltasun berria"

Badirudi badatorrela "normaltasun berria". Konfinamenduko faseetako aldrebeskeriak ikusi otean... zer hartuko ote dute normaltzat?

Itxialdian: Txakur-jabeak egun santu dena kalean. Gainerakoak supermerkatuak bakarrik. Baratzera ez. Umeak etxeko sofán saltoka. Komuneko papera agortuta. 600 euroko isunak!

0 fasean: Kirola egiteko edo paseatzeko aukera, ordutegi mugatuarekin. Umeekin ordubete, baina guraso bi batera ez -lo eta bizi bai, baina paseatu ez-.

1 fasean: 0 fasean bezalatsu, Jaurlearitzaren "zuhurtziari" esker. Aldaketa: 10 lagun bitarteko taldeak, terrazetan. Etxeetan ez. Ordutegi librea, kontsumorako: dendak eta tabernak. Paseatzeko eta mendirako ez, bakarrik joan arren. Kirol-paseo ordutegian, banku batean eseri, eta udaltzainak: "Mugitu, transitoan egon behar duzue!".

2 fasean: Umeak ordubete soilik ateratzetik egun osoa kalean pasatu ahal izatera. Etxera inor gonbidatu ezin ahal izatetik 15 lagun elkartu ahal izatera. Ordutegi zorrotzetik librea. Isunen ordez, gomendioa: saiatu zahartxoan ordutegia errespetatzen. Maskara derrigorrezkoa leku itxietan, baina lasai hartu zerbezatzeko bat taberna barruan!

BUKATZEKO

Makulu barik ibiltzeko ametsa bete guran

Duela bi urte, minbizi baten ondorioz, eskuineko hanka moztu zioten Oñatin bizi den Roberto Moreno ondarrutarrari. Orain, mugikortasun handiagoa emango liokeen protesi bat erosteko dirulaguntza kanpaina abiarazi du, herritarren artean

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

"Animo aldetik gorabehera handiak ditut. Ez nuen uste egoera honetan egongo nintzenik 28 urterekin, baina ez dago besterik. Bizitza lasaia daramat. Pena handiena da ezin dudala pilotan jokatu. Frontoian ibili. Baina aurrera egin behar dut". Berba horiek Roberto Morenorenak dira. Ondarrutarra jaiotzez, Oñatin bizi da gaur egun, eta eskuineko hanka falta zaio. Protesi bat dauka, baina makuluekin ibili beharra dauka, mugimendu mugatua duen protesia delako. Aldatzea garestiegia da (80.000 euro). "Makulu barik ibili gura dut. Hori dut amets eta erronka orain. Hori horrela, dirua batzeko kanpaina batekin hasi naiz *Gofundme.com* atarian. Ekarpenguztiak dira ongieterriak". Oraingoz, 27.000 euro batu ditu. Azken ekarpen handia Athleticeko jokalarari Inigo Martinezek egin du: 10.000 euro eman dizkio bere herrikideari.

Genium X3 protesiarekin mugikortasuna hobetuko luke. "Inori ez zaio gustatzen eskean ibiltzea, baina nire bizitza-kalitatea hobetu beharra daukat. Ezin baditut 80.000 euro batu, badaude beste protesi merkeak



Roberto Moreno, Oñatiko plazako frontoian. MAIDER ARREGI

goak, mugimendu txikiagoa dutenak. Ahal dudan lekuraino iritsiko naiz", dio Morenok.

Femur distaleko osteosarkoma

2017ko abuztuan diagnostikatu zioten Morenori minbizia: femur distaleko osteosarkoma. Lehen ebakuntza Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean egin zioten. Tumorea eta hankako hainbat hezur kendu zizkioten. Leku horretan azal barruko protesia ipini zioten.

Lehen ebakuntzaren ostean, etxean, infekzio handia izan zuen, eta ospitalera itzuli zen berriro. Bigarrenean, Donostia-ko Unibertsitate Ospitalera. Gogorrena etortzeko zegoen. "Ebakuntzaren ondokoa izan zen okerrera. Psikologikoki eta fisikoki hondoa jo nuen. Azalaren azpitik ipini zidaten protesia atzera bota nuen, eta beste infekzio bat eduki nuen", gogorra ekarri du Morenok.

Hori horrela, borrokan egiteko indar gutxiarekin, baina bizi-tzen jarraitzeko ilusioarekin, hanka anputatzea adostu zuen medikuarekin. "Egunerokotasun normala izateko erabaki onena izan zen, baina oso traumatikoa, era berean. Eskerrak etxeokak eta lagunak alboan izan nituen. Haiei esker hasi nintzen tunelaren bukaera ikusten, eta etorkizun baten aldeko apustua egiten", dio.

Lehen pausoa izan zen protesia ipintzea. Gaur egun erabiltzen duena. Soila. Orain, pauso bat gehiago eman gura du. "Kirola egin gurako nuke berriro. Mendian ibili. Paseoak egin. Bizitza osoa eduki gura dut, eta horretarako protesia aldatu beharra daukat".

arizmendi
ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

AURRE MATRIKULAZIOA Ekainaren 1etik 19ra

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- OSASUN LARRIALDIK
- ERIZAINZAKO ZAINZTA OSAGARRIAK
- MIKROINFORMATIKA



MATRIKULAZIOA Uztailaren 13tik 17ra